

Jesus Lete Sarasola

"Ibai-Ertz"

ORRELA ZIRAN GAUZAK

Erri-literatura
Auspoa Liburutegia

Oroipenak



ETOR

Ba - 3800

10042

ORRELA ZIRAN GAUZAK

Auspoa Liburutegia
206

Jesus Lete Sarasola
"Ibai-Ertz"

**ORRELA ZIRAN
GAUZAK**
(Oroipenak)

Zuzendari - Antonio Zavala



EDITORIAL

ETOR

ARGITALETXEA

© EUSKO KULTUR ERAGINTZA ETOR S.A.
Euskal Herria, 2-2º 20003 DONOSTIA

I.S.B.N: 85527-65-8

D.L.:NA. 372-1990

Irar-lanak: GRAFICAS LIZARRA, S.L. - Lizarra

Eskeintza

Nere emazteari
bere laguntzagatik.



Jesus Lete Sarasola, "Ibai-Ertz".

(Tomas Hernandez'en marrazkia)

ITZAURREA

Jesus Lete Sarasola, "Ibai-ertz", Itsasondo'ko Erriko Etxean jaio zan, 1921'ko Agoztuaren 27'an, senideetan amargarrena eta azkena.

Biamamonean, San Agustin egunean, bataiatua izan zan, eta izenak onela ditu: Jesus, Agustin, Karmel. Bere gurasoak Juan Maria ta Maria Teresa izan ziran.

Anai-arrebak, berriz, Epifania zana, Engrazia, Joakin zana, Maria, Pilar, Kruz zana, Purita, Biktor zana eta Teodoro.

Amalau illabete zituala, *parálisis infantil*, gaur *poliomelitis* deritzaion gaitzak arrapatu zuan, eta bi anketan dauzkan *aparatos ortopédicos* oietaz balia-

tzen da ibiltzeko. Azken aldi ontan, bi erorketa txar egin ondoren, elbarri-aulkian bere emazteak eramaten du, baita kotxea gidatu ere, etxez kanpo joan bear duanean. Emaztearen izen-abizenak, Maria Karmen Azpiazu, Santa Luzia ballarako Miranda baserriko alaba. Ezkontzako frutu bezela, bi seme ta alaba bat dauzka: Joxe Mari, Elixabet eta Gurutz.

Ogei ta emezortzi urtean ofizinista-lana egin du, ta gaur elbarri-saria jasotzen du.

Oso euskeraren maitale izan da beti. Ori dala medio, bertso-sail asko idatzi du. Baiñan ez da bat-bateko bertsolaria, erriz-erri bertsotan ibiltzen diran oietakoa alegia, paperean idazten edo jartzen duana baizik.

Bertso-lan oiek *Ibai-ertz* izenordearekin agertu ditu beti edo geienean. Zergatik ote? Ori ibaiaren ondoan zan etxe batean jaio zalako, eta orain ere ibai beraren ertzean dagoan etxe batean bizi dalako.

Anketako gaitzak ez dio umorea galerazi. Orain bi urte, adibidez, gerriko miña gure Jexuxek, eta medikuaren etxera joan da, indizio bat artzera. Andik datorrela, auzoko emakume batek onela dio:

–Zer zabilta, Jexux?

–Ba, indizio bat artzen, gerriko miñez nabil eta.

–Bai; ez da arritzeko, ogei urte ez daukazu eta.

–Ogei urte? Baita iru aldiz ere. Eta, gaiñera, beste sei sobratzen zaizkit.

Erdoirik gabeko mingaiña du, beraz, izketarako. Ori dala-ta, Euskaltzaindiak 1962 urtean bertso-paperean sariketa jarri eta berak irabazi zuan ezkeroztik –orduan asi zan *Ibai-ertz* izenordea erabiltzen–, erri

askotako bertsolari-saioretara dei egin izan zaio, bai gai-emale bezela ta bai epailari-lana egitera ere.

Ara zer egin ortan korritu dituan erriak: Antzuola, Brinkola, Zumarraga, Ezkio –sei urtetan–, Ormaiztegi, Beasain, Lazkao, Ataun San Martin eta San Gregorio, Ordizia –iru urtetan–, Arama, Itsasondo, Zaldibia –emen ere iru urtetan–, Tolosa, Legorreta, Aia, Andoain –bi urtetan–, Pasai Zabala, Altza –itsasondotar Bixente Barandiaran'en omenaldian–, Abaltzisketa –sei urtetan– Amezketa, Orendain Loiola Erri Irratiko txapelketetan maiko, Lesaka –bost urtetan Naparroa'ko txapelketan jai-jartzaille eta maiko–.

Orrezaz gaiñera, gaiak jarri izan ditu, bertakoek aurkezle-lana egiteko, Albiztur, Goiatz, Pasai Zabala eta beste erriren baterako ere bai, ziur aski.

Ardi-gazta txapelketetan ere urteetan parte artu du, ez gazta dastatzen, aurkezle bezela baizik, onako erri auetan: Ordizia, Uarte Arakil, Etxarri Aranatz, Deusto, Agurain, Donostia eta Iruñe'n.

Txirrindulari-probetan ere bai *altabozero* bezela.

Ordizian, adibidez, ogei ta amar urte luzetan ibili izan da, *Prueba Villafranca* deritzaion karreran, elektragailluen propaganda egiten.

Geldi egoteko jaio etzana degu, beraz, baiña geldi egon bear duana, bere anketako eziña dala bide. Erretiroa artu zuan ezkeroztik, eguna etxean igarotzen du, ibai gaiñeko begiratoki (*mirador*) zabal eta eder batean, idazten, irakurtzen edo irratia entzuten. Idatzi, *El Diario Vasco* egunkarirako idazten du, bere lan auek batik-bat bialduz, edo-ta Loiola Erri

Irratiak oraintsu asi berria duan *Printzak* izeneko saiotxoak prestatuz.

* * *

Liburu au nola gauzatu dan esan nai genduke orain. Ori egitea irakurlearen erreztasunerako izango baita.

Orain iru urte ta erdi, eskaera au egin zidaten *El Diario Vasco* egunkaritik: euskal orri bat egunero atera nai zutela ta ea idazleren batzuk billatuko nituan.

Pentsatzen jarri eta, beste batzuen artean, Jesus Lete'ren izena bururatu zitzaidan. Telefonoz deitu eta zer eginkizun izango zan adierazi nion. Onela erantzun zidan:

–Izan diteken albisterik onena da ori neretzat. Burutik pasea neukan ortxe sartu bear nukeala, baiñan ez nekian nola. Orain zuk eskatzen didazu. Asiko naiz. Oso gustora gaiñera.

Idazteko, ordea, gaia bear da; eta gaia billatzea ez da beti erreza izaten. Gure *Ibai-ertz*, ordea, bere jaioterriko gertakizun zaarretan arkitu zuan gai-iturri oparoa: garai bateko oiturak, gizon-emakumeak, pasadizoak, esaerak eta abar ta abar.

Oroipen aundiko gizona agertu zaigula ezin ukatu. Ez du edozeiñek orrenbeste kontu zaar buruan gordetzen. Baiña orrekin bere anketako eziñak zer ikusirik baduala esango nuke. Ibilpide onekoa izan balitz, geldigaitz xamarra izango zala derizkiot. Ibilkari purrukatua, alegia. Baiñan geldirik egon bear eta egorik gabeko txoriaren pareko izan da. Lotura

orrek asko laburtu ditu bere joan-etorriak; ez, ordea, bere ikusmena. Egille izatetik ikusle izatera beartu du.

Era orretan, Itsasondo'n ez da gertakaririk izan, berak buruan jaso gabekorik. Bere erriko bizitzaren lekuko edo testigu berezia izan da, beraz; eta ondoren, artarako egokiera izan duanean, lekuko ori kronista biurtu zaigu.

Oroipen-liburuak orain baiño leen ere idatzi izan dira euskeraz, eta *Auspoa* liburutegi onek oietatik mordoska badu argitaratua. Onako au ere mota ortakoa degu, baiñan bere berritasuna dakarrena.

Orain arteko liburuetan, egilleak bere bizitza kontatu izan du geienetan: Uztapide, Arrizabalo, Alkain, Patxi Otxoki, Ataño, Ostolaiz, Ayerbe, Etxaburu eta abarrek orixe egin dute. Edo-ta beste norbaiten bizitza kontatu izan digute. Adibidez, Ataño'k *Txantxangorri kantaria* liburuan, bere aita zarenen bizitzaren berri emanaz.

Lete'ren liburu onek, ordea, ez du gizaki baten bizitza kontatzen. Bestelako protagonista du. Itsasondo bere jaioterria da protagonista ori. Kolektibo bat, beraz.

Ala ere, ez da ori egin duan leenengoa izan. Txirrita bertsolariaren illoba zan Joxe Ramon Erauskin'ek ere kolektibo bat artu zuan gai eta protagonistatzat, bere *Aien garaia* libururako, Lete'k erri batenak bezela, arek baserritar jendearen oiturak eta gertaerak kontatuz.

Bide irekitzalle dira, nere iritzirako, bi liburu auek.

Besteak beste, ortan meritu on bat dutenak eta, nere iritzirako, jarraitzalleak izango dituztenak. Jende asko baidago gure artean, ori egin dezakeana. Nik beintzat ez det dudarik egiten, denborarekin era ontako liburu geiago etorriko zaizkigula. Eta, Euskalerriaren eta euskeraren onerako izango baitira, nere partetik ongi etorriak izan ditezela.

A. Z.

ESAERA ZAARRAK

Euskal Erriak aberastasun ederrik badu beregan dauzkan esaera zaarrekin. Baiñan tamalgarri bada ere, zabarkeriz, batzuk galtzen ari gera. Errua? Dudik gabe, gurasoen bizkar dijoa, beren aurrei erakutsi ez dietelako. Gaurko zenbait gazteren artean, nork erabiltzen du "musu trukean", eta zer da esaera zaar onen esangura? Ba, auxen: gauza bat utsaren trukean erosi dezula. Mesede bat utsaren trukean egin dizutela. Gazteleraz esanda, erdi *gratisean* zereganatu dezula zuk ain gogozko zenuen gauza edo mesede ori.

Gipuzkoa'n zear peri ederrik egiten da. Beste errietakoei ezer kendu gabe, danak bait dira guztiz

onak, ots aundia duena Ordizia'koa degu. Garai batean, erri onek Villafranca de Oria izena zuenean, asteazkenero etortzen omen zan frantzes euskaldun bat, bere pertzak saltzera.

Lurrean neurri eta mota askotako pertzak zabaldu ondoren, oiur batean asten omen zan bere produktiak eskeintzen, esanez:

–Musu trukean pertza! Musu trukean pertza!

Ontan, asteazken eguadi batez, inguratzen zaio gizon txiki bat. Begia botatzen dio pertz bati, eta tratua zerratu ere bai. Baiñan gizontxoak onela dio saltzailleari:

–Pertz au asko gustatzen zait. Lastima da emen utzi bearra, nerekin bear ainbat diru ez det eta.

–Eraman lasai, gizona, eramane. Beste egun batean ordainduko didazu –dio saltzailleak.

Eroslea joan da bere pertzarekin alai eta pozez. Eguna joan eta eguna etorri, asteazkena joan eta asteazkena etorri arren, eroslea ez da agertzen pertza pagatzera. Alakoren batean, pertz saltzailleak topo egiten du eroslearekin eta ala dio:

–Zu, gizon, noiz ordaindu bear didazu erosi zenedan pertza?

–Nik zuri pertza erosi? Noiz? Zaude ixilik mesez, gizon, nik zuri sekula ez dizut pertzik erosi eta.

Orrela ari dirala, inguratzen zaie aguazilla eta, gauzak erabakitzearren, biak eramaten ditu juzgadura. An ere iskanbilla berdiña juezaren aurrean. Batek baietz eta besteak ezetz. Juezak ez du argibiderik ikusten bere erabakia emateko. Azkenean ala dio:

–Zuk, pertz saltzaille, pruebak, testiguak agertu bear dituzu, gizon onek zuri pertza erosi zizula argi eta garbi justifikatuko dutenak.

Eta, saltzaillearen galerako, iñungo testigurik ez.

Bi gizonak abiatzen dira juzgaduko eskailleretik beera, eta ala dio, su batean, iparraldetarrak Goierriko gizonari:

–A, gizontxo, gizontxo! Galdu duk ire anima beltza!

–Baita ik ere ire pertza!

Gaurko egunean sarritan entzuten da iruzur egiten dala eta baitare timatu. Leen ere ez ziran, ikusten danez, danak gari garbi-garbiak. Noiztik ote dator beste esaera zar au: "kontzientzia astoak berdetan jan zian"?

(El Diario Vasco, 1986–IV–15)

IJITOAK

Ango eta emengo erriek badituzte beregan ezizen edo moteak.

Gure erriaren inguruetakoei begiratzuz, orrela dituzu, irakurle: alzagatarrak, zakurrak; amezketarrak, elbiak; alegitarrak, txintzarriak; orendaindarrak, eltxoak; ordiziarrak, azak; beasaindarrak, bareak; zaldibitarrak, arkakosoak.

Orrela abar luze bat jar diteke, baiñan moztu dezagun geiegi luzatu gabe. Norbaitek galde egin lezake:

–Zuek, itsasondotarrak, zer zerate?

–Gu, eta poz aundiz, ijitoak gera –erantzungo genioke.

Guk, ijito izatearekin, oore aundia degu. Leenbi-zi pertsonak gera. Ez gera abereak. Ez gera barazkiak eta ez gera igaliak. Beraz, pertsonak izanik, gaur edo biar Josepetako Zelaira iritxiko gera. Ez da gutxi.

Zelai ontan bi bide omen daude: bat zerura joatekoa eta bestea inpernurakoa. Ango semaforoan, zer argi izango ote degu?

Gorria? Berdea? Jainkoak jakin! Gorria baldin badegu, berdetuko da eta, ura igarotzean, zeruratze-ko ez dezagula beintzat dalako *dirección prohibida* ori guretzako izan.

Ijitoek, ezkontzeko, baimen berezia dute. Artu lurrezko eltze bat, gora bota eta lurreratzean zenbat puska egin, ainbat urteetako ezkontza izaten dute. Itsasondotarrok ez degu orrelako oiturarik.

Ijitoek, baitare, beren errege eta erregeñak badi-tuzte.

Aukeraketa nola egiten duten ez dakigu, baiñan ziur gaude, ori egitekoan, emen izan degun OTAN bai eta OTAN ezetzek sortu ziguten ots, katramilla eta sesio gabe erabakiko dutela.

Oilloren bat ostutzen dutela? Eta zer? Ijitoak bai-ño lapurragoak, zoritxarrez, gaur egun askotxo ikus-ten dira.

Alare, oiei *señor* eta *don* deitzen zaie.

Orain leen ainbat ijito ez da ikusten, naiz arraza ugaria izan. Garai batean or etortzen ziran, bideak betean, beren asto zaar, karro eta zakur gosetiekin. Azkenaldiz bide bazter batean ikusi nituen. Etzuten karrorik. Furgoneta naiko egoki bat bai; eta telebi-

sioaren bidez zezenak ikusten ari ziran. Zoaz aiei pezeta rubia bat eskeintzera!

Urte sasoi ontan, udaberrian, or ibiltzen ziran asto mozketan baserri eta kale. Aizpurutxo'koa ezagutu nuen.

Etzan amutsa astoak apaintzen. Arren adornu egin bearrak, astoaren ipurt gañean, bere guraizeekin!

Ni ere, aurtzarotik bi oiñetatik elbarri nagoelarik, asto txiki baten jabe izana naiz. Gure erri au guztiz aldapatsua degu eta, zazpi urte nituela, eskolara joateko garaia eldu zanean, astotxo bat erosi genuen zazpi duroan. Au 1928'garren urtean izan zan. Gerroztik bi otz-bero egin ditu.

Iñork deitu gabe, urtero or etortzen zitzaigun aizpurutxotarra bere lana eskeintzera. Tratua, mozketakoa, aurrez egiten genuen. Bestela, bereak eta bi kenduko zizkizun, naiz garai artan IVA'rik ez izan.

Nere astotxoari emezortzi bertso jarri nizkion. Denak jartzeko periodiko osoa bearko nuke eta bi bakarrik jarriko ditut, aietatik artuta. Ara:

Zazpi urte nitula
eskolara asi,
gurasoen ordena:
"Gogotik ikasi".
Bi oiñak elbarri ta
oiñez ezin kasi,
astoa izan nuen
lenbiziko taxi!

Udaberrian moztu
ijitoarekin,
zenbat eskatuko zun
Jaungoikoak jakin.
Eskatzea libre da,
ukatzea berdin,
tratua zerratzen zan
gero erdiakin!

Gizonezkoak asto apainketan jarduten ziran bi-
tartean, emakumezkoak atez-ate or ibiltzen ziran es-
kean eta, bide batez, otarratxoak saltzen, berak zu-
mitzekin egiñak.

Txirritak, *Bertsolariya* liburuan, 1931-1932 ur-
teetan egiñak, 136 orrialdean, ijitoei buruz orrela
dio:

Emakumiak aurrak artuta
eskera dijoazenian:
"Etxekoandre, limosnatxo bat
Jainkoaren izenian".
Ofrezimentu luzia baño
errezo motza azkenian,
gauza guziyak gero berentzat
iñor bistan eztanian.

Txirritak lapurtzat jotzen zituen. Jainkoaren ize-
na, beintzat, erabiltzen zuten, eta ez da gutxi, gure
ustez. Zumitzezko otarratxoak saltzeari utzi eta ge-
ro, parpaillak, ari izeneko izarak, nailonezko oialak

zirala eta oietakoak eskeintzen asi ziran. Beti lelo berdiñez eskeintzen zuten:

–Etxekoandre, ar itzazu. Utsaren trukean eman-go dizkizut. Kontrabandokoak dira. Amerikanoak. Pasaia'n bapore batek arkaitza jo du eta, karabiñeroak jabetzerako, andik dakarzkigu.

Nun egiñak ote ziran? Logroño'koak? Akaso bai.

Mikeleteek ere naiko lan izaten zuten ijitoekin. Danak tropelean artu eta Gipuzkoa'tik Naparroa'ra eramaten zituzten, oiñez, Lizarrusti'ko gaiña igo ondoren. Mikeleteak beren etxeetara iritxi baiño leen, berriro Gipuzkoa'n izaten omen ziran, berak eramandako ijito aiek. Nunbait ibilkari bizkorrak izan!

Frantzisko Etxeberria, Patxi ijitoa, ezagutu nuen. Garai batean, Itsasondo'n omen zuten beren etxea. Orain Errekalde etxea kokatuta dagoen leku ortan, alde aundirik gabe. Beste mutil koskorrekin batera, eskolara joaten omen zan, orain eun da amabost urte inguru. Au berarekin eskolan ibilitako nere osaba batek kontatu oi zidan.

Nere aurtzaroan, Itsasondo'ko udaletxeko ostata gure gurasoek erabiltzen zuten. Dalako Patxi ijito orrek, nunbait oker aundiren bat egin eta Donostia'n, Ondarreta'ko kartzelan, preso zeukaten. Ortan, etortzen da España'ko bigarren errepublika, 1931'an ain zuzen, eta Patxiri eman diote "*libertad absoluta sin cargo alguno*". An agertu zan gure etxean dalako Patxi ori. Jazkeran ez zeukan balio aundirik gizarajoak. Bere txamarrako solapan banderatxo bat zeukan errepublikako iru koloreekin. Au

da: gorri, ori eta morea. Gure aita zana lanean zan arratsalde artan. Gure amari orrela esaten zion Patxi:

—Maria, Maria, onek salbatu nau ni.

Banderatxoari musu emanetz, orrela jarraitu zuen:

—*¡Viva la república!* Orain libre nauk.

Zerbait arrantxo eman zitzaion, eta eskupekoa ere bai. Patxi, alai eta pozik, an joan zan bere kidekoekin batzera.

Bukatzeko, galdera bat: Patxi itsasondotarra edo Itsasondo'n jaio zalako ote gera gu ijitoak? Norbaitek erantzuera argi eta garbi bat eman ezkeru, asko eskertuko genioke. Ea, ba, orixe lortzen degun.

(*El Diario Vasco*, 1986-IV-22 eta 23)

BIURRIKERIAK

Mutil koskorretan nork ez degu biurrikeriren bat egin? Egin ez duenak bere beatza jaso dezala, eta laister au entzungo du:

–I, motell, tontoen pareko izana aiz.

Ara guk egindako batzuk.

Gure errian, Itsasondo'n, aurtzaroan, bi jolastoki genituen. Bat, trenbideko tunelaren ondoan, Txintxek deitzen geniona. An ziburuak (*kolunpioak*) ziran.

Geroago egiña izan zan Txintxaleku deitzen ziztaiona. Au San Juan Zar parean zan.

Txintxetan genbiltzala, Kaxeta'tik Legorreta aldera an dator merkantzia bere suzko makinarekin.

Makina aiek, uraren baporeak egiten zuen indarrarekin ibiltzen ziran. Ala dio batek:

–Makinaren gaiñetik arria pasa baietz.

Sortzen da eztabaida. Baietz zionak, artzen du pizarra arri puska bat eta botatzen du. Nunbait indar gutxiegi eman arriari eta jotzen du treneko fogone-roa. An joan zan trena, *fiii! fiiii!* txistua joaz. Legorreta'ko estaziora eltzean, ematen dute parte eta an datoz gure errira mikeleteak gaizkillearen billa. Gu danok ixilik, eta etorri bezela joan ziran, pekataria nor zan jakin gabe.

Beste batean, kamiñoan jolasean genbiltzala, baserrian bizi eta kalera bizi izatera etorri zan mutil koskor batek ala dio:

–I, *antomobillari* potea jarri ezker, zer egingo ote likek?

Jartzen ditugu iru-lau tomate pote kamiñoaren erdian eta automobillak azpian arrapatzen ditu. Jeisten da txoperra automobilletik, agertzen da kamiñeroa bere txaleku gorriarekin eta, aiek pekatariaren billa asterako, talde guztiak anka Kontzejuko etxe azpira. Mikeleteak makinistaren kasuan bezela, txoperra eta kamiñeroa baraurik gelditu ziran. Etzuten pekataririk arkitu.

Eskolan ere greak eta bi egiñak gera. Alpargataren sokari ari luze bat kendu, elbia arrapatu eta, oni anketatik aria lotu ondoren, bidali egan eskolan zear. Eskolume danak algaraz eta maixuak:

–*¿De qué os reís? ¡Tontos, más que tontos!*

Jakin gabe gelditzen zan, bestela *dale-fuerteak* izango ziran da.

Asturias'en, bertako meatzariak (*mineroek*) sona aundiko lan uzte bat izan zuten. 1934'eko urtea ote zan derizkiogu. Ziur ez gaude. Zabaldu zan ota, an eta emen kamiño eta trenbideetan barrikadak jartzen zituztela. Guk ere erabaki degu zerbait egin bear genuela, eta kamiñoaren alde batetik bestera jartzen ditugu arri koskorak. Gaur ainbat trafiko ez zegoen. Ontan ari gerala, ikusten gaitu Don Jerman sendagilleak, eta bere etxeko balkoitik, bero-bero eginda, ala dio:

–Baiña, baiña, motillek! Zer ari zerate?

–Huelgan gaude, don Jerman. Asturias'ko langilleei laguntzen ari gera.

Naiz ori erantzun, arriak laister batean kendu genituen, bestela gure belarriek tiraizo ederrak izango zituzten eta.

Gaurko aurrak ez dira leengoak bezela jolasten. Beren etxeetan dituzte naiko telebista, ipui-liburu eta nai ainbat jolas tresna.

Leen etzan orrelakorik. Urte sasoi ontan, udaberrian, or ibiltzen ziran txori kabi billa. Ni, gauza orretarako, sekula ez naiz trebe izan. Bi oiñak elbarri eta basora ezin joan.

Biurrikeri pranko
garai artan bazan,
berdin Beko Kale ta
erriak zun plazan.
Orrela jai ta aste
traste batzun gisan,

nunbait jaiotzetikan
ortakoak izan;
berez etorri zana
berekasa jun zan!

(El Diario Vasco), 1986-IV-27)

"DERREPENTE"

Zergak beti izan dira. Leen baziran, orain baditugu eta gerora ere izango dira. Zergak ordaintzeko garaia eltzen danean, danok asten gera muzin egiñez, baiñan ondo ordaindu eta beroiekin biltzen dan dirua bear bezela banatzen baldinbada, bide onez gastatuz, aberriarentzat eta berdin erriarentzat guztiz ongarri izaten da.

Gure errian au gertatu zala, urte asko izango dira. Orain gure artean bizi diran erritar zaarrenek ere ez dute gogoratzen. Gure gurasoek eta aien kidekoek kontatu izan ziguten ondorengo kasu au. Aiek betirako joan ziran, eta kontatzen zigutena guk gaur esan bear.

Erriko udalak leengo zergak altxa edo berriak jarri omen zituen. Orduko Villafranca de Oria'tik –gaur Ordizia– ekartzen omen zituzten erriko dendariak, beren dendetan saldu bear zituzten olio, patar, ardo eta gaiñontzekoak.

Ortarako, jeneroarekin batera, *guía* deitzen zitzaion papertxo bat ematen omen zion saltzailleak erostunari, onek gero bere erriko alondigan bota zezan. Errian bai naiko jenero, baiñan alondigan *guía* gutxi. Orrela, udala jabetu gauza garbirik etzebillela dendarien artean, zerga ordaintzeko garaian.

Zer egiten zuten dendariak? Ba, auxe: Villafranca'ko almagazetan jeneroa erosi eta Arama'ra eramane. Arama eta Itsasondo mugante dira. Gaur eltzen zanean, Arama'tik gure errira ekartzen zituzten jenero oiek, bi errien artean dagoen gurdi bidea erabiliz. Orduan trenik etzan gelditzen gure errian eta, naiz kamiñoa eduki, au utzi egiten zuten, maltzurkeriz jokatzea erabaki ondoren.

Jabetzen dira erriko agintariak dendariak zebilkiten jokabideaz, eta gauetik goizera, *zapla!*, egiten dute txabolatxo bat Arama eta Itsasondo batzen dituen gurdibideko mugan, mugan bertan, txabolatxoan aguazilla jarriz.

Orrela erori omen ziran sarean gure erriko gau txoriak.

Txabola ain azkar egin zalako, *Derrepente* jarri zioten izena. Gaur gaur bezela, *Derrepente* deitzen zaion puntu orren izena errian ez degu erabiltzen. Leen bai. Sarritan entzun izan genuen orrelako zerbait:

–Bai. *Derrepente*'n sasia indartzen ari dek. *Derrepente*'n Arama'ko erretore jaunarekin topo egin diat –eta abar.

Orain erosleak bat-batean ordaintzen du zerga. Aurtengo ilbeltzean dalako IVA ori jarri zutenetik, marmarrak marmar, naiko belarri makur gabiltza. Jeneroa ordaintzekoan pagatzen dezu, eta kito!

Aurreko egun batean, *El Diario Vasco* ontan bertan irakurtzen nuen, katu bat txikiatzeagatik 2.800 pezta ordaindu dutela. Leen 2.500 pezta ordaintzen omen zan, lan bera egiteagatik. Katu ja-beak galdetu omen zuen zergatik zan igoera ori, eta erantzun au jaso omen zuen:

–*IVA incluido.*

Katua txikiatzea euneko amabi igo? "*Artículo de lujo*" ote degu, ba? Ori nola demontre deklaritzen ote da, IVA'ren likidazioa egitekoan? Ezin det ulertu. Nere astotxoa ere, orain berrogei ta zortzi urte, txikiatua izan zan. Lan ura amar pezeta ordaindu genuen. Bazegok alderdi ederra ordutik onera! Dolarra jeisten ari dala, eta pezta zer? Igotzen?

(*El Diario Vasco*, 1986–IV–4)

ERRIETAKO FESTAK

Asi zaizkigu ango eta emengo erri festak. San Prontzio, urtero bezela, Araban goraldtu zuten; eta Gipuzkoa'n, berriz, Lazkao or ibili da bere Zaindariaren jaia ospatuz. Emendik aurrera, jan jenero ontatik ez degu faltarik izango; baiñan, gure ustez, errietako festak galtzen ari zaizkigu. Beerakada aundia egiten ari dira. Leengo gazteak zai egoten ziran beren erriko eta baitare inguruetakoko erri festetan dantza saioak egiteko. Gaur ez dago orrelakorik. Ostiral illunabarra edo gaua iristean, or dijoazkizu, batzuk beren kotxean eta besteak *a dedo*, dantzaleku edo *sala de fiestas* oietara. Erriko festak eltzean, soiñua izaten da enparantzan, baiñan iñor gutxi

dantzan. Moxkorren bat ikusiko dezu dantza imintzioak egiten, eta aurtxoak, alkarri eskua emanez, salto eta brinko, korroa jotzen dutenean. Ortik aurrera ez dago dantzaririk.

Etxekoandreek, garai batean, lan aundiak artzen zituzten erriko festetan. Festak kalbario biurtzen zitzazkien. Iru edo lau illabetez aurretik asten ziran oillaskoak ondo mantendu eta guritzen, naiko artale eta artiriñekin egindako zaperoa jateko emanez. Aiek oillaskoak, eta ez oraingoak. Gaur bai azkar azi, dalako *konpuesto* orrekin; baiñan oraingo egaztiek duten elikadura eta zakurraren putza biak berdiñak dirala derizkiogu.

Etxekoandreekin jarraituz, au ere esan bear degu. Festa eldu baiño zortzi egunez aurretik asten ziran beren etxeko apainketak egiten. Au eta ura txukundu. An eta emen zoru guztian argizaria eman, *krisma* austeko moduan jarri arte. Udara partea baldin bazan, erratz bat egin menda fiñekin eta etxe guztian pasa bi edo iru bider egunean, usai gozoa eta freskura giroa etxeak ar zezan. Aiek lanak!

Festa bezpera eltzean, oillo zaar pare bat il, eta baitare amar-amabi oillaskorekin berdin egiten zuten. Gero aiek lumatu, beatz puntak urratu arte. Gauean oilloekin salda egin, eta *arroz con leche* ere bai, urrengo egunerako.

Zaindariaren eguna iristean, gure etxekoandreak an joaten ziran goiz mezatara, gonbidatuak etorri baiño leenago. Oei, gonbidatuei, iritxi aala, salda eta arraultz gogortua eman. Jan ondoren, danak meza

nagusira etxeko jaunarekin batean. Bien bitartean, etxekoandrea sukaldean bazkaria prestatzen. Ordu-bata inguruan etxeratzen ziran bazkaldarrak, *vermouth* azeitunekin artu ondoren. Aperitibo au noiz edo bein egiten zan.

Jangelara pasa, eseri eta, geienez, bazkari au izan oi zan: oillo zopa; txitxirioa (*garbanzo*) txorixo eta urdai irugiarrearekin; oilloa saltsan; naiko oillasko errea eta, postrean, *arroz con leche*; kafea, kopa eta purua. Bapo! Zaarrak gero musean edo bertso-tan; eta neskatxak, amari sukaldea jasotzen lagundu ondoren, plaza aldera dantza egarriz. Alare, etxekoandrea kontentu, gonbidaturik apaltzen eta lotan gelditzen ez bazan.

Festa kontuekin ari geranez, au ere konta deza-gun. Amezketan gertatu omen zan. San Bartolome eguna gaiñean eta aitak ala dio bere seme Iñaxio mutil koskorrari:

–Iñaxio, joan adi Abaltzisketa'ko izeba Joxeparengana eta esan akiok, nere partetik, San Bartolome egunean danak bazkaltzera gure etxera etortzeko.

Irixten da mutil koskorra izebaren etxera eta ala dio:

–Egun on, izeba. Aitak esan dit Bartolome egunean danak gure etxera bazkaltzera joateko.

Izebak:

–Eta amak zer esan dik?

Mutil koskorrak:

–Iñor etortzen ez bada, obe!

(*El Diario Vasco*, 1986–V–13)

MUS

Nundik eta nola sortua ote degu joku au? Askori galdera au zuzendu diegu, gaiñera sarritan, baiñan iñork ez digu zeatz-meatz erantzun zuzenik ematen. Euskal Errian sortua ote degu?

Ezeztatzeko ez gaude, berak duen *ordago* orren-gatik. Itz au guztiz euskalduna degu. An eta emen –guk dakigula beintzat– danek erabiltzen dute, eta orrek pentsakor jartzen gaitu. Dana dala, goazen aurrera.

Musean jokatzeko era ezberdiñak daude. Lau erregetara; zortzi erregetara; gazteleraz *comodín* deitzen zaion kartarekin –onekin bakoitzak nai duen karta egiten du–; *treinta y uno real* –au iru zazpiko

eta beltzarekin egiten dezu—, jokurako bera dezu onena; eta modalidade geiago ere badaude.

Kiñuak? Leen begiekin, ezpainenekin, musumin-tzarekin eta abar egiten ziran. Gaur, Jainkoak jakin. Bikote bat beti alkarrekin ari dana zure aurka baldin badezu, azkar batean kiñuak pasako dituzte zigarroa errez, izketaren bidez, tragoxka egiñez, mukizapiaz eta nik al dakit nola?

Ezezagun batzuekin musean jokatu bear baldin badezu, konbenigarri da aurrez ondo erabakitzea, lau edo zortzi erregetara nola jokatu. Au egin ezean, kaka sortu liteke. Zure kontrarioak era batera edo bestera jokatzeko prest badaude, *ojo!* Oso onak dira edo, bestela, erdipurdikoak. Or ez dago tartekorik, eta ezta izango ere. Bakoitzak bere jokatzeko era izaten du. Pelotan bezela. Enpresak plazaratzen dituen pelota danak onak izaten dira, baiñan pelotari bakoitzak bereak aukeratzen ditu. Erretegi bigarrenarentzat, naiz txapeldun izan, pelota danak ez dira onak.

Lizartza'ko Kaxiano Ibareguren, soiñujole argi eta bertsolari egokiarekin, musean jokatu nuen bikote egiñez.

Itsua dalarik, *método Brailey* orrekin markatuak dauzka kartak. Beatz puntarekin ikutu ordurako daki zer karta dauzkan. Guk ezin antzeman, berriz. Tanto kontatzen buru aparta du. Zu tantero baldin bazera, azkar esango dizu:

—Orko orrenbeste tantorekin amarra.

Berastegi'n bi bertsolari sonaturen kontra jokatu eta gu garaille. Bestela ez nuen kontatuko.

Gure errian badegu muslari bat, zuk enbido jo eta berak erantzun nai baldin badizu, "bat geiago" esango dizuna. Izena ezin esango diagu, Joxe Luix. Beste muslari batek, berriz, eskutik danean, beti amaika edo ogei ta bat gordetzeko mania dauka. Ori norbaitek egiten baldin badu, "Jexux Leteren jugada egin dik" esango dute. Beste batek, oso muslari ona danak, aurreko karta ematean, agertu diran karta danak esaten ditu, eta ortik erabakitzen du tantoak eduki edo ordago bota. Guk ez degu orrelako bururik. Muslari bat ezagutu nuen, kartak partitzekoan, beti altxa edo jeiki egiten zana. Neguan ipurdiarekin etzuen aulkia asko berotuko. Beste bat, berriz, litro erdi ardoa jokutzen zanean, beti botillero jartzen zan. Muslari danei tragoxka eman, beti baso batetik, eta gero berak egin. Orrela etzegoen etxea galtzeko bildurrik. Ama batek au esan omen zion bere seme mutil koskorrari:

–Aita tabernatik ez dek ageri eta oa zer egiten ari dan ikustera.

Mutil koskorrak kirik egiten du ostatuko leiotik eta etxeratzean ala dio:

–Ama, aita kartak naastu eta naastu ari da.

Amak:

–Martxa ederra zeukagu praka berriak erosteko!

Kartak naastu eta naastu ari dan jokalariaik nainko lan izaten du berekin.

(El Diario Vasco, 1986-V-22)

TRENA

Eun urtetik gora ondo paseak dira gure erritik, Itsasondo'tik, trena igarotzen asi zala. Gaur egun ere or dabil, eta Urola'koak ere, gure partetik, luzaro jarrai dezala, naiz eta ekonomista batzuek beren gogozkoa ez izan.

Tren onekin dirua galtzen dala? Bai. RENFE'rekin irabazi egiten al da? Ea baietza nork ematen digun.

Gureak, leen, *Red Nacional de Ferrocarriles del Norte de España* zuen bere izena. Orain RENFE deitzen diogu.

Mutil koskorrak giñala, adi-adi egoten giñan bi tren motari begira. Bat *balastroa* eta *mixtoa* bestea.

Dalako *balastro* orrek, trenbiderako arria ekar-
tzen zuen. Oso geldi edo mantso ibiltzen zan. Korri-
ka txikian edo pauso bizi samarrean, gauza erreza
zan bere ondoan joatea.

Suzko makina izaten zuen eta bagoi asko arriz
puntaraiño bete-beteak. Beti *fu!!* eta *fa!!* eziñean
ibiltzen zalarik, bera ikusi orduko, orrela asten gin-
tzazkion oiuka:

—*¡Mucha carga, poca fuerza!* —esanez.

Balastro izen ori gaizki erabiltzen genuen, berez
balasto bait da. Gaur ere, izen biziatu ori sarritan
entzuten da.

Mixtoa, berriz, oso tren polita zan. Bidalariak
aruntz eta onuntz ibiltzea zan bere eginkizuna. Gau-
za bat oso bitxia zuen beregan. Bagoiek, kanpoko
aldetik, zurezko mailla bat zuten eta andik igarotzen
zan artekaria (*interventor*), billeteak zulatzen. Bi
otz-bero pasa bearko zituen gizarajoak. Irietan eta
erri aundietako geltokietan gelditzen zanean, berta-
ko buruzagia orrela asten zan deika:

—*¡Cinco minutos de parada!*

Abiatzerakoan, berriz, au esaten zuen:

—*¡Viajeros al tren! ¡Viajeros al treeeen...!*

Trenbiderako planoak egin zituzten gizonak etzi-
ran amutsak izan. Beti bide motzetik jo zuten. Tune-
lak eta zubiak egitekoan, badaezpadare, gaur edo
biarko, orduan bear zuten baiño zabalera geiagore-
kin egin zituzten. Kontutan izatekoa da, trena asi za-
nean, karril bakar bat zuela.

Ingeniero jaun aiek eman zioten zabalerari esker,
gaur bi karril dauzka. Ara etorkizunean nola pentsa-

tu zuten. Ori da buruz jokatzea. Beste oillar batek gaur kukurruku joko zigun, baldin orrela jokatu izan balute, kamiñoetako planoak egin zituzten gizon aiek. Ez zan egin bearrrik izango, orain egiten ari diran ainbat autobia eta autopista. Odolkiak, egiten diran bezelakoak izaten dira, eta orduko zenbat inje-
niero ere alakoak izango ziran.

Arrizko zubitan lan ikusgarriak daude. Or ez dago gaur erabiltzen diran *prefabricado* eta *hormigón armado* oietakorik. Arriak ondo landu eta guztiz ondo tolestatzen jakin zuten argiñek, aiek ziran esku-langintzaren jaun eta jabe. Ormaiztegi'koa burnizkoa degu. Eiffel argiak planeatu omen zuen. Au egi-
tea ere ez zan txantxetako lana izango.

Diotan erri ortan, Ormaiztegi'n, ezagutu nuen bertako itsua, geltokiko andenean, bere eskusoiñua jotzen, zerbait diru-laguntza bildu asmoz.

Errian degun Agarre baserrian bizi izan zan aito-
na jator bat, bere gazte denboran trenbidea egiten jarduna. Lana gogorra omen zan, baiñan bai ondo irabazi ere. Peontzan aritzen omen zan.

Tren eletrikoa noiz jarri zuten gogoan det. Iragarri zuten eguna pruebak egiteko, eta an joan giñan Kaxeta'ra era berriko trena ikustera. Ura txistua, jaunak! Tranbea zan. Bere margoak gogoan ditut. Erdiz gora krema eta erdiz beera marroia, txokolate kolorea. Onela idatzi zuen Iñaki Linazasoso adiski-
deak: Izozki *mantecado* bat zirudiela tren arek.

(*El Diario Vasco*, 1986-V-24)

AURREZ ARTZEA OBE

Egun auetan, egunkaria zabaldu eta irakurtzen asi orduko, auteskundeen propaganda besterik ez degu ikusten.

Berdin gertatzen zaigu bai irrati eta telebistarekin. Ori naiko ez dala, or datozkigu gure etxeetara alderdi bateko eta besteko eskutitzak, gure boza edo botoak eskatuz. Danek gauza aundiak, bereziak eta ederrak eskeintzen dizkigute, baldin eta, gure botoen bidez, agintari izatera iritxi ezkeror. Eskeintzea da bat eta ematea beste bat. Bestalde, nork pentsa bear zuen gu erriarentzat, eskean dabilzan jaun oientzat, ain garrantzitsu edo inportanteak giñanik? Au nere burutik etzan santa sekulan pasa. Bakoitzak

bere astoari arre egiten dio eta lan ortarako nunbait gure laguntza bear.

Ondorengo kasu au gure errian gertatu zala, orain irurogei ta amar urte inguru izango dira. Erriko alkatea aukeratu bear omen zan. Bi alderdik, ba-koitzak bereak, aurkeztu edo presentatu dituzte beren kandidatuak. Alderdi batekoen kasua kontatu bear degu, besterena ez dakigu eta. Alkartzen omen ziran gauero erriko botoak kontatzeko eta alkarri orrela esaten omen zioten:

—Arena, seguro, gurea dek. Beste orrena, berriz, maizterra dek eta nagusiak beartuko dik eta gure aurkakoa izango dek. Beste irugarren ori beti beste alderdikoa izan dek eta orrekin zer egiñik etzeukagu.

Orrela, beti botoak kontatu eta kontatu aritzen omen ziran. Ontan saillako batek au esan omen zuen:

—I, alakoren botoa ez dik iñork jasoko, baldin eta berari eskatzen ez bazaio.

Zenbatu dituzte erriko botoak bein eta berriro eta, batekoak eta bestekoak nora joango ziran ikusi ondoren, bi alderdiak berdin geldituko zirala garbi ikusten omen zuten.

Boto bat geiago bear, garaille izate ezkerero. Erabaki dute dudamudan zegoen boto ori berenganatu bear dutela. Bi gizon izendatu dituzte boto billa joateko, eta joan ere bai gau illun batez. Eltzen dira mendian zegoen baserri artara eta ateak jotzen dituzte. Irtetzen zaie botoa zeukan jaun ori, eta ala diote:

–Gabon. Zure boto eskean gatozkizu, alako jauna erriko alkate egin nai degu eta.

–Pasa aurrera. Zatozte nere sukaldera. Iñork etzidak gaurdaino botorik eskatu. Nerea bear badezute, milla pezta bear dizkiat botoa eman aurretik eta, gaiñera, bazkari on bat.

–Konforme. Tratua egiña gelditzen da. Zu, botazioko egunean, goizeko amaiketarik amabietara, zoaz nesken eskolara, an da botazioa, eta an emango zaizu milla pezta eta txarteltxo, autestontzian sartzeko. Ondoren bazkaria emango zaizu.

–Konforme.

Boto ura zala bitarte, nai zuten alkatea izan omen zuten gure errian, Itsasondo'n. Batzuentzat ondo, besteentzat ez.

Gaur milla pezta zer dan ondo dakigu. Baiñan orain irurogei ta amar urte? Irakurle, zerorrek atera kontuak. Debaluazioari begirakada bat ematera gonbidatzen zaitugu. Botoa eman zuen baserritar arek, promesarekin ez zuen konfiantzarik. Ark geroarekin ez zuen ezer jakin nai.

Kontatu degun kasu au, boto billa joan zaneke jaun batengandik jaso genuen. Sarritan kontatu oi zidan.

Datorren igandean botoa eman bear duenak, askatasun osoz joka dezala. Irabazleak gure onerako izan ditezela. Lana eta pakea ekar dezatela eta gu kontentu izango gera. Jaunak osasuna eman dezai-gula urte askotan, danok zoriontsu izateko.

(El Diario Vasco, 1986-VI-20)

SAN JUAN SUA

San Juan eguna berezia degu Euskal Errian. Zenbat erri ote daude, Gipuzkoa'n bertan, Jesukristoren lengusu au Zaindaritzat daukatenak? Utz dezagun zenbatzeari, bat edo beste izendatu gabe geldituko lirateke, eta asko eta asko daude.

San Juan bezperan, gure gazte denboran, etxe atarian sua egiteko oitura izaten zan. Gaur, tamalgarri bada ere, oitura on au naiko galdua daukagu. Garai artan, Itsasondo gure errian, sonatuenak iru izaten ziran: Goiko Plazakoa, Beko Plazakoa eta arrobi zulo aurrean egiten zana.

Kikimako pranko sortzen zuten su aiek mutil koskorren artean. Batzuek sasitan bildutako larrare-

kin egin zutela. Besteek, berriz, piñu adarrekin, eta irugarrenak gurdikadaz osatutako txirbillarekin. Batek ez zuela balio eta besteak bai, ori izaten zan gure eztabaida.

Azkenean bateratzen giñan, su aundiarena, altuena edo ederrena egin zuen taldea urteko txapeldun edo kanpeon izendatuz.

Aurten, jakin degunez, Goiko Plazakoak Iturri-Txiki edo Etxeberri'ko lizarraren ondoan su aundi eta eder bat egiteko asmotan omen dira. Pilla ederra daukatela jakin degu. Zorionak, gazteok, eta eutsi oitura zaarrei.

Gure aurtzarroan, orduko Villafranca'n, gaurko Ordizia'n, bagenuen ardo almazena zuen koñatu bat. Arek, Joxe Joakin itzaiarekin, estaziora joaten zan gurdian zaagi zaarrak bialtzen zizkigun. Zaagi aiekin, puskak egin eta lasto pardoak ekartzen zituzten alanbrearekin aga luze batean lotu eta su eman ondoren, korri kamiñoan gora eta beera, "Igaz ere, aurten ere San Juan dala, gora, gora San Juan bezpera!" abestuz.

Aur txikiak zotzaren puntan sua zutela ikusi ezker, aiei au esaten zitzaien:

—Kontuz gero suarekin. Orrekin jolasean ibiltzen bazerate, gauean oiean pixa egingo dezute eta.

Napar mutil gazteek, gure erriko lantokian lan egiten zutenek, oitura izaten zuten sutearen gaiñetik salto edo brinko egiteko. Bildurrez egoten giñan noiz min edo su artuko zuten. Guretzat ura zirko bat bezela izaten zan. Aiek eta gu pozik, ezbearrik gertatzen etzanean.

Sua pizteko ere garai berezia izaten zan. Mili-xiok –onetaz beste egun batean idatziko degu–, sakristauak, edo bere alaba Ixabelek kanpai buelta-koak jo arte, ez zan surik pizten. Jotakoan bai. Ura poza! Sua *zarr-zarr-zarr* egiñez, eta danok ari begi-
ra.

Aurreko egun batean, gure erritar gazte batek au kontatu zigun. San Juan bezperan Saturraran'go kanpiñean omen zeuden. Berria zabaldu omen zan Ondarru'n berebiziko sua egiten zutela eta ondoren dantza saioa izaten zala. Jo dute oiñez Ondarru'ra. Iritxi dira errira eta ezeren festa zantzurik ez. Ontan, illunabarrean, asten dira elizako kanpaiak *dinbili! danbala!* joaz, eta etxeetako leioetatik an botatzen omen zituzten traste zaarrak sua egiteko. Danak bildu eta plazara eramán ondoren, su aundi bat egin omen zuten, musika ari zan bitartean. Ura festa, noski! Oillarrak bi aldiz kukurruku jo omen zuen, gazte talde ura kanpiñeko lo-zakuetan sartu aurretik. Ori dek, gazteok, alai eta umorez jolastea. Jarrai orrelaxe urte askotan osasunez eta zoriontsu.

(*El Diario Vasco*, 1986-VI-24)

ZAKURRA

Zakurra, berez, pizti bat degu. Goseak eraginda, gizonarengana urbiltzen asi zan, kondairak diñez. Gizonak, janariaren bidez, bereganatu egin zuen eta ezi ere bai. Orrela, zakurra gizonaren laguntzaille eta serbitzari on bat degu gaur egun.

Zakur mota asko dauzkagu. Danak aipatzea luze joango litzaiguke eta gure artean ezagunenak diranak jar ditzagun gaurkoz.

Arratoi-zakurra. Txikia izaten da. Guztiz bizkorra. Usaimen aundia du beregan eta, oni esker, arratoiak nun dabiltzan berealaxe sumatzen du. Azkar batean akabatzen ditu bere inguruko danak. Nere aurtzaroan, Kontzeju deitzen zitzaion etxean bizi gi-

ñala –geroz ura bota egin zuten errepede nagusia zabaltzeko–, bagenuen *Txuti* izeneko bat. Garbizio ederrik egiten zuen, bai gure etxe inguru eta baitare Oria ibai ertzean. Beste etxeetara ere eramaten zuten, aietan "eiz" egin zezan. Jaun batek, bere eta gure etxe inguruan, iñori ezer esan gabe, arratoiak iltzeko pozoia jarri zuen. Guk ez jakin, eta gure txakurtxoa etxetik kanpo ibili zan. Nunbait gure *Txuti* leialak ura jan eta eriotza etorri zitzaion. Pena ederra izan genuen etxeko danok. Alaia eta jostalaria zan. *Txuti* bere lanean il zan. Arratoiak billatu eta akabatu asmoz. Gudari onak bezela, iltzen il.

Eiz-zakurra. Zakur mota onek laguntza aundia egiten dio eiztariari. Batzuk eizea billatzen apartekoak izaten dira.

Besteak, eizea billatu eta arkitzean, *kieto!* gelditzen dira, bai erbi, oillagor, eper eta beste eiz aurrean. Eiztariak eiz ori botatzen badu, laister batean eskuratuko dio. Eiztariak egun txar bat izaten badu, aitzaki polita izaten du bere lagun artean kontatzeko:

–Txakur txatxu onek etzidak lagundu eta utsik netorrek.

Xixiliok, Tomasenean bizi izan zanean, bazuen berekin oillagor txakur bat, *Te* izenekoa. Orduan aurrea nintzan –zazpi zortzi urte izango nituen–, baiñan geroz egundo ez det entzun aal izan arategiak ixteko ainbat eiz egiten zutenik.

Señorita-txakurtxoak. Politak eta txikiak izaten dira. Kaleetan eta ibiltokietan sarri ikusten dira. Jendea adi-adi egoten da oiei begira. Gauza bat dute

txarra. Paseatzen dabiltzala, *souvenirs* oietakoak uzten dituzte, beren atzeko "leiotik" egiñak. Ala, ibiltariak bertan lardatzen dira eta gizonezkoek *kirieleisonak* ez, baiñan beste oietakoak bota izan dituzte. Txakurtxo auek, asko eta asko, kilo bat pisuan ez dutenak izaten dira.

Jan-zakurrak, etxe-zakurrak, San Bernardo zakurrak eta geiago ere badira.

Artzai-zakurrak. Zakur klase au, artzaiarentzat lagun on bat izanik, gastu gutxikoa degu. Emandako janarekin beti konforme dago. Artzai mutil batekin ezin konpara ñolaz ere. Onek, mutillak, janaria, soldata eta seguroa bearrezkoak ditu. Zakurrak ez. Ona bada, mutillak ainbat edo geiago lan egiten du.

Gogoan det ondorengo kasu au. Igande arratsalde batez, aita bat eta bere semea gure ostatuan sartu ziran, zerbait arrantxo egin asmoz. Artaldea, zakurra zaindari zuela, erriko plazan utzi zuten.

Ontan, an dator errepidean automobil bat eta zakurra, urduriturik, sartzen da kotxearen azpian. Jaso zuten bere jabeek eta eraman ere bai Fernandoena ondoan zegoen ur askara, bertan sartu eta zentzua etor zezaion.

Alperrik izan zan dana. Akabatua zegoen. Nunbait barrua lertu zitzaion. Aitak onela esaten zion bere semeari:

—Oek dituk, seme, igandea eta jaietan lan egitearen ondorioak. Ikas dezagun, bein betirako, Jaunaren eguna benetan errespetatzen.

Negar malkotan bustirik, gure etxe azpian zegoen makaldian lurperatu zuten. Artzai aien naiga-

bea etzait egundo aazten. Artaldea artu eta berriro bideari ekin zioten. Mendiko lasaitasunaren billa joan ziran.

(El Diario Vasco, 1986-VII-1)

NIKOLAS AMERIKANOA

Jaun au ezagutzeko era izan nuen. Ez zan adiñez oso zaarra nik ezagutu nuenean, naiz neri zaarra zala iruditu, garai artan mutil koskorra nintzan eta.

Ameriketatik joan-etorria egiña zan. Orregatik deitzen genion, erri guztiak gaiñera, Nikolas Amerikanoa. Mutil zaarra zan. Berak zionez, Ameriketan gautxo lana izan omen zuen ogibide bezela, eta erreztasun aundia zuela dalako *lazo corredizo* oieta-koekin bei eta zaldiak arrapatu eta menperatzen.

Egun batez, ori ikusteko era izango genuela uste osoan giñan, baiñan ez genuen suerte ori izan.

Orduko Villafranca'tik –gaurko Ordizia'tik– telefonoz dei egin zuten gure etxera, *locutorio* edo te-

léfono público deitzen zitzaion ori gure etxean bait zegoen, esanez nola gizon bat Oria ibaira erori zan. Ibaia ur asko eta indartsuarekin zetorren egun artan.

Esan genion Nikolas Amerikanoari zer gertatzen zan, eta laister batean prestatu zan, uretara erori zan gizon ura gure erritik pasatzekoan lazoarekin arrapatzeko. Jarri giñan ibai gaiñean, orduan zan plaza-tik apeaderora dagoen zubiaren erdi-erdian, danok prest ibaira erori zan gizonari laguntzeko.

Amerikanoak ala agindu zien inguruko mutil koskor danei:

–Zoazte azkar batean Azubi, Beiti eta Kanpose-nera, eta ekarri gurdi sokak, lazoa egin dezadan.

Sokak ekarri zituzten, eta lazoa egin ere bai. Ortan, berriro deia Villafranca'tik, esanez ibaira erori zan gizona salbatu zala, zaprasta batzuei eldu ondoren. Gizona ez itotzea zan garrantzitsuena eta ori lortu zan, naiz gu ikusi gabe gelditu gautxoaren erakusketa edo *exhibizioa*. Euria gogoz ari zuen eta danok *mela-mela*, busti-busti eginda, etxeratu giñan.

Eizerako ere gogo berezia zuen. Belarriz, zerbait baiño geiago, gorra zan. San Martin egun batez, gure erriaren ondoko Arama'ko festak, beraz, joan zan Ermintza'ra usoren bat edo beste bota asmoz. Goiz parte guztia parapetoan igaro ondoren, an dator gure amerikanoa esku utsean. Ala zion:

–Gaur, motillek, Ermintza'tik ez dek uso bakar bat ere pasa. Danak Arama aldetik pasa dituk. Ura tiro otsa!

Zer izango eta Arama'n bota zituzten etxafueguen otsa izan.

Oillotegi bat ere bazuen, eguna denbora pasa edo igarotzeko. Oillotegi ori Oramuño'ko bide ondoan bere familiak zuen soro batean egin zuen. Gaur Tomasene'ko soroa da. Apenas irabazpide edo negozio aundirik uzten zion. Egun batez kontatu omen zuen tabernan:

—Oillo xixtrin oiek jateko apetitua bai, baiñan ziriña besterik ez ditek egiten. Oraintxe danak patatekin gixatu eta jan egin bear dizkiat.

Orrelako zerbait egingo zuen. Begien bistatik beintzat kendu zituen.

1936'ko gerra etorri zan. Beraz, aurten berrogeita amar urte. Francotarrak sartu ziran gure errian, Itsasondo'n. Amerikanoak borondatezko (*voluntario*) eskeñi zuen bere burua, erriari kontu artzeko. Bakoitzak askatasun osoa du bere politikaz jokatzeko. Eman zioten fusilla eta or ibiltzen zan Beko Plazan, Goiko Plazan, Beko Kalean, errepeidean eta abar, erriari kontu artzen.

Ortan, eguardi batez, an dator abioi bat eta bi bonba bota. Etxeberri'ko sagastian leertu ziran. Beko kaletarrak, bonbaren otsarekin izaturik, bonbardeotik aldegin asmoz, danak korrika batean, an dijoaz arrubi zulora. Amerikanoa, urduritu gabe, *firme!* bere puestoan. Joan omen zan abioia eta gure aitari, arrobi zulotik irtetzean, ala esan omen zion bere arjentino doiñuarekin:

—*¡Putá, carajo, che! ¡Juan Mari, Juan Mari, que le he dao, que le he dao!*

Abioia aurrera eta amerikanoa ere bai, baiñan au Latiñe'ko tabernara *vermouth* artzera.

Geroz, gaixorik il zan. Jaunaren pakean izan dedilla.

(El Diario Vasco, 1986-VII-16)

ESTROPADAK

Gaur egun, arraunketa klase au ikusteko, berebiko aukera ederrak dauzkagu. Aurrezki-Kutxa Municipalak argitara eman duen egutegiak dionez, aurtent, uztailetik iraillaren azkenerarte, an eta emen, ogei ta amaika traineru proba izango omen dira. Zerbait badala derizkiogu.

Garai batean, estropadak ikusteko, ez zan orrelako aukerarik izaten. Beste erri eta irietan izango ziran, bai; baiñan Donostia'ko Kontxa'koak, garrantzi aundikoak ziralarik, apartekoak ziran jendetza aundi bat berak ikustera urbiltzeko.

Gure ostatuan, estropadak jokatu illabete aurrez, asten ziran gizonezkoak beren iritziak ematen.

Alde aundirik gabe, orrelakoak izan oi ziran:

–Kontuz gero Orio'rekin, orrek bere mutillak ondo janda ekartzen dizkik eta. Or ez dek indarraren faltik izaten.

–I –beste batek esango zuen–, San Juan ere ez dek, ba, baztarrean uztekoa. Kontxa'ko markarik onena berak zeukak bere emeretzi minutu eta amazazpi segundorekin.

–San Pedro ere, aurten ondo prestatua omen zego. Aita Manuel Arrillagak, taldeko patroiak, bere kuadrilla senditarrekin osatua daukala ziotek. Danak bere seme eta illobak omen dituk. Azkena gelditzeko asmotan ez dituk Donostiaratuko.

–Ondarrabia'n, berriz, arraunlariak gaiñezka daudela eta, aurten bi talde ekarri asmoz omen zebiltzek Kontxa'ko alkar neurketara. Bat mariñelekin osatua eta bestea lurrekoekin.

Au Luixek esaten zuen. Eta ondarrabitarrak egin ere ala egin zuten. Ez naiz gogoratzen au urte batean edo geiagotan egin zuten.

Komentario oek entzunda –alde aundirik etzuten izaten urte batetik bestera–, beti irriki bizian egoten nintzan estropadak ikusteko.

Estropada egunean –batez ere bandera jokatzeko egunean–, trenak Donostia'ra gaiñezka joaten ziran. Ala, 1935'go urtean ikusi aal izan nituen leenengo aldiz.

Amalau urte nituen. Estropada bezperan, nere ama zanarekin, Errenderi'ko Joakin (g. b.) anaiaren etxera joan nintzan. An apaldu, lo egin eta urrengo

goizean, Errenderi'ko eliz nagusian meza entzun ondoren, kamiñoko tranbe txurian sartu eta ama zana-rekin jo nuen Donostia aldera, estropadak ikusi asmoz.

Eguraldi txarra zan, benetan. Trumoia, ekaitza, kazkabarra. Ura giroa, irakurle! Alare, ni *kieto!*, Alderdi Eder'eko barandillari elduta, ordurako, amairu urtez aurretik, bi anakak elbarri neuzkan eta. Bandera jokatu zan eguna zan, ain zuzen.

Eguraldi ura ikusirik, otsa zabaldu zan estropadarik etzala jokatu. Itsasoa olatutsu, oso gaiztoa zegoen.

Zerbait baretu zanean, irten ziran traineruak. Santa Klarako islara eldu baiño leenago, urez bete ondoren, Orio erretiratu egin zan.

Batzuek, ikusleek, "*¡Tongo! ¡Tongo!*" esaten zuten, arraunlariak ankaren orpoarekin ontzia zulatu egin zutela eta. Besteek, berriz, Juraduak zuela erruguztia. Estropadarik ez zala jokatu bear, zegoen giro arekin. San Pedrok eraman zuen urte artako bandera.

Askok uste ez izan arren, urte artan Orio berdez jantzita zan, eta San Pedro oriz. Batzuek uste dute Orio beti oria izan dala. Baiñan ez da ala. Garai artan, estropada eratzailleek jantziak banatzen zituzten. Ortik, nunbait, Orio'ri berdea tokatu.

Diotenarekin ados ez dagoenak, CAT'era bueltatxo bat egin dezala eta an argibide guztiak eman-go zaizkio.

Gure iritziz, urte artakoa izango da Txirritak jarri zuen bertso au:

Agur Pasaiko sanpedrotarrak,
gora Manuel Arrilla,
aita ta seme eta illoba
osatzen dira kuadrilla.
Indar aundiko arraunlariyak,
patroia ere abilla,
Donostiya'ra lasai jua ziran
diru ta bandera billa.

Bertso ontan, garbi ikusten da, Txirritak Arrilla
Arrillaga'ren orde z rima edo puntuagatik artzen
duela.

(El Diario Vasco, 1986-VIII-9)

ANDRA MARI JAIK ETA MILIXIO

Gaurko zenbait gazteri galde egiten badiegu Milixio izena zer izen dan, sorbaldak jaso eta erantzun au emango digute:

–Ez dakigu.

Ba, gazteok, Milixio izena Migel Inazio da. *Mil* Migeletik artua, eta *ixio* Inazioren bukaera bezela.

Jaun onek, berez, izen deitura oek zitun: Migel Inazio Elorza Caminaur. Ogibide edo ofizio asko zitu.

Ara batzuk: eule, kartero izana, sakristau, kanpaijole, enterradore, pelotaegille, baratzain, aguazil, koruko kantore –musika asko zekien–, aparteko tenorra zan, eta besterik zer geiago? Zerrenda luzea

jar liteke; baiñan, gaurkoz, Milixioz idatzi dezagun Andra Mari jaietan berak izaten zituen eginkizunez.

Itsasondo'n, gure errian, agoztuko Andra Mari degu gure Zaindari. Festak egiten dira bere gorantz. Donostia'ko Aste Nagusikoak ainbat ez dira izango, baiñan gere maillan aalegintzen gera aalik eta ongien egiten.

Milixio (g. b.) gure aurtzarotik ezagutu genuen. Gizon argi eta saiaturia zan. Ogibide asko beregan zeuzkala esaten bagenion, gaztelerazko esaera au izaten zan bere erantzuna: "*Hombre de muchos oficios, pobre seguro*". Baiñan ez zan beartsua, ez.

Andra Mari bezperan, eguardiko amabietan, joko zituen kanpai bueltakoak. Arratsalde erdi aldera, zintzo asko an etorriko zan erriko plaza garbitzera. Erriko mutil koskorrak laster bilduko ziran bere ondora, lagundu asmoz. Sarasola'eneko fabrikara joan eta bakoitza an etorriko zan palarra, pala, erratza edo karretilla artuta. Milixiori lagundu egiten zioten, bere lana ariñagoa izan zedin. Danak lanerako prest, eta utsaren trukean gañera. Andra Mari jaiak bait ziran! Milixiok, lana bukatu ondoren, gure ostatuan arratsaldeko arrantxoak egiten zuen.

Etixeratzen zan eta, urte guztian baulean gordean edukitzen zuen kaki kolorezko uniformeak jantzirik, udaletxera etortzen zan erriko agintarien billa. Uniformeak zillar kolorezko botoiak zituen. Aguazil makilla beltzak, berriz, bere kirtena zillarrezkoa zuen. Ordurako, Idiazabal'go txistulariak –Rikardo, Naxario eta Bittoriano– bizikletan Itsasondoratzen ziran. Gero, Milixio aurretik, ondoren txistulariak

eta erriko agintariak, danak elizara Salbeara. Ni asto gaiñean joaten nintzan, bestela joateko gauza ez eta.

Salbea Hilarion Eslava'rena izaten zan. "*Salve a tres voces iguales y solo de bajo, con acompañamiento de órgano*" zuen bere deitura. Milixiok abesten zuen bajuaren soloa. Gauza arrigarria, bera tenorra izanik. Entzun egin bear zan aren "*Eia ergo, advocata nostra...*" ura! Gero, agintari, txistulari, Milixio eta beste norbait, udaletxera apaltzera. Apaldu, txapelak erantzi ondoren Gernikako Arbola kantatu eta danak lotara.

Andra Mari egunean, goizeko seiretan, kanpaiak joko zituen. Bere uniformearekin udaletxeratuko zan, eta agintari eta txistulariekin meza nagusira. Mezatan zuzendari edo direktore izaten zan. Naxario txistulariak, Milixiok eskatu gabe, emango zion danboliña jotzeko txotx edo zirria, eta arekin eramango zuen mezaren zuzendaritza. Meza Perosiren "*Te Deum laudamus*" izaten zan. Ofertorioan Ave Mariaren bat abestuko zuen. Ondoren, agintariei udaletxera lagundu.

Arratsaldean plazaratuko zan, *de gala*, bere uniformearekin. Muturjoka edo sesioa sortu ezker, apartaketan saiatuko zan. Gauean, bere makillarekin, tabernetako atea joz, ordubata inguruan, "*Erronda!*" esango zuen.

Omenaldi bat ere egin gabe il zan. Jaunagan atsedean dezala. Urte aro au eltzean, itsasondotarrek beti gogoan zaitugu, Milixio. Zure abesti eta lan aiek guk ezin aaztu.

(*El Diario Vasco*, 1986-VIII-13)

GIZON SAIATUA ZAN MILIXIO

Oraindik oraintsu idatzi genituen gizon onek, bere bizitzan, izan zituen ogibide batzuk. Danak ez, noski. Asko bait zituen. Ogei bat inguru ortxe-ortxe esango genuke. Ez zan motela lan gauzetan! Ofizio bakoitzari bere etekiña ateratzen ondo jakin zuen. Dirua irabazten gogoz saiatuko zan, gastatu bear zanean gastatuz eta gorde bear zanean gordez. Musika guztiz ondo menperatzen zuen eta, tenore oso ona zalarik, txanpon ederrik bere poltsikuratu zuen. Ara kasu bat, berak sarritan kontaktzen ziguna.

Soldadu joateko garaia eldu zitzaionean, El Ferrol iria tokatu omen zitzaion serbitzu ori betetzeko. Agintariekin ondo portatzen zalako, Milixio asko

maite omen zuten, berak zionez. Ontan, iltzen da kapitanaren emaztea, eta an joan omen zitzaion Milixio kapitanari, esanez:

—*Mi capitán, le acompaño en el sentimiento. ¿Me da usted su permiso para que por las calles de El Ferrol, detrás del féretro de su difunta esposa, pueda cantar el Miserere?*

Kapitanak orrela erantzun omen zion:

—*Agradezco muchísimo tus buenos sentimientos, Elorza. Me parece muy bien tu idea y tu ofrecimiento. Hazlo como tú me lo propones y nunca olvidaré tu admirable bondad.*

Ala, bete omen zuen bere eskeintza, gogo onenaz egiña. Gaurko soldaduen artean nor ausartuko litzake au egitera? Prest dagoenak bere beatza jaso dezala, errez kontatzekoak izango dira eta.

Andik eta ara, El Ferrol'en artu omen zuen kantore onaren sona eta deitzen omen zioten illeta, meza berri, Pazkoa, Eguberri eta jai aundietako mezak abestera. Ez El Ferrol'en bakarrik, baizik eta inguruetako errietara ere bai. Soldata ona jasotzen zuela esaten zuen, lan ori egiteagatik. Kapitanak ez omen zion sekula permissorik ukatu abestera joateko.

—Nik —bere itzak orrela ziran— soldaduskan iru urte pasa nizkian. Denbora ortan iru traje *a medida* egin eta, gaiñera, zazpi milla erreal aurreratzea kontsegitu nian.

Naikoa egin zuen, soldaduskan egiteko. Bai orixe!

Orduko errealak eta gaurkoak konpara itzazu, irakurle. Gaurko soldaduekin ez dago orrelakorik.

Soldadu joan bezin laixter, piso bat alkilatzen dute eta arrantxotik baja eman. Egundo au miaztu ere ez. Pisoan edo kalean eguna igaro eta kuartelera, derri-gorrea jartzen dizkieten orduetan agertu eta kito. Gero etxera telefonoz deia, jiro telegrafikoz dirua bialtzeko, eta gaiñera azkar esanez. Ama batek au erantzun omen zion bere semeari:

–Esan zaidak zer bauletan edo zer armariotako kajoian utzi uan dirua eta bialiko diat.

Ama arek ez omen zuen semearen erantzunik izan.

Gure errian, eta ingurukoetan ere bai, Milixiok diru politak irabazi izan zituen kantore bezela. Ataun eta Lazkao'tik deitzen omen zioten. Erri geiago ere izango zituen, naiz guk orain ez gogoratu.

(El Diario Vasco, 1986-VIII-23)

GAUR IRU URTE JXTU

Abuztuak 26. Arratsaldeko seirak. Gure etxeko leiotik Oria ibaiari begira nago. Nork esan, gaur iru urte onek berekin zeramatzan urak eta gaur daraman ur pittiña ikusirik, ibai bera dala? Eziñezkoa dirudi, baiñan ibai bera da. Orduan gaiñezka, indarrean, bere bideetan ezin errenditurik; eta gaur, berriz, ur oso gutxirekin eta, ori naikoa ez dala, erdi usteldutakoarekin ikusten det. Gaur daukan ura ez da oilloak gauerdian egiten duen pixerrekarekin konparatzeko ere.

Euskal Erri guztian egin zituen kalteak gogoan ditugu. Buruan argia degun bitartean aaztuko ez ditugunak gaiñera. Itsasondo, gure erria, ugoldea dan

bakoitzean, ondo zigortua izaten da. Aurten iru urtekoak jipoi ederra eman zigun erri guztiari. Geiennetan Beko Kalekoak zigortzen gaitu, ibai ondoan bizi bait gera; baiñan aurten iru urteko arek erri guztia ondatu zigun. Ibai ertzean bizi geranok eta erriaren gaikaldean bizi diranak ere bai, neurri gabeko euri zaparrada arek dana ur eta lokatz biurtu bait zuen. Kalteak kalte, zauritu eta eriotzarik ez zan izan, Jau-nari esker, eta danak pozik.

"Ura eta sua belaunez beetik bear da" esan zue-nak, egi borobilla esan zuen.

Euria beti ez da danontzat gogozko izaten, naiz aurten, gure ustez, danok bere zai egon. Etortzen da-nean neurritz etor dedilla; bestela, greak eta bi ikus-teko gaude.

Orain illabete pasatxo izango da, edo geiago, on-dorengo kasu ontan lekuko nintzan. Edaritegi batean zerbait artzen ari nintzala, baserritar adiskide bat in-guratu zitzaidan eta biok kontu kontari ari giñan. Ontan, sartzen da emakumezko bat edaritegi ortan, eta egun onak eman ondoren, orrela mintzatu zitzai-gun:

—Gaur ere bero eta eguzkitsu. Noiz egin bear di-gu euria?

—Nere partetik —erantzun zion baserritarrak— bes-te zortzi egunean ez dezala egin, belarrak ontzen ari naiz eta.

—Bapo, Joxe! —izan zan emakumezkoaren eran-tzuna—. Zu belarretan ari zeralako, ez dezu euririk nai; eta nik eranegun aldatu nituen ogei ziento porru, ta nork erregariatu bear ditu? Zuk, Joxe, zere

astoari bakarrik arre esaten diozu, besterenarekin gogoratu gabe. Ori al da lagun projimoa geren bu-ruak bezela maitatzea?

Ni ixilik gelditu nintzan eta au pentsatu nuen: gurekin asmatuko duen Jainkorik oraindik ez dek sortu, eta sortuko ere ez.

Ondorengo gertaera onek merezi du kontatzea, gure ustez, eta kontatu egingo degu, euri eta urarekin zer ikusia badu eta.

Lizarberri'ko Erramun txurrutean pasa egiten omen zan. Nunbait asko bear ez eta, edaritegira joa-ten zan bakoitzean, an dator *txinbili-txanbala* bere etxera. Bere emazteak esaten omen zion bidetxigo-rretik etxeratu bear zukeala, estradan arri trakets as-ko zegoelako. Baiñan alperrik aolku danak. Erra-munek orrela erantzuten omen zion:

–Nola etorriko naiz, ba, bidetxigorretik, estrada bera ere naiko estu egiten zait eta?

Ontan, gau batez, erortzen da eta anka bi lekutan autsi. Deitzen diote sendagillari eta onek:

–Ai, Erramun, Erramun! Ikusten al dezu alkoo-lak zer kalteak egiten dituen?

–Urak aundiagoak egin zituen.

–Urak?

–Bai, Don Koxme, bai. Garbi ikusten da bero-rrek Testamentu Zaarra asko ez duela irakurri. Ez al daki Noe eta bere emaztea ez beste danak Dilu-bio Unibertsalean uretan ito zirala?

Komentarioak zuk egin, irakurle. Gurea ixillean gelditzen da.

(El Diario Vasco, 1986-VIII-29)

MILIXIOREN LANAK

Esanda gaude jaun onek beregan zituen ogibideak. Gaur, bukatzeko, jar ditzagun ofizio oietatik nolako lanak egiten ezagutu genuen.

Eule. Liñoarekin iruleek aria egiten zuten. Ari onekin, Milixiok eunezko oialak egiten zituen. Oial oek, geienetan, oerako maindire eta burukoak egiteko izaten ziran. Baitare, iñoiz, otordu nagusietan maia estali eta dotoretzeko. Guk ezagutu ez bagenituen ere, oial onekin egiñak izaten omen ziran gizonzkoentzako alkandorak eta emakumezkoentzako kamixak. Ez zuten otz aundirik izango!

Euletzan, Milixio guk Errekalde etxean ezagutu genuen. Berak zionez, leen Zelatxo'n –gaur botata

dagoen etxean— aritzen omen zan bere anai Joxe Mielekin.

Lan saioa bukatu ondoren, anaiak pianoa jo eta Milixiok kantatu izaten omen zuten beren dibertsioa. Lastima aparatu ura desagitea. Egurrezkoa zan. Berarekin lan egiteko, esku eta oiñak bizkor erabili bear ziran.

Pelotagille. Eskuz jokatzeko pelotak egiten zituen. Pelota ogibide zutenentzat ez noski, erritarentzat baizik. Meza nagusi edo arratsaldeko bezpera ondoren, gazteek peltak takeskatzen zizkioten Milixiori partiduak jokatzeko.

Peloten alkilerrari *baratoa* deitzen zitzaion. Nundik eta nora sortua ote zan *barato* izen ori? Ez diogu itxurarik ematen. *Baratoaren* prezioa beti errealetan esaten zuen.

Pelotari larrua askatu ezkeru, azkar batean josiko zion: aria eta jostorratza artu, alanbrezko armazioa zuten betaurrekoak sudurraren puntan jarri eta listo partiduarekin jarraitzeko.

Pelotaren bat paretari erantsia etortzen bazan, laster adieraziko zion pelotariari nola artu, jaso edo jo, "rebote!" esanez.

Kanpaijole. Ontan naiko lan izaten zuen. Ara nola jotzen zituen. Goizean matutia egunsentian. Eguardian, amabitakoa. Illunabarrean, anjelusa.

Ortaz aparte, bat il zorian bazegoen, agoniko kanpaia joko zuen, entzuleek errezatu zezaten gaixoa sendatu zedin, ala komeni bazan. Iltzen bazan, il kanpaia joko zuen, jendeak erreza zezan ildakoa-ren anima salbatzeko.

Illaren leenengo igandean, Mariaren Alaben Kongregazioa, kanpai bueltakoak jotzen zituen. Bigarrenean, luistarrena, errepikoa. Irugarrenean, Jesusen Biotzekoarena, kanpai bueltakoak. Laugarrenean, errepikoa; eta illak bost igande bazituen, errepikoa berriro.

Ez ziran oekin bukatzen kanpai jotzeko lanak. Igandeko meza nagusiko meza erdian, *danba!*, *danba!* *danba!*, iru kanpai aundi. Sua bazan, su kanpaia, erriari dei egiñaz laguntza eskean. Maiatzeko Loreak, Jesusen Biotzaren illa, bederatziurrenak eta abar, beti kanpai jotzen.

Kanpiaiak jotzeko, kanpantorrera igo bear zuen. Eun da geiago eskallera malla or nunbait izango dira. Gaur elektrikoak dauzkagu, errikoseme Andoni Sarasola'ren eskuzabaltasunari esker, orain ogei ta zortzi urte inguru jarriak, don Martin Sagastume gure parroko erretore zala.

Sakristau. Ontan ere etzitzaion lanik faltatzen, batez ere illetaren bat bazan.

Entierro eguneko bezperan, or joaten zan erriz erri, *a tiempoko* mezak emateko apaizen billa. Illeta egunean –goizeko amarretan izaten ziran illetak, bi ordu iraunez–, apaizentzako meza jantziak atera eta gero, meza ondorenean, berriro bildu eta jaso.

Elizkizuna orrela izaten zan: leenbizi, gloriako meza kantatua Ama Birjiña Errosarioko aldarean. Ondoren, *Nokturnoak*. Azkenik, *Requiem*'eko meza. Haller'ena abesten zan. Bukatzeko, *Libera me*, *In Paradisum*, *Pater noster* eta abar. *Requiem*'eko mezetan zuzendari, Milixio izaten genuen.

Gaur, ildakoaren gorputza, illeta bitartean, elizan egoten da. Garai batean ez. Eliz atarian –Itsasondon zimitorioa deitzen diogu– egoten zan.

Enterradore. Emen zer esan aundirik ez dago. Danok dakigu lantegi au benetan trixtea dala eta komentario gabe utzi dezagun.

Eta, bukatzeko, agur, Milixio! Goian itsasondotar danok alkar bildu arte, agur!

(El Diario Vasco, 1986-IX-2)

ERRETRATATZEKO MAKINA

Ez dakit nork eta noiz asmatu zuen dalako tresna au, baiñan esan bearra dago benetan gizon argi eta bizkorra izango zala. Tramankulu onen aurrean jartzten da gaur gertatua eta, berak paperera pasa ondoren, or gelditzen zaigu betirako oroigarri bat.

1927-28 inguruko urtea izango zan. Mutil koskorra nintzan. Sei-zazpi urte izango nituen. Gure leengusu Gurutz zanari (g. b.), ikasketak ongo egiten ari zalako, euskerazko lan bat ondo egin zuelako edo orrelako zerbaitegatik, Lekarotz'ko Kaputxinoetan sari bat eman zioten. Sari au orrela omen zan: erretratatzeko makina edo, bestela, bost duro. Gurutzek erretratatzeko makina aukeratu zuen.

Dalako makina ura kuadratua zan. *Farias* puru kajaren erdia bezelatsu zuen neurria. Bi kuadru zituen imajiña artzeko. Bat luzeetarakoa eta bestea zabalatarakoa. Disparadore bat eta kito. Makina arekin, eguraldi ona izan ezkeru, argazkiak ondo eta seguru ateratzen ziran. Bai erretratista eta baitare argazkian atera bear zuena, geldi-geldi egon bear zuten. Ori bete ezkeru, dana egiña zegoen.

Andoni, Gurutzen anaia, Donostia'tik, larunbatero, Kontzeju Zarrera, gure etxera, bere anaiaren makinarekin etortzen zitzaigun. Ura festa, bai erretratarentzat eta zer esanik ez guretzat! Lagun taldeak aukeratzen zituen, banakakoak ere bai, eta ni ere bai, nere astotxoarekin, argazkiak ateratzeko. Milixio zanarena ere bai omen dauka, Urki'ra Santa Kruzetan erlikiarekin zijoala aterea.

Egun batean, amalauna urte inguru genituela, Joxe Salegi, "Joxe Deba", eta biok erretratatu giñuen Kaxeta inguruan, Azubi'ko bidean, bi neskaxari sorbaldatik elduta. Ura *negozioa* guretzat! Ez giñan asarre. Andonik argazkia erregalatu eta, ixillean, nere karteratxoan ibiltzen nuen. Ontan, egun batez, gure ama zanak "deskubritu zidan sekreto" –markesaren alabarena bezela–; eta, bi belarrondoko onak eman ondoren, autsi zidan ainbat maite nuen oroigarria. Ura naigabea!

Geroz, ogei ta bost urte inguru nituela, Andoni Sagunto'n bizi izaten zan eta nik bere aitaren ofizian lan egiten nuen. Andonik, klisea gordeta zeukan nunbait eta bere aitari dalako erretrato ori biali zion esanez:

–Zuk usteko dezu enpleatu leialak dauzkazula, baiñan ikus oietako batek nola *ligatzen* duen.

Osaba zana parrez eta ni ere bai. Gaur "dokumentu" ori ondo jaso daukat. Iñork ez dit autsiko.

Eskurtsio bat zala, erriko festak edo beste orrelako zerbait, erretratatzeko makina alkilatu izan genuen. Danak pilloan jartzen giñan eta argazkia poxpolo kaja baten neurrikoa ateratzen zan. Pertsonak poxpolo baten tamaiñokoak agertzen giñan eta nor nor zan nork ezagutu? Alare pozik berriro ateratzeko.

Festetan izaten ziran *a minuto* erretratoa ateratzen zituzten oietakoak. Famatuenetako bat Astigarreta'ko *Madril Txiki* zan. Paretaren kontra jartzen zituen, dekorazio bezela, Torre Eiffel, Aranjuez'ko loretegiak edo orrelako zerbait; eta zu oietako baten aurrean jarririk, argazkia aterako zizun. Ortarako, erretratistak bere burua makinak zeukan oialezko zorro beltz batean sartzen zuen, eta "*¡va!*" esatearekin batera disparatzen zuen makinaren mekanismoa. Ala, Euskal Erritik irten gabe, zereganatzen zenuen Paris edo Aranjuez'en izan ziñaneko oroigarria. Ixtantean errebelatu eta zure eskuetan jarriko zizun zure argazkia. Ortik eta ara zan *a minuto* deitura ori. Neronek ere bat badaukat, orain berrogei ta zortzi urte inguru aterea, Alegiko festetan, Luix Arbillan nere adiskidearekin.

Gaur fotografia oso aurreratua dago. Ikusi besterik ez dago nola Olinpiadetan ateratzen dizkieten atletei elmugara eltzean. Sarritan argazkiaren bidez erabakitzen dute nor irabazle izan dan.

Argazki polit bat ikusia nago. Senarrak, bere beiarekin, ganadu konkurtso bat irabazi eta argazkia zeukan. Bere emazteak, berriz, etxaldean ateratako bat. Bi argazkiekin, erretratista on batek konbinazioa egin zuen eta orain an daukate beren eztaietako argazkia. Senarra bere gorbatarekin eta emaztea eskuetan lore xorta duela eta manteliña txuriarekin. Ara aurrerapenak noraiño eraman gaituen.

(El Diario Vasco, 1986-IX-7)

MIKELETEAK

1936'ko guda ondoren erabat galdu baziran ere, mikeleteak ezagutzeko era izan genuen. Guztiz jantzi dotorekoak ziran. Txapel gorriaren gainean Gipuzkoa'ko eskudoaren irudia, beren iztarraren erdi-raiño iristen zan kapa urdiña eta praka gorriak erabiltzen zituzten.

Ni, nere etxekeekin, garai artan, Itsasondo'ko udaletxeko ostatuan bizi izaten nintzan. Errian ez genuen mikeleterik, baiñan Ordizia'n baziran eta andik etortzen ziran udaletxera. Orrela ezagutu nituen Otalora, Beloki, Goikoetxea, nere abizeneko Lete, Huizi, *Xeama*, *Attaun* eta abar. Euskaldun garbiak ziran.

Ez gaurko ertzain asko bezelakoak. Oek au esaten dute:

-No sé el vasco. No lo pudimos aprender por la dictadura de Franco. Ahora lo estoy aprendiendo.

Bapo, mutillak! Nagon ixilik, berotu egiten naiz eta.

Gure eskolara ere etortzen ziran, illean bein edo, ez beti, maixuari soldata ordaintzera. Mikeletea eskolan sartzean, danok geren "mesatetik" altxa eta tente jartzen giñan. Gero, maixuak "sentaos" agintzen zigun eta guk bete egiten genuen.

Mikeleteak, batzuentzat, onak izango ziran. Darentzat ez, ordea. Ara neri gertatutako kasu bat. Donostia'tik Madrill'era, igande batez, motozikletentzat dalako rally oietako bat eratu zuten.

Gure etxe ondoko Fernandoenea deritzaion etxe aurrean, motorista bati bere motorraren kurpilleko kamara zulatu zitzaion. Aldatu zion kamara eta baliyo ez zuena, amorru bizian, espaloira bota zuen. Nik orduan ari:

-¿No le vale eso? ¿Me lo da por favor?

-Para ti. ¿Para qué lo quieres?

-Para hacer tiragomas. Muchas gracias.

Irriparra egin zidan.

Motoristari begira geunden mutil koskor taldeko ausartena ni izango nintzan, eta andik eta ara kamararen jabe egin nintzan. Jarri nuen tiragomak egiteko negozioa. Etorzen ziran erosleak. Nere denda, eskolako orduz kanpora irekitzen nuen. Ontan, an datorkit Villa Sarasola'ko Exteban, eskola laguna eta nere kintoa, eta au esan zidan:

–I, Jexux: ik badaukak *Chocolates Loyola*-ko albuna eta tiragomarentzako bi gomen truk onoko kromo oek emango dizkiat.

–Konforme, Exteban. Gaiñera beste bat emango diat errespuestotarako, kromo pilla aundia ekarri dek eta.

Etxetik atera nuen kamara eta eseri giñan Kontzejuko petrillean.

Gureizak artu eta ekin genion goma ebakitzeari. Ala ari giñala, estankotik Erriko Etxe aldera an dator bizikletan mikeletea.

Guk bera ikusi orduko, kamara ipurpean jarri genuen. *Kieto* eta urduri biok.

Eldu zan guregana eta gutxi gora-beera au esan zigun:

–Zer dezute or, zuen ipurdi azpi ortan? Altxa bizkor biok!

Jeiki giñan. Kendu zigun kamara. Bereak eta bi esan ere bai. Ume mutur zikiñak giñala. Lotsaga-beak. Tiragomarekin ibilita bakarren bati begia galtzeko arrixkua zegoela, eta orrelako erretolika jaulki zuen. Kamara artu eta an bota zigun zubitik ibaiaren erdira. Ura naigabea gurea! Exteban gomarik gabe eta Jexux trixte, mikeleteak negozioa kendu ziolako.

Leen esan dedan bezela, mikeleteak etortzen ziran udaletxera. Banaka. Beren agintariiek ibillaldia jartzen zieten. Erri batera irixtean, udalako sekretarioak kuaderno batean firma egiten zien. Au justifikante izaten zuten. Gure errian Joxe Anjel sekretarioak egiten zuen lan ori. Bera ez bazegoen, gure

dendako edozeiñek. Agintariarekin ezagunak giñan eta.

Egun batean eldu zan neri kamara kendu zidan mikeletea. Joxe Anjel ez zegoen eta gure amari esan zion:

–Gaur onek izenpetuko dit.

–Nik zuri firmatu? Ez orixe! Ezta pentsatu ere. Zuk kendu zidazun nere negozio eder ura. Ea nola justifikatzen dezun Itsasondo'n izan zerala.

Gure ama zanak firmatu zion. Ez nere gogoz. Gaizki egin al nuen? Ordutik gaur egunera berrogei ta amar urte ondo igaroak dira. Nere jokabideaz oraindik ez naiz damutu. Kaskagogor samarra? Bear bada, bai.

Mikeleteak beren gain bazituzten lan geiago ere. Garrantzitsuenetako bat, Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxako kontuak zuzen erabiltzea. Leengo bezeroak ondo zaindu, berriak billatu, aolkuak eman eta abar. Igande arratsa danetan ere, beren gogoz, baserri-rik-baserri ibiltzen omen ziran, dirua aurreztu nai zuenari "lagundu" asmoz. Jakiten omen zuten dirua nun sartu zan eta nun zegoen. Ontan, enteratu dira alako baserrikoak bi txekor saldu zituela, eta an di-joakio mikeletea baserrira diru billa.

–Arratsalde on, Kaxiano. Eranegun bi txekor kendu omen dituzu eta emen natorkizu, dirua gure Kutxan gorde nai badezu, gure laguntza eskeintze-
ra. Oso interes ona emango zaizu.

–Eskerrik asko, Erramun. Gure etxean, dirua aurreratze-ko martxa ederra daukagu une ontan. Seme zaarrena, iru illabete auetan, gaixorik daukagu Do-

nostia'ko ospitalean. Alaba ilbeltzean ezkontzen zaigu. Beste semea, berriz, azken bi urte oetan Afrika'n daukagu soldadu. Zorrak ordaintzen naiko lan izango degu.

Tertulitxoa egingo zuten. Merienda ere bai, eta ala agurtuko ziran.

Jantzi dotore ura, gerora aldatu egin zuten. Praka gorrikoak eta kapa urdiñekoak *de galako* egunetan jazten zituzten. Bear ere bai jantziz aldatu, leengoa-rekin ez bait zegoen ibiltzerik Gipuzkoa'tik Napparroa'ra, ijitoak beren karro, zaldi, zakur, aur, asto zaar eta oiek ezin karreatuz.

Ibai eta errekek zaintzen ere naiko lan izaten zuten. Orko arrantzale pillak, lizentzirik gabe kañarekin edo eskuz arraiak arrapatzen. Zer esanik ez, gauean botatzen zituzten kordelak kontrolatzen.

Eta eiztariekin? Oek ere ez ziran guztiz zuzenak. Zenbat ibiltzen ote ziran paserik gabe? Jainkoak jakin!

Orregatik, geroko jantzi berria soldaduen antzekoa zuten. Kakizkoa eta txapel gorria. Leengoa baiño askoz ariñagoa zan. Bear ere bai, sarritan marathontan batean ainbat bidean ibili bear izaten bait zuten legez kanpoko arrantzale eta eiztarien atzetik. Esan degu *de galako* jantzi ura aldatu egin zutela. Baiñan ez zuten betirako baztertu, ez. Jai aundi, igande ta festetan jazten zuten.

Nere emaztearen aldetik banuen osaba bat mikelete izana. Bere izen abizenak Adrian Azpiazu ziran (g. b.). Bidani'n egoten zan mikelete. Errezil'go festetan, azaroaren 11'an, San Martin, joaten omen

ziran mikelete bikotea, ainbat bertsolari, sermolari eta indartsu sortu dituen erri ortara. Goizean errira eldu orduko, amaiketakoia egiten omen zuten, izar bakarreko salda eta arraultz gogortuarekin, ardo zaarrarekin bustiz. Garai artan ez omen zan *pintxorik* izaten. Gero, erriko agintari eta txistulariekin, meza nagusira. Andik irten eta plazan izaten omen zan kontzertua, txistulari edo trikitiak emana. Ernio aldetik asten omen zan aize biurria –nunbait ez zan izango San Martiñetako udaratxorik– eta ordubatean bazkaltzera. Ango oillo salda, garbantzua, odolki, aza, okel errea eta abar. Bazkalondoan mus saioa egin. Illunabarrean, apari-merienda. Aurretik, plazan bueltatxo bat. Dalako apari-merienda ori egiten ari zirala, inguratzen omen zitzairen erriko alkate jauna, eta onek esan ere bai:

–Gaueko amarretatik aurrera ikusten dituzuten pareja guztiak apartatu.

–Bai, jauna. Ondo dago. Beteko degu berorrek eman digun agindu ori.

Betetzen al zuten? Ez dakigu. Leku ederrean zebillan alkate ura, gaurko gaztediarekin aurpegi emanaz ibili bear izan balu. Ez zuen gauza zuzenik egingo. Ez orixe!

Gaueko amaikak aldera gure osaba zana eta bere laguna Bidaniratsen omen ziran, oiñez, orduko *porra* purua errez. Bertsorik bidean? Auskalo. Ezetzik ez genuke esango, egun ederra igaro ondoren etxeratzen ziran eta.

(El Diario Vasco, 1986-X-11 eta 14)

DATORRENA DIJOA

Euskaldunak, gerez, apostu edo jokuzaleak gera. Apostu bat egitekoan, argi ibilli bear da itzak trukatzekoan edo papera izenperatzekoan. Ori ondo ez egiñean, arrisku aundia izaten da jokua galtzeko.

Entzun izan degu pelotari bati buruz –iparraldekoa zala uste osoan gaude–, pelota partiduak eratzean beti aitzakiren bat ateratzen zuela. Batean esaten omen zuen esku edo gerritatik ondo ez zebillela. Bestean, pelota aukera berak bear zuela. Urrengoan, berriz, bera aurrelaria izanik, bere aurka jokatu bear zuen aurrelariak baiño atzelari obeagoa bear zuela. Buruz buru jokatu bear bazuen, beti sakean bentaja eskatzen omen zuen. "Orrela –egunkarietan esaten

zuten—pelotariak txaketa jantzita irabazten ditu partiduak”.

Onek esan nai du, partiduak eratzekoan negar egin eta orrekin baliatzen zala.

Nunbait, orrelakorik ez zuten erabilli gipuzkoarrek, naparrekin korrika apostu bat jokatzeko itz eman zutenean. Bi korrikalariak berdiñean jokatu bear zuten Tolosa'ko zezen plazan.

Gipuzkoarrek jartzen dute ixpi bat Naparroa'n, korrikalariak egiten zituen markak jaso eta Gipuzkoa'ra ekartzeko. Bere lana ondo bete eta an dator ixpi ori Gipuzkoa'ra. Urbiltzen da mutilla gobernatzen duten soziedadeko bere lagunetara, eta au esaten die:

—Naparra ondo janda zegok. Errez ibiltzen dek. Erbia zirudik. Zortzi kilometro, uztaiian, ogeitasei minutuz azpitik botatzen dizkik. Apostua galduta zeukagu. Gure bost milla durok Naparroa'ra joango dituk. Etzeukagu zer egiñik.

Jokua olaz-ola ez zegoela galtzerik eta pentsatu zuten erabaki on bat artu bear zutela. Ondo zekiten, bai, korrikalari naparra apostua jokatu bear zuen bezperatik Tolosaratu bear zuela. Baitare, bazekiten zer ostatutan gaua igaro bear zuen, eta ondo zekiten oillo lokaren saldak tripak mogitzen dituela. Erabaki zuten ostatu ortara joatea. Joan ere bai eta alkarrizketa au izan omen zuten:

—Egun on, etxeakoandre. Datorren igandean emen, Tolosa'n, korrika apostu bat degu, naparra eta gipuzkoarra alkar neurtuz. Jakin degunez, naparra larunbatez ostatu ontara omen dator, bertan gaua

igaro eta igandean jokatzera. Guri laguntzen badigu-zu, eskupeko ederrik izango dezu. Ortarako gure esana bete bear dezu.

–Bai –erantzun omen zuen etxeakoandreak–. Konforme. Zuen esana erabat beteko det. Naparrak aparti, oe eta gosari onak jartzeko agindu dit.

–Etxekoandre, entzun ondo. Naparrari eman zaiozu naiko zopa; bañan au, *sin falta*, oillo lokaren saldarekin egiña izan bear du. Gaiñean eman zuk derizkiozuna.

Esandako egunean naparra eldu omen zan ostatura. Etxekoandrea agurtu ondoren, onek, goxo-goxo, ala esan omen zion:

–Ongi etorri, Miel. Zuretzat oillo zopa, txuleta eta flana prestatu ditut. Oe gozoa ere bai. Zer derizkiozu?

Mutilla ados jarri omen zan etxeakoandrearekin. Apaltzean jan omen zituen bi plater oillo zopa, librako txuleta eta flana. Oeratu omen zan. Etorri dira gipuzkoarrak ostatura eta etxeakoandreak esan ere bai:

–Dana egiña dago.

Oek kontentu. Goizean jeiki da naparra eta apostu ordurako plazaratzen da. Korredoreek "eun irurogeiri gipuzkoarraren alde" oiukatzen omen zuten.

Asi da apostua eta Miel beti aurretik, berrogei edo berrogeitabost metroren aldearekin. "Au nerea dek!" pentsatzen omen zuen.

Ontan, bostgarren kilometroan-edo –zortzira omen zan apostua–, Mielen tripak asi omen ziran *kirrik* eta *karrak* gogor egiñez. Mielek "Datorrena

dijoa!" oju egiñaz, iriki omen zuen bere atzeko "leioa" eta, naiz bere praka, belaun eta bernak erabat zikindu, garaille irten omen zan.

(El Diario Vasco, 1986-XI-4)

BEZPERAK

Orain dala denbora gutxi, izketaldi batean, etxe-koandre batek au esan zidan:

–Jexux, *El Diario Vasco*’n idazteko, nik emango dizut gai polit bat: bezperak. Gaurko gazte askok ez dituzte ezagutu eta, beren etxeetan komentatu ez dietelako, ez dakite elizkizun ori zer zan.

Gogo ori, eskari ori bete asmoz, makina artu eta lanari ekin diot. Gaur egun, gure ustez, parroketako bezperak erabat galduak daude.

Gure errian, eta ingurukoetan ere bai, aspaldi xamar ez dira ospatzen. Monjatxo eta praileek orrelako zerbait egingo dute beren komentuetan; baiñan, aietatik aparte, iñun ez dira abestu edo errezatzen.

Gure errian, igande eta jaietan izaten ziran. Udarran arratsaldeko irurretan eta neguan ordubi t'erdietan. Gaiñera, bezperak entzutea, mezetara joatea bezin bearrezko jotzen zan. Ez pentsa gurasoen baimeunik zuregan izango zenuenik erromerira, futbolera edo zinera joateko, baldin eta aurrez bezperetan izan ez baziñan. Garai artan orrela ziran gauzak.

Mutil koskorrak giñala joaten asten giñan eta elizako aulkietan zintzo asko egon bearra izaten genuen, bestela zigorra guretzat izaten zan eta. Gero, gure goiko ezpaiñean bixar izpiak ernetzen asten ziranean, korura joan eta kantore asten giñan. Orrela, gure iritziz, gizonagoak giñan, naiz artean gizon-txoak izan.

Parrokiko koruaren erdi-erdian, fazistol bat zegoen liburu aundi batekin. Liburu artatik latiñez abesten genituen bezperak. Iñor jabetzen al giñan zer abesten genuen? Gure ustez ez, latiñez tutik ez genekigun eta.

Liburu aren antzeko bi, oraintsu erriko jubilatuekin egin dedan ibillaldi batean, Orreaga'n, Napparroa'n, ikusi ditut. Biak oso ederrak dira.

Gure koruko fazistola eta liburu aundi ura aspal-di galdu ziran gure begien bixtatik. Modernismoak izkutatu zizkigun.

Bezperetarako, apaizek rokete txuriak jazten zituzten. Oso apaiñak ziran. Almidoiarekin ondo plantxatuak eta kizkur dotorerik izaten zuten. Akolitoek, igande korrientetan, rokete txuria eta sotana beltza jazten zituzten. Jai eta igande aundietan, rokete berdiña eta sotana gorria.

Bezperak kantatu eta ondoren, bost misterioko errosarioa errezatzen zan. Urtean zear izaten ziran Maiatzeko Loreak, Jesusen Biotzaren Illa eta bederatziturrenak. Denetan zerbait kantatzen zan. Garizuman, Guruzpide abestua. Illeko irugarren igandean, Jauna agirian jartzen zan eta, elizkizuna bukatzean, berarekin apaizak bendizioa ematen zigun. Iñoiz prozesioak ere izaten ziran. Eguraldi txarrarekin, eliz barruan egiten ziran; eta onarekin, kanpotik.

Itsasondo'ko pelotalekuak ezker eta eskubiko partetak ditu. Trinketea dirudi. Eskubiko pareta sakristiarena da. Gaur estalita badago ere, pareta artan bazan letrero bat, oso ondo egiña, eta au jartzen zuen: "*Se prohíbe jugar a la pelota durante los oficios divinos, bajo la multa de 2'50 pesetas*". Agindu ori ondo betetzen zan eta, gure ustez, iñork zerga ori ordaindu bearrik ez zuen izan.

Beste erriei ezer kendu gabe, gure erritik urbil dagoen Arama errian, bezperak oso ondo kantatzen zituzten. Maixu on bat, Don Joakin Tolosa (g. b.), bertako parroko izan zuten eta berak erakutsi zien ain ederki abesten.

(*El Diario Vasco*, 1986-XI-14)

APEADEROA

Aurtengo Santu Guztien egunean bete dira, ain zuzen, berrogei ta amasei urte, gure erriko, Itsasondo'ko, apeaderoa inauguratu zala.

Naiz mutil koskorra izan —bederatzi urte nituen—, bere bedeinkapenera joan nintzan, esku batean makillatxoa eta beste eskuarekin nere arreba bati besotik elduz.

Goiz erdi aldera, ordua ez naiz gogoratzen, Donostia'tik trenean gure errira etorri ziran *Red Nacional de Ferrocarriles del Norte de España*-ko agintariak. Gaurko *Renfe*'ri, garai artan, orrela deitzen zitzaien. Aipatu ditugun jaun aiek egokiak ziran. Dotoreak benetan. Sombrero eta guzti, alajaiña!

Jose Manuel Sarasola (g. b.), nere ama zanaren anaia, genuen orduan gure erriko alkate. Ondorengo bi kasu oek berak kontatu oi zizkidan.

Arama'ko alkateari eskatu omen zion bere firma, apeaderoa egiteko Madrill'era zuzendu bear zan instantzian, aramatarrek ere bearrezkoa ikusten zutela Itsasondo'n apeaderoa egitea esanez. Arama'ko alkate arek firma ukatu egin omen zion itz oekin:

–Ez zekiat, ba, nik, Sarasola, konpromiso txarren batean sartzeko bide ez ote litzaken neretzat izango firma ori botatzea. Nik ez diat nere izenik paperean jarriko.

Naiz jaun arek bere firmarik ez bota apeaderoa egiteko eskabideko instantzian, trenaren geltokia egin zan.

Egun batez, Ordizia'ko Kanposantu gaiñean –Kanposantu gaiña deitzen zaio, Ordizia'tik gure errira datorren kamiñoak leku artan duelako bere aldaparen gaiña–, topo egiten dute Arama'ko alkateak eta gure errikoak. Arek gureari au esan omen zion:

–Sarasola, apeaderoa egin zenuten.

–Bai, motell. Ire firmari esker.

"To, mikatza dek baiño!" pentsatuko zuen gure osabak.

Gure aitona zana ere, Juan Martin Sarasola, alkatearen aita, beraz, apeaderoa egiteko guztiz kontrarioa omen zan. Bere arrazoiak ontan oiñarritzen omen ziran:

–Apeaderoa egin ezkeru, erbestear asko erriratu-ko zaiguk. Oitura txarrak gure errira ekarriko dizkit. Erretiro txarrak ere ugalduko zaizkiguk.

Eta abar.

Gaur, kanpotarrak Itsasondoratzeko, ez daukagu apeaderoaren bearrik. Ezta ere oitura txarrak erriratu eta parranda etengabeak egiteko. Ez orixe!

Esan degu apeaderoa bedeinkatu eta zabaldu zala. Baitare esan degu trenbideko agintari jaunak nola egun ortan etorri zitzaizkigun. Aiekin ere erriko agintariek ondo bete bearra zeukaten, eta bazkari aundi bat, bankete oietakoa, eratu zuten. Udaletxeko ostatua nere gurasoek erabiltzen zuten eta an izan zan dalako bankete ori. Ederki ase omen ziran. Jaun aietako batek ala esan omen zuen:

—*Vaya comida que nos han dado en Isasondo*—
—orduan Itsasondo'ri ala deitzen zitzaion—, *con angulas y todo!*

Kontentu etxeratuak izan bear zuten.

Arratsaldez, egun aundi ura ospatzeko, erriko plazan, soiñua eta zaagi ardoa jarri zituzten, tragoxkak aldiz egin eta jendea dantzatu zedin. Milixio, erriko aguazilla, zan ardo-partitzaille. Guk ere geren mokotxoa busti genuen. Gure lagun bat, *txorta* zigarroak errez eta tragotxoak egiñez, txorabiatu egin zitzaigun. Lotara eraman eta urrengo goizera-ko erabat txuspertu zan. Ala obe.

Naiz apeaderoa eguardi aldera bedeinkatu, egun-sentian gelditu zan leenengo aldiz trena gure apeaderoan. Gure adiskide Joxe Jauregi—lagun artean Joxe Kaxeta— eta bere aita (g. b.) izan ziran leenengo *biajeroak*, trenera gure errian igo ziranak. Legorreta'raño joan omen ziran eta urrengo trenean etxeratu.

Orain arte idatzi ditugun datu guztiak, entzun edo ikusi eta buruz jarriak dira. Zeatz-meatz apeaderoari buruz gauzak ziur idatzi asmoz, udaletxera jo degu eta an Izaskun San Sebastian'ek 1930'eko azaroaren leenengo eguneko aktaren fotokopia eman digu. Beraz, apeaderoaren inaugurazioko egunean egiña. Eskerrik asko, Izaskun. Akta gaztelaraz idatzia dago, baiñan guk euskeratu egingo dugu. Dalako dokumentu orrek au dio:

Esan degun egun ortan nola udaletxean bildu ziran ondorengo jaun oek: alkate: Jose Manuel Sarasola; kontzejalak: Jose Antonio Amundarain, Eustakio Benito, Benito Barandiaran, Frantzisko Ibarguren, Jose Iturrioz, Frantzisko Sarasola eta Juan Tolosa; idazkari: Jose Angel de Izuzquiza. Danak il ziran eta Jaunagan atsedeen izan dezatela.

Alkate jaunak adierazi zien bilduei, komarkako sobrestante zan Albacete jaunak nola eman zizkion Konpañiko agintarien izenak eta, bere ustez, amabost bat jaun etorriko zirala gure apeaderoa inauguratzera.

Baitare akta ortan irakurtzen dira ondorengo datu oek: leenengo aldiz gelditu zan trenaren zenbakia, 2.055 zan. Motorraren zenbakia, 30. Makinista, Manuel Isasch. Kondutorea, Zacarías Ocio. Interbentorea, Justo Sareda. Faktoreak, Paulino Acacio eta Angel Balbás.

Oneraiño idatzi deguna, aktatik jasoa dezu, irakurle.

Bi faktoreak ondo ezagutzeko era izan genuen, gure etxean apopillo egoten ziran eta. Ezagutu ge-

nuen, baitare, apeaderoa egin zuen kontratista. Garbi ez naiz gogoratzen bere abizena; Iturralde edo Iturrarte zan. Gure etxean bazkaltzen zuen. Gogoan det.

Apeaderoa eta andenak egiteko materialak, auzo-lanean gurdiz karreatzen ziran. Gurdiak, igande eta jaietan, erriko plazan egoten ziran. Mutil koskorrak geldi ezin egon eta, igande batez, asi giñan gurdiarekin plazatik Kaxeta'ra joan eta etorrian. Orduko zubiak kurba aundia zeukan. Sartu gera gurdiaren kajan Zapatari'ko Antonio, Azubi'ko Luix eta ni. Bagoaz Kaxeta aldera egundoko abiadan, eta gurdiaren atzekoek indar geiegirekin bultzatzen zutela eta gurdiaren pertikakoek ezin errenditu zutela gurdia, eta an joan giñan irurok, gurdi eta guzti, zubitik beera ibaiko kaxkardiraiño. Urratu batzuk izan genituen. Osin igurtziak ere bai. Baiñan, alare, danok pozik eta kontentu, oker aundiagorik pasa ez zitzaigunean. Egun artako gure jolas eta beajeak an bukatu ziran.

Gaur faktorerik ez daukagu apeaderoan. *No rentable* omen da. Garai batean bi, gero bat aldiz etortzen zan garbitzaillea. Trago ederrik egiten zuen, nunbait auts asko kendu bearra izaten zuen eta. Zer-bait orrelako izango zan.

(*El Diario Vasco*, 1986-XI-20 eta 21)

KOMEDIANTEAK

Guk, erriko mutil koskor eta adiñekoek ere bai, komediantek deitzen genien. Ez ala, ordea, Maixune'ko Jexusek. Onak titiriteroak deitzen zien eta, izatez, ala ziran. Alde aundia baidago bat edo beste izan. Oso lan ezberdiñak dira batzuenak eta besteenak.

Dana dala, udara partean etortzen ziran. Urtero ez, baiñan sarritan bai, urteko aro onetan. Guretzat, garai artan, komediantek ikustea, gaurko Angel Cristo bere leoi artean ikustea bezin pozgarri zan.

Gaur galduak daude. An edo emen ikusiko dituzu funambulistak, baiñan komedianterik ez. Aurre-
rapenak beste ikuskizun batzuk sortu ditu eta aiena,

espektakulo ariña zanez, gaurkotasunerako ez zan ogibidea sortzeko ainbat. Pena artzen degu galtzea. Maitagarri ziran.

Naparroa edo Araba'tik erriratzen zitzaizkigun, Ordizia'tik barren. Euskeraz ez zekiten. Zelatxo'ko kurban agertu orduko, laister batean jabetzen giñan komediantek zirala, beren karro gorri, urdin edo berdeak nabarmenak ziran eta. Karroan, gaiñean, tximinitxo bat izaten zuten. Karro ura zuten beren etxe bizitza.

Plazara eltzen ziran eta galde au egiten zuten:

—¿*Dónde está el ayuntamiento?*

Azkar batean prestatzen giñan erakusteko eta, pozik lagunduz, udaletxera eramaten genituen Joxe Anjel orduko sekretarioarengana, eta oni guk erre-gutu ere bai, esanez:

—Joxe Anjel, komediantek dira eta eman zaiezu permisoa komediak egiteko.

Baietza ematen zien eta gu pozik izaten giñan.

Udaletxea nun zegoen galde egiten zutenak, ez ziran urtero etortzen ziran oietakoak izaten. Bat ba-zan *Txiripa* izenekoa eta ark ondo zekien Itsason-do'ko berri. Maiz xamar etortzen zan eta ezagunak giñan. Argi indarra nundik lotu erakusten genion —norbaiten kontadoreak korrituko zuen, *Txiripa*'renak ez, ordea—; baiñan onek, *Txiripa*'k, *por si aca-so*, karburuarekin argi egiten zuten farolak berekin izaten zituen. Komediante danek bi egunetarako baimena eskatzen zuten. Leenengo egunean bandeja eskean pasa eta errifarako zenbaki gutxi saldu zute-lako subasta egiten bazuten, diru gutxi bildu zutela

gauza agiria zan eta urrengo goizean anka egiten zuten. *Txiripa*'rekin ez zan orrelakorik gertatzen. Gu berarekin ondo portatzen giñan eta bera ere bai gurekin. Orrela, bi egunetarako funtzioa seguru izaten zan.

Arratsaldeko zazpirak inguruan, danborra artu eta Beko Kaletik Ermentari etxeraiño, emen buelta, gero Zelatxo'raiño eta, aldiz, Goiko Plazara an joaten ziran, danborra joz eta "*Esta noche, a las diez, gran función en la Plaza Mayor*" anuntziatuz. Erriko aur danak beren atzetik izaten zituzten. Ni ez, gauza ez nintzan eta.

Txiripa, batzutan, bere *roulotte* –orrela esanda dotoreagoa da– ortan jantziz aldatzen zan. Pailazo papera egin bear zuenean, izen ori zeukan idatzia bere bizkar gaiñean, erabiltzen zuan jantzi parregariak. Gero, trapezioan ere ibiltzen zan, bere *bolak* erakutsiz. Zankoak, egur luze batzuk, jartzen zituen bere bi anketan, pauso beldurgariak emateko. Ez zan erortzen. Gu txaloka. Mutil koskorrak, ura ala ikusita, ondorengo egunetan, tomate pote utsei pardo lasto alanbreak jarri eta, ondo lotu ondoren, an ibiltzen ziran tiki-taka, *Txiripa* imitatzen. Baitare, aldiz, *Txiripa* garai artako Latiñe etxeak zuen lokal batean erantzi eta jazten zan. Komediante geiago ere etortzen ziran, *Tonto Mala Pata* eta abar; baiñan ez zuten *Txiripa*'ren maillarik jendea alaitzeko.

Lagun bat bagenuen komedianteen imitatzaille apartekoa. Il zan eta goian bego. Eskola xaarraren aurrean an daukagu Karreapea deitzen zaiona. Eguerezko iru abe dauzka. Abetik abera jartzen zuen

lasto pardoaren alanbrea, eta andik txintxilik bi edo iru bonbilla, erreta zeudelako argi egiten ez zutenak. Bere musua margotzen zuen apretak txuritzeko izaten zan pastarekin, betondoak urdindu añillarekin, bixera xaar bat jantzi, praka txuriak ere bai, eta errekreo garaian komediak egiten zizkigun. Gu petrillean exeri eta "Aupa, Karlos!" esanez, txalokatuz jarduten giñan. Lagun ura, gaur bizi balitz, zirkero oso ona izango zan.

(El Diario Vasco, 1986-XI-27)

SAN NIKOLAS

Abenduaren 6'an ospatzen degu Gotzai eta Aitorle onen eguna. Mira errian jaio zan eta Bari'n Gotzai izan. 324'garren urtean il zan. Santa Claus izenarekin ezagutzen dute Amerika eta Europa'ko zenbait lurraldetan.

Ango aurrek sinisten dute berak ekartzen dizkiela eskuerakutsiak, emengoak, gureak, ziur dauden bezela Erregeak edo Olentzero izaten dala erregali ekartzaille.

Gaur egun galdua badago ere, garai batean, San Nikolas egunean, mutil koskorak, etxez etxe, kantari eta eskean ibiltzen ziran, santu au goraldtu asmoz. Gure errian ere ibiltzen ziran.

Itsasondo'n, egun ortan kantari ibiltzeko, derri-gorrezkoa zan akolito izatea.

Errian badegu etxe bat Kalea izena duena, eta bertako Mariak (g. b.) egiña zan mutil koskorrek jazten zuten mitra. Dalako mitra ori kartoizkoa zan eta paper sedazko koloretakoekin adornatua.

Paperak bata besteari eransteko, Mariak engrudoa erabiltzen zuen –gari-irin eta urarekin egiña—. Orduan ez zan ezagutzen gaurko pegamentu edo dalako ori.

Urtean zear Mariak gordetzen zuen txanotxo ori. San Nikolas egunean akolitoei ematen zien eta oek, egunean zear beren buruan ibili ondoren, illunabarean, berriro Mariari ematen zioten, gorde zezan.

Txanodunak *soloa* kantatzen zuen, eta gero taldeak erantzun. Sendi euskaldun etxeetan abesten zana orrela asten zan:

Nikolas Santua
izandu zan maitatua...

Erdaldun etxeetan, berriz, orrela:

San Nicolás coronado
obispo fue muy honrado...

Latiñe'ko Rafaelak, naiz bera euskalduna izan, gazteleraz kanta arazitzen zien.

Etxe batean urte barruan norbait il bazan, Aita Gurea errezatzen zan. Poltseroa ere –ori zan bea-

rrrezkoena taldearentzat– izaten zuten. Lanak bukatzean, diruak partitu eta danak kontentu etxera.

Don Jazinto Tolosa (g. b.) gure erriko apaiz koajutoreak, pentsatu zuen mitrarekin ibiltzen zan akolitoa gotzaiz jantzi bear zala, eta egin ere egin zuen. Jostun bati ekarri zizkion elizan baztertuta zeuden jantziak, eta onek, jostunak, egin zuen obispoaren kapa. Tomaseneko Luix zanari egin arazi zion egurrezko bakuloa, Don Jazintok pintatu zuen urre koloreko purpurinaz, eta erriko *obispotxoa* dotore asko prestatu zuen urte artarako, eta urrengoetarako ere bai.

Don Jazinto eta bion artean eman genion konponketa bat besteari –rimaz naiko pobrea zan–, beretasuna gorde egin genuen, eta akolitoak an joan ziran etxez-etxe, kontentu eta kantari.

Urte artan, Don Jazintori esan ziotenez, akolitoek iñoiz baño limosna geiago bildu omen zuten. Diru biltzeko marka guztiak autsi, alajaiña! Apenas aserre ziran gure *obispotxoa* eta bere lagunak.

Gaur ez daukagu ez akolito eta ezta ere San Nikolas abestirik. San Nikolasek, zerutik, bedeinka gaitzala danok. Orixe da berari eskatzen dioguna.

(*El Diario Vasco*, 1986-XII-4)

ITSASONDO, 3; LEGORRETA, 3

Ez da gaur goizekoa bi erri auek beren artean futbolean izaten zuten eztabaida edo kikimakoa. Gu aurrak giñala, alkar neurtzen ziran eta, garai artan, arbitroari *referee* eta defensari *back* deitzen ziztaion. Beraz, ortik kontuak atera noiztik sortu zan leiaketasun ori. Gerora ere, gure gazte denboran, jokatzen zuten. Nola erri batek eta besteak futbol zelairik ez zeukaten, erriko pelotalekuan jokatzen zuten. Legorretarrak etortzen ziran gure errira eta guretarak joaten ziran aietara.

Orain dala berrogei urte inguru, bi taldeek erabaki zuten benetako futbol zelai batean jokatu bear zutela, eta ados jarri ziran Ordizia'ko *Arana* futbol ze-

lailan bakoitzak bereak eta bi erakusteko. Errege eguneko arratsaldea izendatu zuten *derby* artarako.

An nintzan. Eguraldi laiñotsua eta naiko otza zan. Arbitroa Fermin Samaniego (g. b.), ordiziarra, neutral bezela, jarri zuten. Jaun onek, bere lan sari bezela, futbolista bakoitzari biña pezta kobratu zien. Orrela berrogei ta lau pezta poltsikuratu zituen. Jokalari bakoitzak, futbolista bakoitzak alegia, amar pezta jokuan jarri zituzten. Partidua berdiñean bukatu zalako, eta kontentu gañera bi taldeak, bakoitza bere diruarekin etxeratu zan, lana *gratis et amore* egin ondoren.

Legorretarrek Tolosa'tik ekarri zituzten futbolista jantziak, eta itsasondotarrek Ordizia'tik. Arau berezi bat bazan partidu ontan. Au da: bi taldeek apretakin jokatu bearra zeukaten. Nunbait bildur ziran *rompe piernas* oietakoak izango ote ziran, nola talde batean ala bestean.

Partidu artan jokatu zuen erritar batekin egon gera eta, naiz amaikako osoa ez gogoratu, itsasondotar amar jokalariren izenak gogoan dauzka. Oek izendatu dizkigu: Sotero Calleja, Jose Mari Leunda, Jaxinto Mujika, Jesus Ibarguren (g. b.), Patxi Urionabarrenetxea, Inaxio Garmendia (Tomaseneko "Sastre"), Nikolas Iturrioz, Imanol Iturrioz, Inaxio Garmendia ("Txirrita"), Inaxio Iturrioz, (Beko Fabrika-koa).

Gure erritarren masajista Antoñito Arbilla (g. b.) izan zan. Orrelakoetan, dalako *agua milagrosa* ori sarritan bear izaten da eta, ur au eramateko, Zapatari edaritegiko aurrek utzi zioten beren eskola maletiaña,

Blanca Nieves y los Siete Enanitos bere tapan margotuak zeuzkana. Ez zuen lan aundirik izan.

Bi taldeak ondo portatu ziran eta Itsasondo 3; Legorreta 3, lan onen izenburuan diogun bezela, partidua berdiñean bukatu zan.

Ala obe. Orrela, erri arteko sesioek bein betirako azkena izan zuten. Partiduaren leendabiziko zatian, itsasondotarrak 3-1 irabazten jarri ziran; baiñan, atsedenen ondoren, Legorreta'koek, joku paregabea egiñez, bi bider zulatu zuten itsasondotarren atea. Illunabarra gaiñean zan eta ez zegoen denborarik luzapena jokatzeko. Bestalde, ezagutu bearra dago, bi taldeak oso nekatuak zeuden.

Ni, garai artan, gure erriko berriemaille nintzan *La Voz de España* egunkarian. Derrigorrez gaztele-raz idatzi bearra zegoen. Partiduaren komentarioa egin ondoren, bi errien artean pakea izan zedin, au idatzi nuen: "*Los de Legorreta hicieron muy buen papel y los de Isasondo* –orduan ala zuen bere izena gure erriak– *demostraron poseer una hermosa cantera*". Au jarri nuen ala ez norbaitek jakin gosea badu, galde egin dezaiola Ordizia'ko Julian Ormaetxeari. Ikusten nauen bakoitzean, gauza berdiña gogoratzen dit.

Geroz, guk dakigula, aipatu ditugun bi errien artean, ez dute jokatu neurri artako partidu sonaturik. Orrela, bai Legorreta eta bai Itsasondo, *pax vobis* ederrean bizi dira.

(*El Diario Vasco*, 1986-XII-7)

ANTIOJUAK

Lantxo au idazten ari naizenean, Santa Lutzi eguna urbil daukagu. Danok dakigun bezela, neskatxa eta martiri onen eguna abenduaren 13'an ospatzen degu. Santa au guztiz ezaguna degu, bixtaren Zaindari degulako.

Bestalde, egun ontan, oso entzutetsuak dira bai Urretxu eta baitare Zumarraga'ko periak.

Bi erri oietara salmentara agertzen ez dan produkto edo gauzarik ez da. Nola erri batean ala bestean, an izango dituzu salgai abere, barazki, etxe-egazti, nekazaritzako tresna eta abar luze bat. Darnetatik daukazu an, irakurle. Aukera faltarik ez dezu izango.

Beti izaten nuen alako gogo berezi bat peri ori ikusteko. Ala, orain dala berrogei ta bost urte inguru, lagun batekin leenengo aldiz joan nintzan. Ura jendetza! An da emen, iñolaz ere, pausorik ezin eman zan.

Ango kinkillero, txarlatan, txutxeri eta milla motetako gauza saldu eta erosi bearra! Ez zegoen bul-tzadaren faltarik ango jende artean. Gogozko bidean ez omen da aldaparik izaten eta, naiz trikili-trakala ibili bearra izan, pozik eta kontentu ibilli giñan ango jendearte eta kaleetan.

Bagoaz bi lagun Piedadeko Kalean beera eta nun ikusten degun gizon bat, oiu bizian, altabozik gabe, au esanez:

—¡Anteojos para vista cansada! ¡Venga y pruébelos! ¡Que Santa Lucía nos bendiga!

Inguratu gintzaizkion zer ikusi asmoz. Mai batean oial bat jarri eta an zeuzkan berrogei bat antioju pare, kristal eta marko ezberdiñekoak, bixtan eta saldu asmoz.

Erosleak urbiltzen zitzaizkion. Probatzen zituzten betaurrekoak.

Ondo ikusten zuten ala ez erabakitzeke, saltzailleak ematen zien inprentatutako papertxo bat, izki ezberdiñak zeuzkana. Letra batzuk aundiagoak ziran, besteak baiño.

Ontan, erosleak ematen zuen bere konformida-dea eta tratoa zerratzen zan. Eskatzea libre bait da eta ez ematea ere bai.

Ura ikusita, arriturik gelditu giñan bi lagunok. Batak besteari au esan genion:

—Emen ez dago okulistaren bearrik.

Ura ikusi eta andik zerbait denbora igaro ondoren, gure erriko Kontzejuko ostatuan musean edo kontu kontari ari giñan. Ontan, an dator Periko, Udaletxeko sekretarioa; eta, Patxi gure artean zegoela ikusirik, au esan zion:

–Patxi, primeran egokitu zaitut. Firma bat bota bear didazu paper ontan. Orrela, aguazillak ez dauka zure etxeraiño joaten ibili bearrik.

–Nik, ordea, Periko, antioju gabe ez det tutik ikusten eta ezin nezake paper ori izenpetu.

–To nereak –Inaxiok esan zion–. Ea oiekin ondo moldatzen aizen.

Patxik probatu zituen Inaxioren antiojuak eta ala dio:

–Koño, koño, motell! Au dek ikustea!

–Ondo ikusten al dek?

–Bai, motell. Kasi ire anima ere ikusten diat.

–Santa Lutzitan erosiak dituk. Kinkillero bati artu nizkian. Ustez orduan oiekin ondo ikusten nian, baiña gaur ez negok oso konforme. Nik ordaindu nuena ematen badidak, iretzako izango dituk.

–Konforme.

Antioju tratao ospatzeko, biek kafea, kopa eta purua izan zituzten, alboka bezela. Jakiña, Patxiren kontura. Bakoitza kontentu eta pozik joan ziran beren etxeetara.

Arren, lagun zaiguzu
danoi, Santa Lutzi,
zure eskuetatik
ez gaitzazu utzi.

Gure ikusmenari
zerutikan eutsi,
argia izan dezagun
gaur, biar da etzi!

(El Diario Vasco, 1986-XII-13)

ZILINDROA

Zilindroa, gu mutil koskorrak giñala, guretzat gauza arrigarri bat izaten zan. Txunditurik egoten giñan berari begira. Gure erritik igaro bear bazuen eta Ordizia aldetik bazetorren, bein Ibas'ko intxaurretara eldu ezkerro, edo bestela, Legorreta'tik gora etortzen bazan, bein Berostegi'ra iritxi ezkerro, bereala jabetzen giñan tresna astun ura erriratzten ari zitzaigula. Ura poza gurea! *Dunpa-dunpa*, bere otsa nabarmena izaten zuen eta, ots ori entzun orduko, alkarri albistea pasatzeko, orrela asten giñan, oiubiz "Zilindroa zetorrek! Zilindroa zetorrek!" esanez.

Zilindroaren aurretik beti, oiñez, eun bat metroko aldearekin, kamiñeroa etortzen zan, eskuan ban-

dera gorria zuela. Dalako bandera orrekin kontuz edo peligro anuntziatzen zuen. Gaur ainbat kotxe eta kamioi errepideetan ez zan izaten. Ala obe. Bestela, atasku ederrik izango zan gure kamiñoetan.

Zergatik zuen zilindroa izena? Ba, bere aurreko kurpilla zilindrikoa zuelako. Esate baterako, soroan erabiltzen dan arri alperraren berdin-berdiña. Batzuek, arri mota oni, erolloa deitzen diote. Zilindroak, bere atzekaldean, bi kurpil aundi izaten zituen. Pisu aundia zuen makina onek eta oso geldi ibiltzen zan. Bere lana, errepideetan arri balastoa bota ondoren, ura zapaltzea izaten zan.

Gaur egun ere, zilindro edo erderaz *apisonadora* deitzen zaienak ikusten dira, baiñan gure garaikoe-tatik gaurkoetara aldero aundia dago. Aiek lurrun makinak ziran; eta gaurkoek, gasolioarekin mugitzen dan motorra izaten dute. Ortik lengoek beregan zuten otsa eta gaurkoek ez dutena.

Errian gelditzen bazan, bere inguruan ez zuen mutil koskorren faltarik izango. Elbiak eztira ingurutzen diran bezela urbiltzen giñan zilindroarengana. Ura begiratu bearra eta ura gozamina, alako tresna aurrez aurre ikustean!

Geldialdia egin ondoren abiatzen zanean, mutil koskorak, prozesioan bezela, bere atzetik joaten ziran, kilometro bat inguru osatu arte. Ni eramateko ere borondatezkoak izaten ziran eta, txandatzuz *arre burro* erabiliz, joan-etorria egiten nuen. Eskerrik asko, lagun adiskideok.

Asfaltu gabeko kamiñoa ere ezagutu nuen. Orduan, brea botatzea deitzen zitzaion. Brea au bota

aurretik, errepideak benetako traketsak ziran. Bizikletek, beren kurpilletan, naiko pintxazo izaten zuten. Zaldi karroek, berriz, kurpillak egurrezkoak izaten zituzten, beren bueltan burnizko uztai bat zutela. Ura kirriki-karraka otsa, jaunak!

Dalako brea edo asfaltu ori botatzera etorri ziran kamiñeroak, eta nün dakarkiten zorioneko zilindroa. Zer geiago bear genuen gure ikusmirarako? Egunak pasa zituzten lan ori egiten eta an egoten giñan txoratzten zilindroari begira, gaurko mutil koskorrak illargira bota bear duten satellite bati begira egongo liraken bezela. Ara gauzak nola aldatu diran.

Zilindroa ez zan bera bakarrik izaten. Berari ondo lotuta kate lodi eta pisuz, karramarro antzeko tresna astun bat ekartzen zuen. Tresna onen eginkizuna, kamiñoko zoruak ala eskatzen bazuen, bera urratzea izaten zan. Bera altxatzea, balasto berria botatzeko. Gero, dalako karramarro orren ondoren, komediantek erabiltzen zuten antzeko kaxeta bat ekartzen zuen. Kaxeta orrek atea, bi leiotoxo eta tximinitxo bat edukitzen zituen. Bertan, bai makinistek ta bai fogoneroek, berentzat otorduak prestatzen zituzten, eta lo ere an egiten zuten. Beti, kaxeta ori grisez pintatua izaten zan. Lotarako, bi katre edo kamastro edukitzen zituen. Gizon bakoitzarentzat berea. Neronek ere gustora asko lo egingo nuen etxetxo artan, baiñan sekula ez nintzan sartu.

Brea ori bota eta andik urte batzuetara, kamiño berria egitea erabaki zuten, udaletik asi eta beeko fabrika zaarreraiño. Leengo kamiñoa estua gertatzen zan eta, bestalde, Oria ibaia zerbait mugitu ezker,

urak irteten ziran kamiñora, orain gertatzen dan bezela, eta gurdi, karro eta kotxeak bertan ezin ibili. Guretzat, mutil koskorrentzat, urak kamiñoan ikustea nobedade aundi bat izaten zan; baiñan ez ala adiñekoentzat, kaltegarri izaten zan eta.

Kamiño berria egin zuen kontratistaren izena go-goan det. Justo Arrutia jauna izan zan, eta Donostia'n bizi izaten zan. Larunbatetan, bere alabarekin etortzen zan langilleei jornala ordaintzera, eta gure ostatuan pagatzen zizkien. Garai artan, larunbatetan ere, lan egiten zan.

Kamiñoako enkargatuak Bixente zuen izena, eta kontratistaren anaia zan. Gizon onek, errespetoa sartzeko-edo, bibote beltz aundiak zituen, eta beti panazko txamarra edo txalekuarekin ibiltzen zan.

Karretorako kamioi gorri bat zuten, eta txoferrak Patxi zuen izena. Irundarra berez. Bai enkargatua eta baitare txoperra, apopillo gure ostatuan egoten ziran.

Patxik, guri ikara sartzeko asmoz edo brometan, komunista zala esaten zigun. Gu adi-adi egoten giñan berak txapela noiz kenduko, bere kopetan adarrik bai ote zeukan ikusteko. Garai artan, komunista izatea, Luzifer edo Satanasen seme izatea bait zan guretzako.

Kamiñoa egiteko lanak aurreratzen ari ziran, eta nun datorren guretzat ain arrigarri zan zilindroa. Entretenigarri bezela, zer geiago bear genuen? Leen, brea botatzekoan, ibilli zan zilindro bera zan, eta zilindristak ere leengo berak. Ezagunak, beraz. Zilindroa zortziretan lanean asi bear bazuen, fogo-

neroa seiretan asiko zan sua piztu eta ikatza bota eta botaz, kalderako ura irakiten jarri arte.

Fogoneroa ataundarra zan. Txurrutero xamarra eta kartetan jokatzeko bizio ikaragarria zuena. Itsasondotar bat, egunero, kontrario izaten zuen. Nola-ko Peru, alako Mari. Biak, gure ostatuan, buruz-buru edo *mano a mano* jarduten ziran, leendabizi punttuan eta gero musean, edo bataz besteko. Irixten zan erronda egiteko garaia eta biak irteten ziran gure tabernatik. Ataundarra igotzen zan zilindroaren kaxetara –gure etxe aurreko plazan egoten zan kaxeta ori–, eta leiatilla iriki ondoren bertatik oiutegiten zion gure erritarrari:

–I, Itxasondo: gauza baldin baaiz, igo adi onera eta emen probatuko gaituk nor geiago geran.

–Bai, motell. Etzeukat ire bildurrik. Ataun'en danak mikelete eta apaizak omen dituk, eta oen induljenti, bendizio ta konjuroak ekartzen badituk ere, ez didak neri irabaziko. Or nauk.

Ala, egunero, kaxetako karburu kandilla piztu eta jokuan aritzen ziran. Kamiñoko lanak bukatzean, joan zan zilindroa eta orrela bukatu ziran bi jokalarien arteko joku-temak. Guk au esan genuen:

–Agur, zilindroa! Berriro etorri arte, agur!

(*El Diario Vasco*, 1987-II-5 eta 6)

PRASKINIXIO

Gure etxe ondoan, mugante, Intxaurrondo etxea dago. Kontatu izan digute bertan bizi izaten zala Praskinixio –Frantzisko Inazio, beraz–, bere emazte Manuelarekin ezkondata. Ondorengorik ez omen zuten.

Dalako gizon onek sekulako aldarteak izaten omen zituen. Batzuetan guztizko elizkoi agertzen omen zan, eta urrengoan umoretsu edo bestela astakirten uts.

Nunbait, ikusten danez, aizeak nundik jotzen zuen, ala izaten zan bere izaera.

Tabernatik alai bazetorren, baldin gaua bazan, bere kasa beti bezperak kantatuz etxeratzen zan.

Nunbait ori zuen bere oitura. Ango "*Dixit Dominus Domino meo*", "*Magnificat*" eta gainontzekoak kantatu bearra noski! Ez pentsa, irakurle, ori egiteko edanean pasatzen zanik, ez.

Lagunartean, bere emaztea benetan maite zuela eta egokia zeukala adierazteko, beti bertso berdiña kantatzeko prest jartzen zan gure Praskinixio. Ez zuen bein bakarrik kantatua izango, jendeak ere ikasi egin zion eta.

Ara bertso ori:

Andre jatorra zeukat
gure Manuela,
biotz zabalekua,
gorputzez ederra.
Olakorik etzegok
beste bat munduan,
markesa pranko badek
itsusiagoa!

Bertsoaren neurrian ondo zebillen, baiñan puntua edo rima zer zan jakin gabe mundu ontatik joana izan bear zuen. Ori dek lasaia izatea, ori!

Orrelako alabantzak egin bere emazteari, eta gero astakirtenkeri au egin zuen. Nunbait aizea aldatu egin zan.

Tabernatik etxeratu da gau batez. Bidean zetorrela, euri jasa batek bustitzen du goitik beeraiño, mela-mela eginda utziz. Sartzen da etxean eta ala dio bere emazteari:

—Gabon, Manuela. Au da euria egin bearra, au!

–Berdin, Praskinixio. Etxean urik ez daukagu eta, bustita zauden ezkerro, zoaz Errementari'ko txorrorra eta ekar zazu errada bat ur.

Esan bearra dago, garai artan, gure errian, etxeetan urik ez zegoela. Geroz jarria da. Beeko kalean dago Intxaurrondo etxe ori. Kale ortan bi iturri ziran. Bat, Tomasene etxe aurreko Kotxerak –erretako etxe bat zan– deitzen zitzaion ondoan zan. Geienez agortua egoten zan. Bestea, Errementari aurrean, Txorroa deitzen zitzaiona.

Gure Praskinixio, farola piztu eta joan da ur billa. An dator tapa-tapa bere erradakada urarekin. Sartzen da etxean eta, ezer esan gabe, iraultzen dio bere emazteari, burutik beera, erradakada ura, eta ala dio:

–Orain zerorri ere bustita zaude eta zoaz zeu ur billa.

Ori majaderokeria, ori! Emaztea marmarrean oerutzen da. Goizerako senarrari damutasuna sartzen zaio eta, oetik jeikitzean, belauniko jarri, "Nere Jesuskristo Jauna" errezatu eta ala dio bere emazteari:

–Barka zaidazu, Manuela, bart egin nizun ori broma bat besterik ez zan eta.

Emazteak, irripar goxo bat egiñez, absolutioa eman omen zion.

Gizonak, ori egin eta tabernan kontatzeko, gibela bear du. Bere ustez grazi aundi bat egin zuen. Nun ziran aren bezperetako abestiak eta bere emazteari buruz kantatzen zuen amorezko bertso ura? Orrelakorik ez degu ikusi, eta ala obe.

(El Diario Vasco, 1987-II-22)

ERREKA ETA IBAIETAKO ARRANTZA

Martxoaren 22'an izan zan erreka eta ibaietan arrantzu egiteko zabaldu zan baimenaren eguna. Ordurarte, dalako *veda* orrek galerazi egiten bait zuen.

Kañaberarekin arrantzu egiten duten arrantza-leak, egun ortan garaiz irtengo ziran beren etxeetatik eta egunsentirako an, erreka eta ibai ertzetan, prest egongo ziran, zerbait arrantzu egin asmoz. Ezer etxeratuko ote zuten? Gure ustez, ezer askorik ez.

Mendietako errekek garbiak egon litezke. Ori guk ez dakigu, joateko gauza ez gera eta. Baiñan ibaiak negargarriak daudela ez dezakegu uko egin. Ikusi besterik ez daukagu, gure etxe ondolik igarozten dan Oria ibaia. Orko kirats, zaborra, ur zikin

eta abar luze ori konta eziñezk a adegü. Nazkagarria dago benetan. Bestela, galde egin Iñaki Linazasoro gure adiskide zintzoari, eta bera guk diogunarekin ados egongo dala ziur gaude.

Ibaiak zikintze onekin, danok gera errudun. Bai etxebizitzetakoak eta zer esanik ez lantokietako nagusi asko eta asko. Oek dirua egin dute –berentzat noski–, baiñan aaztu egin zaie ibaia danona dala. Errez botatzen ditugu ur kutsatuak erreka eta ibaie-tara. Orrela jokatuz jarraitzen badegu, ez dago arrai-rik erreka eta ibaietan biziko danik.

Agintariak, irakurri degunez, neurri bereziak ar-tzekoak omen dira –onezkero artuak izango dira egunkariak iragarri zutenetik–, ur zikiñak uretara bota ez ditzagun; baiñan bildur gera, iñork "ni peka-tari" ez ote duen aitortuko. Ez ote zaigu gertatuko leengo arek, konfesatzera joan da pekatu ariñak ai-tortu eta astunak gorde zituen bezela? Ortan oiña-rritzen da gure bildurra, bai.

Garai batean, mutil koskorrak giñala, eta gero-xeago ere bai, ezagutu genituen, Oria ibaian, bargu, aingira, eskalu, loina, kangreju eta txirla ederrik. Gaur nun ditugu? Ez dira ikusten –galdu bait ziran–, eta itxaropenik ere ez daukagu berriro ikus aal izate-ko. Naiago genduke oker egotea iritzi au emate-koan, baiñan ziur gaude ori, zoritxarrez, ala gertatu-ko dala.

Orain berrogei ta amar urte paseak, Donostia'tik, urtero, Camps jauna erriratzen zitzaigun, *Fiel Con-traste* eginkizuna betetzera. Lan ori, erriko pisuak, eta baitare ardo, olio eta esne ontziak neurrian zuzen

zeuden ikustea izaten zuen. Dendari eta baserritarak an biltzen ziran, udaletxean, beren tresnak artuta.

Gure gurasoek, garai artan, udaletxeko ostatua erabiltzen zuten. Eltzen zan Camps gure etxera, eta gure ama zanari au esaten zion:

—Póngame, como todos los años, dos puñados de garbanzos a cocer. Los necesito para pescar.

Camps, bazkalondoan, arrantzu tresnak eta garbantzuak artu ondoren, mediku etxetik trenaren geltokira dijoan zubiaren erdian jarri eta arrantzan asten zan.

Gu, mutil koskorrak, bere ondoan egoten giñan, zer arrapatuko zuen ikusi asmoz. Arraiak izutu ez zitezen, ixilik egoteko eskatzen zigun. Ondo betetzen genuen agindu ori.

Geuk ere, udaran, eskolako oporketetan, amaika eskalu arrapatu izan genuen. Itzaineko baratzan kañaberak izaten ziran. Aiek ekarri, lista bat lotu puntan, gure anai Teodorok Ordizia'ko Exkalunen antzueloak erosten zituen eta pozik arrantzan aritzen giñan. Jolasteko era polit bat zan.

Camps jaunaren arrantzarekin jarraituz, esan bear degu, erabiltzen zuen kañaberak, eskutokian, txirrika bat zeukala. Andik manejatzen zuen arrantzarako aria, luze edo motzago erabilliz. Aldiz, aria berrogei metro ingururaino luzatzen zuen; eta, berrari ala komeni izan ezkerro, txirrikan bilduz, motzago erabiltzen zuen. Ala, barguak, *pikatu* zezaten, tentatu egiten zituen garbantzuari eltzeko, eta amuan erortzen ziran. Suerte pixka bat izan ezkerro, arran-

tzu saskia bete-beterik eramaten zuen Donostia'runtz.

Margolari bezela ere, jaun au ezaguna zan. Donostia'n ikusi izan ditugu bere erakusketak. Margolaritzan, gaur egun, Camps emakume batek jarraitzen du. Bere alaba ote dan uste osoan gaude.

Orain ogei ta bost urte inguru, azken aldiz, Camps jauna Tolosa'ko kasinoan agurtu nuen. Perretxiku leiaketa zan. Itsasondo'ko mutil koskor aietako bat ni nintzala esan nionean, bereala jabetu zan nitzaz eta besarkada bero bat eman zidan. Onezkero illa izango da eta Jaunaren pakean atsedenden dezala.

Hungriarrak ere, komedianta bezela, etortzen ziran gure errira. Erriko plazan zinea egiten zuten. Arrantzan etziran amutsak. Batez ere aingirak arrapatzen zituzten. Kañaberarekin lan ori egitea, guretzat arrigarri izaten zan.

Gure erritarren artean ere arrantzale apartekoak baziran: Ermentaritarak, Etxeberritarak, Eustakio zana eta abar luze bat. Iñor ez genduke baztertu nai. Kañaberarekin ibiltzen baziran ere, geienetan butroi edo kordelarekin saiatzen ziran. Illunabarrean bota eta egunsentian biltzen zituzten.

Milixio –ainbat aldiz aipa izan degun Milixio–*fuera de serie* omen zan. Ibaira salto egin, murgildu eta eskuz arrantza egiten omen zuen, erriko zaarrek diotenez.

Egun batez, Zelatxo'ko etxe parean –gaur botata dago etxe ori–, topo egin omen zuen mikelete bikote batekin, eta oek au esan omen zioten:

–Zu, Milixio, apartekoa omen zera murgillean arrantza egiten.

–Bai. Zatozte nerekin eta ikusiko dezute.

Eramaten ditu mikeleteak Zelatxo pareko burnizko tren zubi ondora, saltatu ibaira, murgildu eta an dator Milixio esku banatan bargu bana artuta. Mikeleteak arriturik gelditu omen ziran, eta esan ere bai:

–Zuk multa ez, baizik eta saria merezi zenuke.

Orduan ainbat arrai gure Oria'n, eta gaur zer? Igel baten kirriki-karraka otsik ere ez degu entzuten. Danak galdu ziran. Berdin gertatzen da ain luma politez jantzita ikusten genituen markinetekin ere. Bizi izateko arraia bear eta emen arrairik ez. Gure artetik anka egin zuten janari billa. Penagarria da. Ugaberek ere agur egin ziguten.

Ara modernismoak nora eramán gaituen. Ibaia plastiko biurtu digu. Orko pote, botilla eta zorro plastikozko! Gure arrai eta ur garbiak au etzuten merezi, ez.

Garai batean bazan
arrantik ugari,
ta bera izaten zan
askoren janari.
Orain begiratuaz
ibai, errekarri,
negarra sortzen zaie
gure begiari.

(El Diario Vasco, 1987-III-29 eta IV-4)

PAZKOAZKOA EGITEKO TXARTELA

Aurrak giñala, eta geroxeago ere bai, bi jaunartze berezi izaten ziran. Leenengoari, zazpi urte inguru-ekin egiten zanari, komunio txikia deitzen zitzaion. Amabi urte ingururekin bigarren jaunartzea egiten zan, eta onek bere izena komunio aundia zuen.

Bigarren au egitean, mutillak San Luisen kongregazioan sartzen ziran; eta neskatxak, berriz, Mariaren Alabenean. Gauzak orrela izanik, illero Jauna artu bear zan kongregazioko egunean, naiz eta au derrigorrezko ez izan. Pazko aldian bai –ortara Elizako legeek agintzen zuten– Jauna artu bear zan eta oni Pazkoazkoa deitzen zitzaion. Pazkoazkoa egin aurretik –au ere lege edo oitura bat zan–, txartela ar-

tu bear zan; eta, au eskuratzeko, bakoitzari, bere erriko parrokian, dotriñaren esamiña egiten zitzaion. Txartelak, urtetik urtera, kolorez aldatu egiten zituena parroko jaunak. Koloreak urdiñak, arroxak, berdeak, oriak eta abar izaten ziran. Gure erriko txartelak, bere atzeko aldean, urtero, abesti edo kantu au edukitzen zuen:

Deabruak oi digu
eragin pekatu,
eta konfesatzeko
gero lotsaz lotu.
Lotsagatik nai al du
iñork kondenatu?
Ez, ez, obe da orain
garaiz konfesatu.

Txartel ori artu eta gero, jaunartzean, beraren truk txuri-txuria ematen zizuten. Txartel txuri ori, Pazkoaz kunplitu zenuanaren justifikazio bat zan. Adibidez, zeruan sartzeko, gaur egun kotxearekin Europa'n zear ibiltzeko dalako *carta verde* bezelako dokumentu bat.

Jendea, geienean, larri izaten zan txarteletako esamiña ortan pasatzeko.

Guri ere eldu zitzaigun bere garaia eta, etxekoek bultzata, an joan nintzan txartel billa. 1935'eko Erramu bezpera zan. Don Jose Ganzarain erriko koadjutorearekin konfesatu nintzan. Txartela eskatu eta au galde egin zidan:

– Nor da Jaungoikoa?

– Da gauza bat esan eta pentsatu al ditequean baiño excelentegoa ta admirablegoa; Jaun bat infinitamente poderosoa, sabioa, principioa ta fiña gauza guztiena.

Erantzuera ondo nekien, Ernialde'ko Don Juan de Irazusta erretoreak ain *ederki* euskeratu zuen doctriñatik ikasita.

Txartela artu eta errian degun Kalea izeneko etxera joan nintzan. An nere arreba Epifani eta Luix bere senarra bizi ziran (g. b.). Ostatua zeukaten. Ontan, an dator Agarre baserriko Luxiano Aranburu. Ilzan eta Jaunagan pake izan dezala. Kontu kontari ari giñala, ala dio Luxianok:

– Luix, biar Pazkoazkoa egiteko asmotan naiz, baiñan txartelik ez daukat. Zillarrezko durorik ederrera baiño, naiago nuke txartela eskuetan banu.

– Luxiano –esan nion–, benetan duro bat ordainduko al zenuke txartela?

– Bai, motel, eta pozik gañera.

– Tori txartela, Luxiano, eta ekatzu duro ori.

Luxiano ganadu tratalari zan. Nik ere, egun artan, bere pare jokatu nuen. Ura txartelarekin kontentua eta ni ere bai, berak eman zidan duroarekin. Gero, etxeratzean, gurasoetatik erretolika ederra entzun nuen, baiñan duroa etzan auntzaren gauerdiko eztula eta...

Andik urteetara, igande batez, Lazkao'ko Aita Agapito, beneditarra, meza ematera gure errira etorri zitzaigun. Sermoian, Jesusek izan zuen tentaldia-ri buruz itzegin zigun. Aita Agapito, naparra zanez napar izketa erabiliz, au esanez mintzatu zan:

– Tentaldia ona da. Garaitzen jakin bear du, ordea. Tentaldia izan ez duenak baiño, tentaldia izan eta garaitzen jakin duenak, milla bider meritu geiago dauka.

Orduan jabetu nintzan, txartela saltzearekin, tentaldian erori nintzala. Geroz, Aita Agapito zanarekin, bein eta berriro sermoi ura komentatu izan nuen. Zeruan izango da eta lagundu dezaigula danoi.

(El Diario Vasco, 1987-IV-11)

ERRAMU EGUNA

Erramu igandeak ospe aundia du kristauen artean. Pazkoa aurreko azken igandea izanik, Aste Santuan sartzen bait gera.

Mutil koskorrak giñala, aurrak eta ez ain aurrak, nun erramu loretsuagoa billatu saiatzen ziran, bedeinkatzera eramateko. Beren etxeetan ez bazeukaten, korrituko zituzten inguruetako baserriak, erramu adar billa. Sarritan, adarrak baiño geiago ere izaten ziran. Ilusio aundi bat izaten zan nork erramu loretsuagoa bedeinkatzera eraman edo, bestela, nork adar aundiagoa elizaratu. Batzuetan, adar izenetik pasa ere egiten ziran, zugaitz aundi xamarren pareko ziralako. Bezperatik erramua etxera ekarri eta

bere azalean jabearen izena edo beste zerbait ezau-garri egiten zitzaion, norberak berea ezagutu izan aal zezan.

Guk ezagutu ez bagenuen ere –zaarrei entzunda dakigu–, gure erriko elizaren barruan jartzen omen zituzten garai batean erramuak, bedeinkatzeko. Aldiz, alakoxe adar aundi eta traketsak izaten omen ziran, elizako paretan kokaturik, kalbarioak erreztatze-ko izaten ziran lauki edo koadroak tapatzeraiño-koak. Ori orrela eginda elizako paretak ondatu egi-ten zirala-eta, eliz atarian jartzen asi ziran. Ain zu-zen, errian Pendize deitzen diogun lekuan.

Erramu bedeinkatuarekin gurutzetxoak egiten zi-ran. Santa Kruz egunean, kredoa erreztatuz, Kandelario egunean bedeinkatutako kandela piztu eta aren tantoak botatzen zitzaizkien gurutze oiei. Gero, gu-rutzeak, etxeko atalburu, ganbarako leioan, ikulluko zutabe nagusian, soroetan, baratzetan eta abar jar-tzen ziran, tximistak kalterik egin ez zezan. Ori orrela izanik, ekaitza, turmoia eta tximista sortzen zanean, sukaldeko suari erramu adartxo bat botatzen zitzaion, eta Santa Barbarari errezzatu ere bai, kalte-rik izan ez zedin. Gaur, penagarri bada ere, fedezko oitura on ori naiko galdua ote dagoen ustean gaude. Egiten dutenak izango dira eta jaso bitzate gure zo-rionak.

Urteak dira ondorengo au gure errian gertatu za-la. Eliz kanpotik prozesioa egiñez, apaizak bedeinkatu zituen Pendizean zeuden erramuak. Elizaratu ziran eta, mezak jarraitu zuen bitartean, mutil kos-kor batzuek –deabruak eraginda edo– an bota zituz-

ten erramu danak Pendizetik beera, Iturri-txiki eta Etxeberri'ko lizarraren ondoraiño. Berrogei metroko altura ortxe-ortxe egongo da. Jendea elizkizunetik irten eta erramuak falta. Ura deabrukeria, ura!

Garai artan, Azubi'ko Jose Manuel Otegi jauna zegoen erriko alkate. Onek ematen dio ordena Milixio, erriko aguazillari, pekatariak billatzeko. Asten da etxez-etxe eta baita azkar arkitu ere. Pare bat eskuetaratu zituen orduko, batak bestea salatu zuten.

Errian kartzelarik ez zegoen –nunbait itsasondotarrak, naiz ijitoak izan, onak gera– eta talde pekataria an sartu zuen Fernandoenea etxeak dauzkan azpiko lokaletan. An igaro zuten eguna, bazkaldu gabe, illuntzeraiño. Orduan etxeratu ziran eta apenas gogo aundirik zuten urrengo urtean, aurrekoan egin zuten gauza berdiña egiteko.

Erramuak artu ta
Pendizetik bera,
gazteak jotzen bait du
sari okerrera.
Milixiok eraman
kartzela batera,
pekatua eginda
bertan ordaintzera,
belarri makur gero
guztiak etxera.

(El Diario Vasco, 1987-IV-14)

LEEN BAI ETA GAUR EZ

Gaur egun degun bizitzaren martxak, ogibide asko eta asko porrot egitera eramán dizkigu. Traste zaarrak, kamioi edo kotxeak ez izanik, iñork ez ditugu konpontzen. Oek ere naiko baztertzen ditugu. Txatarretara bota eta an izaten dute beren azkeneko iñork aprobetxatu ezin ori. Danok gauza berriak eroñera jotzen degu eta tresna konpontzea erabat utzia daukagu. Leen, egunero erabiltzen genuen gauza bat matxuratzen bazan, konpondu egiten genuen; edo, bestela, ganbarara jaso, gaur edo biarko baliogarri izango zan uste osoan. Orain ez degu orrelakorik egiten. Ez duela balio? Leenbaileen gure begi bixtatik kendu eta kito.

Ori orrela izanik, nork ikusten ditu gure etxe aurreetan, garai batean bezela, txorroskilleroak, guardasol konpontzailleak, trapu zaar erosleak eta abar luze bat? Bukatu ziran ogibide aiek.

Txorroskilleroak an etortzen ziran ao-soiñu antzeko batekin *firuli-firula* joz eta noiz beinka "*¡El afilador!*" deituz. Bere inguruan an izango zuen bere leengusu edo anairen bat, "*¡El paragüero!*" deika. Ez ziran euskaldunak izaten. Uskeriren batekin jatordua egingo zuten eta, emen txanpon batzuk aurreratu ondoren, negurako beren etxeetara urbiltzen ziran.

Orain berrogei urte inguru gertatu zitzaidan ondorengo kasu au. An dator txorroskilleroa, zorrozteko bere tresnak kurpil aundi baten gainean dituela. Gallegoa zan.

Ofizinan erabiltzen genituen guraizeak naiko amustuak zeuden eta nere osaba zanak, nagusiak, zorroztu arazitzeko esan zidan. Eman nizkion txorroskilleroari, traturik egin gabe, eta an dator, bere lana bukatu ondoren. Amar minutu inguru iraungo zuen lan arek. Gazteleraz mintzatu giñan, baiñan euskeraz jarriko det.

–Zenbat zor dizut?

–Bost duro.

–Bost duro? Asko dala derizkiot.

–Begira –erantzun zidan–: ni leenengo maillako ofiziala naiz; eta, gainera, nere tallarrarekin zure etxeraiño etorri naiz.

Ordaindu egin nion. Andik urte batzutara, ikusi nuen bere bruxa luze urdin arraiatuarekin. Galde

egin nion lanarekin zer moduz zebillen eta erantzun au eman zidan:

–Oso gaizki. Beerakada aundia egin du. Jendeak, tresna zaarrak utzi eta berriak erosten ditu.

Euritakoak konpontzen zituztenak ere galdu ziran. Kaja batean ekartzen zituzten beren tresnak, guardasol ziri edo barilla batzuk eta, kajaren atzekaldean, ojalata zati aundi xamar bat, eltze eta kazuelen ipurdiak konpontzeko. Gaur, guardasol, eltze eta kazuelarik ez du inork konpondu nai. Berriak erosten ditugu.

Etxeetara etortzen zitzaizkigun traperoek ere agur egin ziguten. Gaur, gure etxeetan, ez daukagu aientzat ezer salgai. Balio ez duten gauzak zakarretara botatzen ditugu. Traperoek, txatarrarekin, guda ondorengo urte aiek oso onak izan zituzten, batez ere kobre eta burnia erosiz. Gaur, txatarra mailla aundietan erosten da, eta etxeetan biltzen saiatzeak ez du ogibiderik ematen.

Kinkilleroak ere ibiltzen ziran baserriz-baserri, beren ari, jostorratz, orratz, ispillu txiki, lapitz, tinta eta abar saltzen. Lantegi ontan, Juanito bat ezagutu genuen. Zapatari, gure erroko ostatuan, sarritan izan oi zan. Bizi ote da? Bizi bada ere, orain lantegi ortan ez du ogibiderik izango.

Ara nundik eta nola etorri zaigun lantxo au idazteko gaia: leen bai eta orain ez.

(El Diario Vasco, 1987-IV-17)

LETANI, ERROGATIBA ETA KONJUROAK

Igaro ziran San Markos eta San Prudentzio jaiak. Leenengoari buruz, ala dio esaera zaarrak: "San Markos, artoak ereinda balegoz". San Prudentzioz sekula ez degu esaera zaarrik entzuteko aukerarik izan, baiñan bai lazkaotarrek –beren Zaindari eguna– naiko elizkizun, tripa-festa, soiñu, dantza, kirol eta abar ospatzen dutela. Araba'n, probintziako Zaindariaren eguna dutelarik, besteak beste, neguan lozorroan egon diran karakolak jateko oitura omen dute. On egin dizuela.

Aipa ditugun bi jai oien ondoren, Elizak otoitz bereziak asten ditu, laguntza eskariak egiñez. Ara oietako iru.

Letaniak. Gure errian Urkia ballara daukagu, eta bertan ermitatxo bat dago, Gurutze Santuari eskeiñia. Urtero, maiatzaren 2'an -festa bezpera Urkia'n-, letaniak abesten ziran erriko elizatik ermitarra bitartean. Bein badijoaz akolitoa zillar kolorezko gurutzea eskuetan zuela eta apaiza roquete txuriarekin eta estola lepotik beera jarrita. Beren atzetik erritarrak omen zijoazten. Apaiz jauna liburutik letaniak kantatu eta erriak erantzun. Orrela omen zan prozesio edo dalako zer ura:

Apaizak:

-Sancte Michael!

Erriak:

-Ora pro nobis!

Apaizak:

-Sancte Gabriel!

Erriak:

-Ora pro nobis!

Ontan, Abade-iturri edo Oiaola tartean, irtetzen da alako aize zurrunbillo gogor bat, apaizaren liburuko orri guztiak naasten dira eta apaizak, larri artan, au esan omen zuen:

-Sancte Dana-dala!

Erriak:

-Ora pro nobis!

Erriko zaarretatik jaso degu kasu au. Egia? Gezurra? Jainkoak jakin. Guk ezin baieztatu, ez giñan an eta.

Errogatibak. Oek ere izaten dira, euria edo eguzkilea eskatuz. Bakoitzak berea beti gogoan izaten du. Aurten ere, dagoeneko, asiak dira lurra erabat

legortu dala esanez. Iru edo lau eguneko egoaizea izan degu eta danok, beroaren berroz, ia itoan gaude. Errogatibak bear ote dira goiko iturri oiek irikitze-ko? Gurekin asmatuko duen Jainkoa ez da motela izango. Ez orixe!

Goierriko erri batean gertatu omen zan ondoren-go au. Errogatibak ez dakigu euria ala eguzkia eskatzeko ziran. Erritarren artean abogadu baten emaztea omen zijoan, eta onek *ez* eta *bai*'k indarra izan zezatela eskatzen omen zuen. Ortik bere senarrak ogibidea bait zeukan. Bakoitzak, leen eta orain ere bai, arre bere astoari egiten dio. Au mundua edo mundutarrak!

Konjuroak. Gaur naiko galduak badaude ere –izango dira egiten dituzten erriak–, konjuroak egiten ziran ikulluetako ganaduak osasuntsu izan zitezten eta lurra emankor izan zedin. Errezu oen ordaintza bezela, apaiz jaunari zerbait opari ematen zitzaion.

Urte batean, erriko apaiz jaunak, gaixo xamar edo zerbait zaartu zalako, konjuroak eliz ataritik egin omen zituen. Andik aldi batera, topo egiten du Zugaitzpe baserriko nagusiarekin eta ala dio erretoreak:

–Patxi, aurten elbarri xamar nabil eta konjuroak eliz ataritik egin nituen.

–Ba, don Nemexio, guk ere oillasko pareta mandio-ko atetik bidali genuen, "Zoazte erretore etxera!" esanez.

(*El Diario Vasco*, 1987-VI-5)

SAN ANTONIO

Gaur, ekainaren 13'an, ospatzen degu Padua'ko San Antonioren egun berezia. Naiz berez Lisboa'ko semea izan, Padua'koa deitzen diogu, bere azken arnasa emen eman zuelako. Bere bizitzaren liburua irakurriz, ikusten degu 1195'garren urtean jaio eta 1231'ean il zala. Beraz, gazterik il zan, ogei ta amasei urterekin.

Egiten dituen mirariez oso ezaguna degu. Apartekoa omen da mutillari andregaia billatzen eta oni, neskatxari, berak bear duen aukerako ezkongaiak arkitzen. Laguntzaille ikusgarria omen da galdutako gauzak berriro eskuratzeko argia ematen, eta orrela beste kasu askotan.

Euskaldunok benetan maite degu San Antonio eta, ori dala-ta, gure aurrekoek egiñik, an daukagu eliz eder bat, Bizkai'ko Urkiola gaiñean. Gaurko egunez jendetza aundia bildu oi da Urkiola gaiñean, batzuk eskariak zuzentzera eta besteak eskerrak ematera joanak. Aurten ere joango dira eta osasuna izan dezatela, datorren urtean ere mendi gaillur artan biltzeko. Euskal Erriko elizetan ikusten dira berari egindako aldareak; eta, ori ez bada, bai beintzat ikusiko dezute bere iruditxo bat, an edo emen jarria.

Esan degu ezkongaiia aurkitzeko apartekoa dala eta ara kasu bat. Neskaxa batek nobioa nai omen zuen eta egin dio bederatziurrena Aita San Antonio-ri. Iritxi da San Antonioren eguna eta neskatxak se-nargairik ez. Berotzen da neskatxa, jartzen da amorrubizian eta etxeko balkoitik beera botatzen du San Antonioren lauki edo koadroa, "Zoaz aizea artzera!" esanez.

Ontan, kalean zijoan gazte bat jotzen du buru gaiñean, eta aserre bizian an dijoa mutilla neskatxaren etxera, kuadroa eskuetan duela, marmarra batean, neskatxari kontu artzera, egin zuen astakeriarengatik. Neskaxak mutilla artzen du goxo-goxo, eramaten du bere sukaldera, kontatzen dio kasua, eskeintzen dio kafetxo bat eta asten dira kontu kontari. Mutilla ere andregairik gabe omen zegoen eta, andik eta ara, bien arteko ezkontza sortu omen zan. Ara San Antoniok nolako miraria egin zuen.

Urkiola'n, San Antonio egun batez, bi gizon, ordurarte alkar ezezagunak, guztiz adiskide egiten dira. Erabakitzen dute alkarrekin bazkaltzea, eta egin

ere egiten dute. Naiko kontua alkarrekin esan ondoren, agurtzen dira urrengo urterarte, "Suerte ona izan!" esanez. Urengo urtean biak topo egiten dute eta asten dira alkarren gorabeerak kontatzen. Alkarriketa orrela izan omen zan:

–Ba, Iñaxio, San Antonioren eskerrak ematera etorri naiz. Gure beiekin oso suerte txarra izaten nuen. Bei danak *bueltatu* egiten zitzaizkidan. Santuari eskaria egin nion eta geroztik gure ikulluan bada txekor ederrik. Oso kontentu nago.

–Guk, berriz, ez degu orrelako zorionik izan. Alaba zaarrena, aurten zortzi urte, etxera ezkondu zitzaidan. Arek, bere senarrak eta guk, guraso zaarrek, aurtxoak nai eta ez dute konsegitzen. Bitartean, alaba gazteena, ezkongai, aurdun gelditu zaigu. Nunbait, San Antoniok nere eskaria ez zuen ondo jaso. Berriz eskean etorri natzaio.

Ondorengo kasu au errian bertan neronek gertatua da. Igande arratsalde batez, nere ama zanaekin, bere adiskide amonaxo bat bixitatzerako baserri batera joan ginen. Baserriko txerritegian an zegoen txerrama bi txerrikumerekin, ondoan San Antonioren irudia zeukala. Alboan kandela bat piztuta zeukan. Ala esan zigun amonaxo arek:

–Bi txerrikumerengatik ez du merezi txerritegian kontu artzen egoterik. Dana San Antonioren eskue-tan utzi det eta berak bedeinka ditzala.

Ez dakit zer erresultadu eman zuen, baiñan amona aren fedea benetan txalogarria zan.

(*El Diario Vasco*, 1987-VI-13)

SAN LUIS

Gaur, ekainak 21, Gonzagatar Luis Santuaren eguna ospatzen degu. Ogei ta iru urte zituela il zan, 1591'ean, Erroma'ko izurrite edo peste aundian lagun urkoari laguntzeagatik.

Ain gazterik il zalako, gaztediak bere Zuzendari edo Patroi bezela artua izan zan. Ori ala izanik, gure buruko artxiboa aztertuz, gure gazte denborako gauzatxo batzuk idaztera natorkizu, irakurle. Ez dira gaur goizekoak, ez.

Jaunartze nagusia egindakoan –komunio aundia deitzen zitzaion–, mutillak San Luisen kongregazioan sartzen ziran. Ori, gure errian bezela, bestetan ala egingo zan ustean gaude.

Gure errian, kongregazioko eguna illaren bigarren igandean ospatzen zan. Goiz mezan –udaran zazpiretan eta neguan zazpiterdietan–, jaunartzea izaten zan eta arratsalde, bezperetan, elizkizun bat. Kongregazioaren juntakoek, ezaugarri bezela, zinta txuria izaten zuten San Luisen medallarekin; eta besteek, medallarekin, zinta urdiña.

Ekainean, San Luisen eguna tarteko zala, bederatziurren bat egiten zitzaion illunabarrean. Bere eguna aste egunez bazan, urrengo igandean ospatzen zan elizkizun berezi batekin.

Urte guztian, San Luisen irudia, gure elizako eskubi aldeko ormak zeukan nitxoan egoten zan. Bederatziurrenerako, irudi ori nitxotik jetxi, apaindu bat eman eta andetan jartzen zan. Ala, egunero, bederatzi egunez, elizkizuna egiten zan.

Bederatziurrenean abesten zan kanta onela zan:
Koruak:

Gazteak umil zugana gatoz,
Gonzagatar Luis Santua,
zure antzekoak izan gaitezen
arren iguzu eskua.

Milixioren soloa:

Zure pekatu guztiak ziran
bi utsegite ariñak,
eta oriekgaitik egin dituzu
minduraz negar samiñak.

Eta nik berriz baditut ere
aundi ta asko egiñak,
biotz gogorrez miñik ez dute
nere begi ta mingaiñak. (Bis)

Koruak berriro:
Gazteak umil...

Gauza batek arritzen gaitu eta, naiz azterketak egin, ez degu gauza garbirik jakin aal izan. Begira: bederatziurrena euskera utsean izanik, egun batean bai eta bestean ez, gaztelerazko kanta au abesten zala:

Koruak:

*Pide a Dios que yo te imite,
santo joven Luis Gonzaga.*

Milixioren soloa:

*Dos que tú llamabas culpas,
que fueron, ay!, tan amargas
que mientras duró tu vida
no cesaste de llorarlas.
Y yo mis culpas no lloro
siendo tan graves y tantas.*

Koruak berriro:

Pide a Dios...

Bederatziurrenaren egun berezi ori irixten zanean, goizean jaunartzearekin eta arratsalde bez-

peretan bukatzen ziran San Luisi egiten zitzaizkion gorespenak. Erriz kanpoko sermolaria ekartzen zan. Jaun onek, tartean latinezko itzak sartuz, bein eta berriro aipatuko zituen santu aundi onen kristautasuna, garbitasuna, umildadea, maitasuna eta abar luze bat. Itzaldia bukatzean, artu San Luisen estandartea, bere irudia ere bai andetan, eta an joaten gihan zimitorio txikitik irten eta pelotalekutik barren prozesioan, eta zimitorio nagusitik berriro elizara.

Galdu ziran fedezko oitura on aiek. Berriro elduko ote dira? Ala balitz, zer zoriona!

Alaitasuna gazteen artean izan zedin, zerbait festa ere egiten zan egun ortan. Danak ezin zerrendatu, luze joango litzaiguke eta. Gaztedia luzaro San Luisek gorde dezala eskatuz, auxen diogu gure partetik: amen!

(El Diario Vasco, 1987-VI-21)

PIRAGUA

Gure erriko Intxaurrondo etxean, garai batean, taberna ezagutu genuen. Taberna arek, ezaugarri bezela, Donostia'n erosita, bazuen letrerotxo bat, *La Palma* idatzia zeukana. Bertako bezeroak paseatzeko, dibertitzeko-edo, intxaurrondotarrek txalupa txiki bat zuten, gu aurrak giñala.

Intxaurrondo'k, orain ekonomatoa deitzen zaion denda ori dagoen lekuan, baratzatxo bat zuen. Baratza orrek, ibai aldetik, sei zazpi makal zugaitz zituena, eta aietako bati lotua egoten zan txalupa. Ugoldea izaten zan bakoitzean, dalako txalupa ura urak eramaten zuen. Billatuaren poderioz, arkitu izan zuten, bai Legorreta'n eta baitare Ikaztegieta'n.

Ugolde batek, bein, eraman zuen nunbait Orio'raino, eta geroz ez da izan txalupa aren aztarrenik. Txalupa ura izan zan guk leendabizi ezagutu genuen ur gainean ibiltzeko tresna.

Itzaiene deitzen zaion etxean, bertako seme Jon zanak, lantokiko orduz kanpo, erritarrak apaintzeko, bizartegi edo pelukeri bat zeukan. Sarritan, kontu kontari, an biltzen ziran bere lagunak. Egun batez, lau lagunen artean, piragua bat egitea erabaki zuten. Azionista oek ziran: Andoni Sarasola, Joxe Jauregi-guretzat Joxe Kaxeta-, Itzaiene'ko Jon Garmendia (g. b.) eta gure anai Teodoro Lete.

Joxe Kaxeta'k Donostia'n zurgintzan lan egiten zuen. Bere gain artu zuen piragua egitea, eta egin ere egin zuen. Piragua orrek zurezko listoiekin egiña zuen armazoaia, eta gain eta azpi olana zeukan, gaztelerazko *lona*. Joxek bukatu zuen bere lana eta larunbat illunabar batean, *Transportes Zeppeliñ*'ekin Itsasondo'runtz an biali zuen bere arte lan ura. Piragua gure ostatuan Zeppeliñek utzi zuelarik, bazuen nork begiratua eta ikusmiratu bearra. 1934-1935 urtea izango zan. Ez da gaur goizeko kontua.

Piragua txuriz pintatu zuten. Izena jartzeko naiko buruauste erabili zuten. Begira: lau sozio ziralarik, bakoitzaren abizenetik bi edo iru letra artu eta orrela atera zan izena: *Sagarjale*. Sarasola'tik, *Sa* artu; Garmendia'tik, *gar*; Jauregi'tik, *ja*; eta Lete'tik, *le*. Garai artan, euskal nazionalismoa puri-purian zegoen eta azkenik *Aberri* edo *Euzkadi* izena jarri zioten. Ziur ez gaude, baiñan bietako bat jarri ziotela zin egingo genuke.

Piragua ura ureratu zuten, eta ura zan ikuskizuna, ura! Aldiko bi lagun ibiltzeko lekua zeukan. Zubi azpitik Errota'ra joan-etorria nork azkarrago egin neurtzen ziran. Guretzat, leiaketa ura ikustea, gaurko Cambridge eta Oxford'en arteko estropada ikustea bezin interesgarri zan.

Neronek ere bertan ibili nai izaten nuen; baiñan, elbarri nengoelako, etzidaten uzten. Piragua ura iñoiz irauli egiten bait zan, eta nik igeri jakin ez. Negar eta arrantza pranko egin nuen nere gogo ura bete naian, baiñan dana alperrik izan zan.

Ibarre'ko Ximon (g. b.) piragua artan zuti-zutik ibiltzen zan. Bi anak erreumarekin naiko baldatuak zeuzkan, baiñan jaun arek igeri oso ondo zekien eta nik batere ez. Esanak esan, neri ori buruan etzitzaidan sartzan, eta ortik izaten ziran nere lantu eta negar aiek.

Gerrate garaia etorri zan eta Nafarroa'tik etorri ziran mutillen eskuetan izan zuen azkena piragua arek. Bertan ibiltzeko danak prest, baiñan konpontzeko iñork etzion esku bat bota izan. Ara alako ilusioz egindako piragua arek zer bukaera izan zuen.

(El Diario Vasco, 1987-VII-9)

BAZTERRIK BAZTER

Eskolumeak giñala, urtaro au etortzeko adi adi egoten giñan, oporketak garai ontan izaten ziran eta. Orain ere ala izaten dira.

Gure maixua, arabarra, euskeraz itz bakar batzuk zekizkiena, Don Marcos Pérez de Mendiguren genuen. Ondoren kontatuko ditugun gertakizun oek, gutxi gorabeera orain berrogei ta amabost urte ingurukoak dira. Maixu jaunaren semea gurekin eskolan ibiltzen zan eta, udaldean sartzean, urtero galdera au zuzentzen genion:

–Jexux, *barkazioak* noiz dizkiagu?

–Etzekiat, aitak ezer ez dit esaten eta. Jakin bezin laster esango dizuet.

Ala, uztailleko egun batean, Don Markosek au esaten zigun:

—*Mañana, por la tarde, tenéis los exámenes y los premios.*

Ura poza gurea!

Eskolaratzen giñan, esandako egun ortan, aal zan garbi eta txukunena apainduta, nola soin ala jantziz. Etortzen zitzaizkigun erretore jauna, alkate jauna, iru edo lau guraso, eta esamiña egiten ziguten. Talde onek *Junta Local de la Escuela* zuen bere izena. Azterketak egiten zizkiguten eta danok, gutxienez, *aprobau* nota izaten genuen. Orduan ez zegoen gaur bezelako errekupeziarik egin bearrik, eta guretzat obe.

Esandako jaun oek eskola uzten zuten, eta Don Markosek, *Galletas Olibet* ojalatazko kaja kubiko bat iriki ondoren, bertatik, banean-banean, galletak partitzen zizkigun. Lau edo bostna eman ondoren, galletak sobratzen baziran, bi galleta eskuetan artu eta orrela mintzatzen zan:

—Au, ama. Au, aita.

Orrela esan nai zuen bat amarentzat zala eta beste aitarentzat. Eskerrak eman, Don Markos agurtu eta bakoitza bere etxera joaten giñan.

Ain gogozko *barkazioak* irixten ziran eta orduan beti etxe zuloan sartuta ezin egon, eta bazterrik bazter asten giñan. Deabrukeria pranko izaten zan.

Goiz partetik etxe inguruan ibiliko giñan. Amari enkarguak egin, sutarako egurrak etxeratu, senide txikiagoak zaindu eta abar. Baiñan, arratsaldez, nork gu errenditu?

Neska ta mutil adin berdintsukoek taldeak osatuz, Kontzejuko etxe azpian biltzen giñan. Etxe azpi ontan, makalak deitzen genien zugaitz eder eta mar-dulik bazan garai artan. Gerora, gogoan daukagu, Oñati'ko zurgin lantoki batera saldu ziran, otorduetan maian erabiltzen diran zurezko txotx oiek egiteko. Erderazko *palillos de dientes* oietakoak, alegia. Aipatu degun etxe azpi ortan, beraz, izaten zan gure juntaizioa.

Mutillek, apain egoteko balio etzuten prakak jantzi, xaarrak alegia, lixta edo lasto pardoaren alabrearekin lotu eta igeri egiten zuten. Garai artan, nornaik ez baizuen izaten *taparrabos* oietakorik. Jantzi mota au "odol urdiñezkoentzat" izaten zan, eta gure artean etzegoen *hijo de papá* deitzen zaien oietako bakar bat ere.

Gogoan degu, egun batean, mutil koskor batek esan ziguna:

–Aitak esan zidak igeri ez egiteko, urak meetu egiten duela eta. Urak gorputzeko aragiak jan egiten omen dizkik eta.

Beste batek, berriz, bere aitaren sententzi au agertu zigun:

–Aitak esan zidak, igeri ikasi arte ez didala igeri egiten utziko.

Leendabizikoari *paso* emango diogu, baiñan bigarren au nola jaten da?

Ibaian preskatu ondoren, tomate poteak betetzen zituzten mutillek Oria ibaiko kangrejuekin, eta Kontzejuko etxe azpira ekarri. Gaur, irakurle, sar zaitez ontara eta ez dezu kangrejurik ikusi eta arra-

patuko. Danak galdu ziran. Ur ortan sartzen bazera, sida baiño gaitz gogorragoa arrapatzeko arriskua daukazu eta kontuz ibili.

Neskatx matxardak ere baziran taldeetan. Oek, neskatxek, sagarrak arrapatzen zituzten eta beren taldera ekarri. Estimazio ederra izaten zuen Kanposene baserriko sagastian zegoen amairugarren sagarrondo arek. *Ixkimixki sagarra* deitzen genion. Oso gusto onekoa zan.

Dalako Kontzejuko etze azpi ortan, *ekonomikak* egiten genituen, ibai ertzeko ondar busti eta arriarekin baliatuz. Ura zan *lanposteri* lana, ura! U baten forma zuten su egiteko tresna aiek. Iru orma eta aurreko aldetik batere ez. Gaiñean, parrilla bezela, arbelezko tirak jartzen zitzaizkien.

Gero, sua piztu, eta aurretik ekarritako Beiti'ko iturriko uretan kangrejuak egosi eta jan egiten genituen. Sagarrekin ere berdintsu. Parrillean jarri, ke artean belztu bat eman eta jan. Alare, dijestioa egiteko, ez zan bikarbonatoren bearrik izaten.

Gure ama zanaren aita, gure aitona beraz, Juan Martin Sarasola Goitia (g. b.), gizon ona eta oso zugaitz zalea zan. Dotoreago izateagatik-edo, *abuelo* ere deitzen genion. Mutil eta neska koskorrak, bidean berarekin topo egitean, "*Ave María Purísima*" esaten genion, eta paxientxi bana ematen zizkigun.

Egun batez, geren koziñamentu oiek egiten ari giñan eta, zotzak ezeak zeudelako-edo, nunbait ke asko sortu zan eta gure aitona jabetu. An dator guregana suak arturik. Bereak eta bi esan zizkigun. Kearekin zugaitzak igaru egingo zirala eta, suak

itzali ondoren, andik anka azkar batean egin bearrean gertatu giñan.

Biarmona etorri zan eta koziñamentuak egiteko gu berriro prest. Ontan, ala dio Kaxeta'ko Pepitok:

–Guk etxean bazeukagu sonbrilla txuria, eta ura ekarriko diat keari eusteko.

Ekarri zuen dalako sonbrilla ori. Sua piztu ere bai; eta aizeak nora jo, kea ere aruntza joaten zan. Pepito jira eta buelta an ibilli zan beren sonbrillarekin, keari ezin eutsirik. Txuria ekarri bazuen ere, etxera ondo belztua eraman zuen. Gau artan, *dale-fuerteak* izango zituen noski.

Aienak ere erretzen genituen. *Kaña*, *Bambú* edo *Zig-Zag* zigarro paperean bildu eta zigarro itxura artzen zuten. Txortak erretzen geroxeago asi giñan.

Ni neu ere ez nintzan santua, ez. Deabrukeriak gogozkoak nituen, baiñan egiteko gauza ez. Erakutsi zigutenez, pekatu egiteko, intentzioa naikoa omen da eta orrela, nik ere pekatari nintzala aitortzen det. Gero, illunabarrean, apillaketan edo pote jokuan saio bat egin eta lotaratzen giñan.

Gaurko aurrak, ordukoetatik, oso desberdin jolasten dira. Futbola, futbitoa, telebista eta abar maitte dituzte. Orrela ez dira *bazterrik bazter* ibiltzen. Ara gauzak nola aldatu diran.

(*El Diario Vasco*, 1987-VII-21 eta 28)

SAN INAZIO

Liburu Santuek diotenez –orrelatsuko itzak erabiliz asten zuten garai bateko sermoilariak beren jardunaldia santu baten bizitza kontatzekoan–, Loiola'ko Inazio Deuna 1491'garren urtean jaio eta 1556'garren urtean Erroma'n il zan. Beraz, bere eriotza eldu zitzaionean, irurogei ta bost urte zeuzkan. Ez degu esango gazterik il zanik, baiñan ezta ere zaartua il zala. Ikus, bestela, gaur egun zenbat pertsona irixten diran adin ortara.

Bere gaztearoan biurri xamarra izan bazan ere, gerora, erabat damaturik, Jesukristoren serbitzari leial biurtu zan. Bere morroi, alegia. Jesusen Lagundia berak sortua da, eta baitare Gogo-jardun edo

Ejertzioak. Gipuzkoa eta Bizkai'ko Zaindari bera degu. Bere azken arnasa uztaillaren 31'an eman zuen. Orrela, aurten 431 urte bete dira.

Loiola'ko Ejertzioetan iñoiz izan gabeak gera, baiñan bertan izandakoei entzun izan diegu ango sermoiek ezurretaraño bildurra sartzen zutela. Sermolaria, kulpitutik, asten omen zan zeru, purgatorio, inpernuko su, loikeri, lapurreta, alkar maitasunik eza, diru gosez eta abar luze batez mintzatzen. Entzule danak, ixiltasun aundiz, bakoitzak bere barruko utsegiteak arreta eta gogoz aztertuz egoten omen ziran. An ez zegoen bromarik. Danak estu eta larri. Ala kontatu izan digute an izandakoeak, eta egia dala benetan sinisten degu.

Aste bete osoan irauten omen zuten Gogo-jardunek. Bein Loiola'ko santutegian sartu ezkeru, aste guztian danak mutu, itzegitea debekatua zegoelako. Alkarri egun onak emateko ere ez omen zan eskubiderik izaten. Danak ixilik.

Janlekuko maiak bi lagunentzakoak izaten omen ziran. Beti lagun berdiñarekin maian eseri bear. Jan eta beti mutu, sermoian entzun zutena pentsatu eta pentsatuz.

Aitona batek, bein eta berriro, ondorengo kasu au kontatzen zuen. Goiz parteko sermoian penitentzia nola egin esan omen zien sermolariak. Adibidez, zigarro gutxiago errez, otorduetan ardo gutxiago edanez, belauniko amabost misterioko errosarioa errezatuz eta abar. Joan omen ziran bazkaltzera eta, besteetan, ardo botilla, bi lagunentzat, erdiraño betea egoten omen zan eta egun artan goraiño betea

omen zegoen. Ontan, bere maiko lagun naparrak orrela esan omen zion:

–Edantzu, edantzu. Au jartzen dute gu proatzeagatik.

Biak garai artan gazteak izan eta botilla *¡limpio!* utzi omen zuten. Zertara joan ziran Ejerzizioetara? Ori sekula ez zigun aitortu.

Beste kasu au gure osaba zan batek (g. b.) kontatzen zuen. Ekain illa omen zan. Mutil gazteentzako Gogo-jardunak Loiola'n. Leenengo egunean, naiko eguraldi euritsua. Bigarrenean, lainoak zerbait meetu ondoren, eguzkia poliki berotzen asi omen zan. Irugarrenean, eguzki eder eta beroa goizean goizetik. Orrela mintzatu omen zitzaion sasoiko mutil bat:

–Anima salbatzea ona izango da, baiñan penagarria litzake datorren neguan gure ikulluko beiak goseak iltzea, eta ni banoa belarrak ebaki eta ontzera. Aio!

Danak ez ziran, ordea, naparra eta bere beiekin bakarrik pentsatzen zuten oietakoak izaten. Ejerzizioei probetxu ederrik ateratzen zietenak ere izaten ziran. Ala bear ere.

San Inazioaren himno edo martxa ez dakigu nork idatzia dan musika eta letraz. Nola bat ala bestea, gure iritziz, ederrak dira. Abestiaren azken itzetan ala dio:

Gau ta egun
guk, guztiok, pakea dezagun,
beti gau eta egun.

Orduan ere pakea eskatzen zuten, eta gaur ere ori
nai degu. San Inaziok ekar dezaigula ain bearrezko
degun pake ori.

(El Diario Vasco, 1987-VIII-1)

SERMOIAK

Ezagutu genuen garai bat, jai aundi bat ospatzen zalako edo erriko festak ziralako, kanpo erritik sermolaria ekartzen zana. Orrela, Meza Nagusiek ospe aundiago izaten zuten.

Lan au idazten ari geran egunean, San Bartolome eguna degu eta Goierriko erri batean gertatua burura datorkigu.

Begira: dalako erri ortan, diogun santu ori daukate erriko Zaindari. Festa bezperan, asi dira erreto-re jauna, sakristaua eta serora santuaren irudiari garbitasun eta txukunketak egiten. Irudia, zurezkoa, naiko zaartua zegoelako, pipiak erabat jota omen zegoen; eta, apainketak egiten ari zirala, irudiaren le-

poa austen da eta santua, eskuetan, lepomotz gelditzen zaie. Zer egin? Ala dio sakristauak:

–Santuaren irudirik gabe ezin ospatuko degu San Bartolomeren eguna eta biar goizean neroni jantziko naiz San Bartolomez; eta leengoaren itxura artzeko, aurpegia eztiz igortziko didazute. Onen berri inork ez dezala jakin. Eginkizun au *bajo secreto de confesión* izango da. Irurak ados jarri omen ziran.

San Bartolome goizean, eguraldi beroarekin, Meza Nagusia baiño ordu erdi bat leenago, jartzen da sakristaua, tente!, aldare nagusiko San Bartolomeren nitxoan. Eltzen da sermoiko garaia eta ala dio izlariak:

–Aldareko apaiz agurgarriak, erriko agintari leial eta zintzoak, nere biotz barruko kristau maite-maiteok: gaur egun berezi bat dezute erri ontan. Milan'go Katedralean daukaten irudian, garbi ikusten da San Bartolome, bizirik zegoela, nola larrutu zuten. Nun santu aundiagorik?

Bitartean, sakristauari, bere aurpegira, urbiltzen zaio erle, liztor, elbi eta eltxo multzo bat, eta an dago aien eztenkadak eta zulatuak ezin aguantaturik.

Jarraian ala dio sermolariak:

–Bizirik larrutu bazuten ere, bera gaur ikusita, esan liteke bizi-bizirik daukagula aldare santu orretan. Begiratu bere aurpegiari. Begiratu bere gorputzari. Itzegiteko prest dagoela dirudi.

Ontan, bero-bero eginda, ala dio sakristauak:

–Mugitu bakarrik ez. Itzezin ere egingo det. Nere aurpegian dabiltzan bitxo oekin ez dago egoterik eta ni banoa. Berorrek ere orixe egingo luke!

Salto egin aldaretik eta, bere kapa gorria tarra-sean zuela, an joan omen zan sakristira. Amonak, arriturik, sermolaria berdin, ala omen zioten:

–*¡Milagro! ¡Milagro!*

Apenas sakristaurentzat milagrorik izan zan. Zortzi egun luze etxetik irten gabe igaro omen ziotuen, aurpegia ezin sendaturik. Aiek festak, aiek!

Ondorengo kasu onek ere sermoiarekin zer ikusia du eta kontatzera gatozkizu, irakurle. San Migelatan erriko festak zituztela eta erriko erretore jaunak zuzentzen dio karta bere adiskide bati, sermoia egiteko etor zedin. Onela omen zion eskutitzak: "Amarretan meza nagusia izango dek. Etor adi sermoia egitera. Dokumentuak ekartzea ez adi aaztu". *Dokumentu* itzarekin esan nai zion muserako kartak ekartzeko.

An dator sermolaria, baiñan berandu. Nunbait orduarekin naastu egin zan.

Sartzen da elizan eta mezetako *Gloria* abesten ari omen ziran. Joaten da sakristira, jazten du roketea eta an dijoa pulpitora. Bere kopetako izerdia kentzeko, asten da mukizapia ateratzen eta, onekin batera, deskuido, an dijoaz kartak meza entzuleen artera. Ontan, ala dio:

–I, mutiko: zer karta dek ori?

Mutikoak:

–Bateko urrea.

Beste bateri:

–Ta ori zer dek?

Beste mutikoak:

–Zazpiko ezpata.

–Ai, kristau maiteok! Garbi ikusten da zuen aur
oei kartetan obetoago erakusten diozutela, dotriña
santuko amar agindu, artikulu fedekoak eta abar
baiño. Dotriña, dotriña bear degu, eta kartarik ez!

Estuasun artatik orrela libratu omen zan sermola-
ria.

(El Diario Vasco, 1987-VIII-27)

MILIXIO ETA DIRUA

Aurtengo iraillaren 20'an, il artako 24'eko gure lantxoan genion bezela, bertso jartzailleok, egunkari onek konbidatuta, Arantzazu'ko Goiko Benta jate-txean bildu giñan bazkari on bat egiteko.

Bazkaldu eta kontu kontari asi giñanean, Sebastian Salaberria ernaniarrak au esan zidan:

–Zu, Jexux: bukatu al zitzaizkizun Milixioren gertakizun aiek? Pozik irakurri nituen. Idatzi itzazu, besterik baldin badakizu.

–Nere ustez, geienak, Xebastian, jarriak ditut; baiñan saiatuko natzaizu ea nere buru ontako artxi-boan zerbait arkitzen dedan.

Azterketa egin det eta, gaurkoz, oetxek datozkit nere burura.

1936'garrengo guda txar ura eldu zanean, Aurrezki Kutxa eta Bankuek gaztelerazko bloqueo de cuentas dalako ori egin zuten.

Bazuen bere arrazoia. Onegatik edo orregatik, Franco'ren gogozkoak ez ziranak multatuak izan ziran. Askok uste zuten, tonto papera edo bizkarrari eragin da libre izango zirala, zerga edo multa ori ordaindu gabe. Au ez gertatzearren izan zan diogun *bloqueo de cuentas* ori.

Gaurko gazte askok ez dute jakingo au zer zan eta garbi esan dezagun. Aurrezki Kutxa edo Bankuetatik ez zeukazun dirurik eskuratzerik, Franco'ren aldekoa ez baziñan. Multa ez ordainduan, Aurrezki Kutxa edo Bankutik kobratzen zizuten, zuk zeukazun dirutik kenduz.

Milixio *adicto al Glorioso Movimiento* zan. Egun batez, etxean zerbait diru bear eta joan omen zan orduko Villafranca de Oria'ko Aurrezki Kutxa Probintzialera, milla erreal etxeratu asmoz. Bere aurretik gizonezko bat omen zegoen eta onek dirua sartu Aurrezki Kutxan. Eldu zaio Milixiori bere txanda. Berak gazteleraz kontatzen zuen eta ala jarririko degu.

–*Dame mil reales.*

–*No le puedo dar. Las cuentas están bloqueadas.*

–*¿Para recibir no y para dar sí? Si de lo que ha metido ése no me das, a la salida te espero.*

Ori esatean, azkar batean eman omen zion. Berak ala kontatzen zuen.

Gerra asi eta bereala, kobrezko txanponak izkutatatu edo urritzen asi ziran. Leen ere esanda gaude Milixio gure parroko sakristaua zala. Jendeak, limosna edo errespontsoetan, txanponak botatzen zituen, eta Milixiori bururatzen zaio ortik negozioa egin zitekeala. Berak txanponak jaso eta apaizari paperezko dirutan bere balioa eman. Apaizak onartzen dio tratu ori. Milixio pozik. Bazekien, ondo ala ere jakin, tabernariak gaizki ibiltzen zirela baso erdi bat ardo kobratzeko, kanbiorik ez zegoelako. Guda asi zanean, baso erdi ardo orrek zakur aundi bat balio zuen; amar xentimo, beraz. Zoaz gaur!

Garai artako Villafranca de Oria'ko edaritegi batera joaten da eta tratua egiten du bertako nagusiarekin: Milixiok kobrezko txanponetan larogei ta amar xentimo eraman eta pezta bat kobratu. Ara euneko amar irabazteko bidea nola egin zuen.

Peztako diruak papertxo batzuk ziran. Estaduak egiñak noski. Baso erdiak ordaintzeko, korreotako selluak ere ezagutu genituen. Bereala narrasten ziran, eskuz-esku erabilliz eta ardo tanto bat edo beste erortzen zitzaielarik. Ura kuxidadea, ura!

(El Diario Vasco, 1987-X-3)

EIZTARI KONTUAK

Dagoenekozi asiak dira an eta emengo eiztariak, uso paseko garaia gaiñean degula pentsatuz. Nunbait gogoan dute esaerak diona: "*San Calixto, paloma he visto*". Santu onen eguna urriaren 14'ean ospatzen da. Suerte on bat izan zazute eta gogoz ekarri, nork janaren faltarik ez dezute izango eta. Gezur bat edo beste ere bildur gabe bota. Oituak gaude entzuten. Gaiñera, aspaldi entzun genuen egi utsa gauza urria gelditzen dala. Egia.

Ondoren goazen gure errian gertatutako eiz kontu batzuk kontatzera. Bazan Alzaga'n gazte bat, Jose Castañeda izen abizenak zituena. Errezola base-
rrian bizi izaten zan, eta bere lagunak *Errezola'ko*

Pinpiña deitzen genion. Ezizen onegatik ez zan ase-
rratzen eta, gaiñera, par gozotan artzen zuen deizio
ori. Berak eta guk lantoki berdiñean lan egiten ge-
nuen: arbel fabrikan.

Udazkeneko goiz eder batez, badijoa, bagoneta
arbel zaborrarekin bete ondoren, terraplenaruntz, an
ustu asmoz. Ikusten ditu zero aldean usoak, *pla-pla-
-pla* dijoazela. Ontan, bururatzen zaio –berak lasai
asko kontatzen zuen– zauritu papera egin bear zue-
la, eta salto egiten du iru-lau metroko paretaren gai-
ñetik Petraneko baratzako babarrunparda tartera.
Min artu zuela eta asten da, orru bizian "*¡Auxilio!
¡Auxilio!*" esanez, laguntza eskean. Bitartean, Gure
Txoko'ko Enrike berari begira. Inguratzen zaie Ni-
kolas enkargatua eta Enrikek oni:

–Neronek ikusi det erortzen. Bizirik milagro
atera da.

Eramaten dute *Errezola'ko Panpiña* Jose Larru-
zea erriko sendagille jaunarengana, eta onek, azter-
keta egin ondoren, ala dio:

–*Tiene una fuerte contusión en las costillas. Tal
vez, con unos días de cama se recupere. Veremos.*

Ondo-ondo bendatu eta etxeratzeko agintzen dio,
oan egoteko esanez. Pastilla batzuk ere ematen diz-
kio, miña kentzeko, bi orduz bein bat artzeko agin-
duz. Arratsalde, gure Jose Castañeda Alzagara-
te'ko parapetoan, usoak noiz etorriko zai. Istripuko
testiguak zer tratu egin ote zuen *Pinpiñarekin*? Jain-
koak jakin. Guk ez.

Beste kasu au gerra aurretik gertatu zan. Orain
berrogei ta amairu urte inguru. Ez da gaur goizekoa.

Orduan Erriko Etxeko ostatuan bizi giñan. An dator gazte bat –bere deiturak gorde egingo ditugu–, gerrik zintzilik bi uso dituela, goiza Alzagarate'ko parapetoan igaro ondoren. Usoak pozez erakutsiz, ala dio:

–Gaur lau tiroatik bi uso bota dizkiat. Potxolo-potxoloak zeudek, gaiñera.

–Ago ixilik, motel, gaur, Alzagarate'n, tiro baten otsik ere ez dek izan eta. Orrela, ik nola bota? Begira: gaiñera, uso oen zaurietako odolak oso lehortuak zeudek. Ik eiz au *zillarrezko perdigoiekin* egin dek.

Gaztea, aserre papera egiñez, etxera joan zan. Geroz jakin zan *zillarrezko perdigoiekin* boteak izan zirala. Erosiak, alegia. Saltzaillea ere ez bait zegoen ixilik egoteko.

Au ere gerra aurrekoa dezu, irakurle. Neguko egun batean, elur lapatxa egin zuen eta eiztariak, naiz debekatuta egon, asten dira, *tinpi!* eta *tanpa!*, birigarro, xoxo eta beste txori mota guziak botatzen. Ontan, Izarre'ko Juanitori (g. b.) okurritzen zaio bere anaiaren soldaduzkako kaki jantzia jantzi, txapela gorria jarri eta mikelete papera egitea. Asten da eiztarien atzetik, "*¡Alto!*" eta "*¡Alto!*" esanez. Eiztariak korrika eta Juanito ere bai atzetik. Korritu omen zituzten Ioia-txiki, Ermintza, Urkia eta abar. Zer gozamina *mikeleteak* eta zer larridura eiztariék! Maratoi baterako entrenamentu ederra uraxe.

(*El Diario Vasco*, 1987-X-6)

TENPORAK

Iraila 16. Asteazkena. Goizean garaiz jeiki naiz. Oean bero egiten du. Eguraldi zasztala benetan. Goizeroko garbitasunak eta txukunketak egin ondoren, etxean dedan begiratoki (*mirador*) ortan jarri naiz. Bera daukat autatua irakurri eta idatziz eguna igarotzeko. Bertako leiotik Oria ibaiari begiratu bat eman diot. Urez erabat urri dago.

Dakarren pitiña ustel usaia boteaz dakar. Gaiñera, berdea eta goroldio bezelako mordoskak berekin ditu. Txori bat ere ez det ikusten. Nunbait, preskura billa, baso aldera joko zuten. Ez dira tontoak. Ibaia-
ren beste aldean, zugaitz altu eta ederrak daude. Berroaren beroz eta euriaren urritasunez, beren ostoak

urre kolorea artzen ari dira. Osto bat edo beste, txin-bili txanbala, ibai ertzera erortzen ikusi ditut. Beren bizitza bukatu zaie. Eguzkia, nagi eta txuriska –nun-bait udazkena gaiñean–, agertzen asi da. Amaikak inguruan irakurtzeari utzi eta etxearen beste aldera joan naiz. Eguzkiak gogor jotzen du begiratoki ontan eta bildur naiz nere buru txuri onen azpian dau-den muiñak urtuko ote dizkidan. Orixe izan da moti-boa etxe atariko itzalaren billa joateko. Portaleko aulkia atera eta bertan eseri naiz. *Ducados* bat piztu eta, bere kea txupatuz, gustora nago. Garai bateko arrobi zulotik, udararo bezela, preskura datorkit. Gustora artzen det preskura ori, beraren billa irten naiz eta. Ontan, an dator gure auzoko amonatxo bat eta:

–Egun on, Jexux. Bero.

–Berdin. Aundiagoa gero.

–Ez al da luzaro izango. Orain euria komeni zai-gu bazterrak preskatzeko. Egin dezala gogoz, gu eta lurra ase arte.

–Neronek ere orixe nai nuke, bai: euria.

–Temporak gaur asi eta larunbatean bukatzen di-ra. Orduan jakingo degu, ondorengo iru illabeteetan zer aize klase nagusi izango degun. Nortetik gosea, ego aizetik asea. Gogoan artu esaerak diona: "Ifar urtea, gose urtea".

–Baiñan, baiñan, etxekoandre: zeuk sinisten al dezu tenporetan?

–Sinetsiko ez det, ba? Begira, Jexux: ni neska koskorra nintzala, gure aitona zanak, tenporetako azken egunean, gaueko amabietan, azaoa, gari lasto

bala, sutzen zuen gure etxeko goiko zelaian. Suak nortera jo ezker, otza, jela eta gosea. Ego aizetik, berriz, euria eta onekin osasuna eta zer jana. Alde ederra dago, arbiak ateratzeko, jela ala egun epela izan. Geiago esango dizut. Murumendi'ko Dama bere aitzuloan geratzen bada, dudik ez izan: ¡bueno! Txindokiratzen bada, txarra! Dama onek asko daki.

Alkar agurtu ondoren, etxeratu naiz. Maiaren gaiñean daukaten Don Mariano Castillo y Ocsiero'ren *Calendario Zaragozano*'ri begiratu bat eman diot. Tenporak, nere adiskide dan etxekoandreak dion egunetan dira. Zer eguraldi izango degun ere esaten du. Jaun onen esanarekin ez naiz fio. Dagoeneko, 1988'ko egutegiak egiñak izango ditu; eta, urte bete aurretik, nola jakin zer eguraldi datorkigun? Bizi danak ikusiko du eta kito.

Lan onek argia ikusterako, tenporak igaroak izango dira. Aize bat geratu edo bestea geratu, guk orain euria eskatzen degu. Neurritz izan dedilla. Bestela, greak eta bi ikusteko gaude.

(*El Diario Vasco*, 1987-X-14)

SAN MARTIN

Udazkeneko egun zoragarri batean ari gera au idazten. Eguraldi eguzkitsua daukagu. Egoaize goxoak gure etxeko ate eta leioak pil-pil jotzen ditu. Zugaitzetako ostoaurreztatu dira eta beren errore-ran agurka ari zaizkigu. Udaberrian berriak ikusteko osasuna izan dezagula. Intxaurrekin ere eldu dira eta plisti-plasta lurrera datozkigu. Aukera ederra aurrentzat, bildu eta kliskean jokatzeko; baiñan gaurko mutil eta neska koskorrek ez dakite joku au zer dan. Gutxiago, berriz, lau intxaurrekin txurro bat osatzen danik.

Eldu zaigu San Martingo udalditxo. Pozgarri da. Azaroaren 11'an San Martin Gotzai eta Aitor-

learen egun aundia ospatzen da. Erri asko dira santu au beren Zaindari dutenak. Oietako bat Arama, gure erritik urbil dagoena. Konta ditzagun erri ontako gertakizun batzuk.

Urteak dira ondorengo au gertatu zala. Itsasondo'ko mutil eta neskatxek antzerkia egin bear zutela-eta, Don Jazinto zana, apaiza, ari da Tomaxene'ko Luix arotzarekin (g. b.) agertokia prestatzen. Don Jazintok –berak kontatu zigun– somatzen du Arama'n Rikardo Intxausti, Alegi'ko *Txintxarri* txistularia, kalejira jotzen ari zala, eta ala dio bere lagun zurginiari:

–Luix, Arama'n kalejira jotzen ari dira.

–Bai; entzuten det. Orko kaleak bereala korrituko dituzte.

Luixek bazituen bertsolari *salida* oietakoak. Oso ondo erantzun zion, Arama oso erri txikia bait da.

Arama'n, San Martin bezperan, illunabarrean, Bezperak kantatzeko oitura dute. Erri guztiak abesten ditu. Zenbat urtetan, Mendizabal baserriko nagusiak, Joxe Galarraga'k, jo ote du elizako armonioa? Lan dana utsaren trukean, gaiñera. Badu meritua! Organista bezela urrezko eztaiak bete zituenean, omenaldia egin zitzaion. An giñan.

Dalako Bezpera oiek bukatzen diranean, urtero, Erriko Etxean, gaztain erreak jateko oitura dute. Dana *gratis et amore* izaten da. Gure errian bizi dan bat –ez da emen jaioa– Arama'ra joan zan. Bezperetara ez; gaztain jatera bai. Biaramonean berarekin topo egin nuen. Atzeko leiotik *zirt!* eta *zart!* ari zan. Ura aize bota bearra, ura! Ontan, ala esan nion:

–Zer, *compañero*: tripetatik ondo ez al zabilta?

–Tripetatik diozu? Atzo Arama'n sekulako gaztain errejana egin det eta *estomau* guztia leer zorian daukat. Bart ez det lo aundirik egin.

Orixe zana ere Arama'n ezagutu nuen. Bere illo-ba Joxe Mari Aranalde apaizarekin, garai artako erretorearekin, erri polit ontan bizi izaten zan. Biekin oso lagun egin nintzan. Eldu ziran 1959'garren-go San Martiñak eta, erria alaitzeko, Joxe Agirre eta Txomin Garmendia bertsolariak ekarri zituzten. Plazako saioak egin zituzten eta Orixerengana joan giñan. Zerbait gaixorik, oean, zegoen. Buruz erabat argia arkitzen zan eta bi bertsolari gazteei bertso batzuk kantatzeko eskatu zien. Bai oek ondo bete ere eskatu ziena. Pozik eta eskerrak emanez gelditu zan gure euskaldun argi ta jakintsu ura.

Petrak, apaizaren arrebak, kafe eta kopa bana eman zizkigun, eta ala irten giñan apaiz etxetik.

Beste batean ea kontatzen ditugun Don Inozentzio Arama'ko *Piñu Abadea*'ren gertakizunak.

Aurten ere San Martin eguna gaiñean degu eta, aramatarrak, festak ondo igaro.

(*El Diario Vasco*, 1987-XI-13)

XEXILIO

Bere izen deiturak Zezilio Arriburu Eulietxe zitu-
tuen. Nungotarra zanik ezin genezake esan, ez daki-
gu eta. Amezketan aldetik-edo erriratu ote zitzaigun
ustea daukagu. Gure erriko arbel lantegia zuen bere
ogibide. Txikia zan eta, orregatik, ezizenez *Firpo*
deitzen zitzaion. Gogoan izan bear degu Firpo gizon
aundia zala eta, bozeolari bezela, munduan zear so-
na aundia lortu zuela. Ortik eta ara, txungaz zuen
bere gaitzizen au Xexiliok. Bizia, mutilxaarra eta
umezurtz zan. Gizarteari etzion zorrik eta orrek fia-
kaintz biurtu zuen.

Eskola politeko gizona zan eta *solfa* ere baze-
kien. Bazuen berekin musikako instrumento bat: re-

kintoa, ain zuzen. Satisfazio aundiz, Primo de Rivera'ren diktadura garaian ere bai, *la marselesa* jotzen zuen, bera errepublikanoa zala esanez.

Emen, gerra aurretik, *La Voz de Guipúzcoa* egunkaria erosten zuen. Egun batez, Latiñe'ko tabernan, irakurri du periodiko ori eta, mai gañean utzi ondoren, etxeratzen da. Egin zuan *azioaz* jabe-tzen da Fermiña, tabernako etxekoandre xaarra, Xexiliorekin politikan ados ez zegoena; eta sukaldeko su tenazak artu eta oekin sutara bota omen zuen periodikoa, inpernuko gaitzez kutsatua zegoela marmarrean esanez. Diotenez, Fermiñak ebanjelioak atera omen zituen Xexilio *gonbertitu* zedin.

Fiakaizkeriak eraginda, apopillo bezela, gure erriko zenbat sendi ez ote zituen pasa? Gerra aurrekoak, buruz, dozena inguru ortxe kontatzen ditugu. Iñun ez zan konforme izaten. Famili batekoak eta bestekoak, bere ustez, beti berarekin aprobetxatu egiten ziran. Gu, Xexilioren iritzi orrekin ez gaude ados. Sendi jatorretatik igaro izan zan, baiñan ala ta guztiz ere beti berak arrazoi. Berez saltakiña izan eta, txoriak zugaitzetik zugaitzera ibiltzen diran bezela, bere baul edo maletarekin —an gordetzen zituen bere ondasun guztiak— etxez etxe ibili oi zan.

Gerra etorri zanean, erritik alde egin bearra izan zuen. Guda bukatzean, ondo gogoan daukagu, itzuli zan Itsasondo'ra. San Pedro illunabarra zan eta Joxe Anjel Izuzkiza zanaren (g. b.) etxera etorri zan, ain zuzen. Joxe Anjel gure etxeko leenengo bizitzan bizi izaten zan eta antxe agurtu genuen Xexilio. Oso argal zegoen, baiñan osasunez ondo eta bizi. Leengo

lantokian bertan lana eman zitzaion, eta berriro an eta emen apopillo asi zan.

Errazionamentu garaia zan eta Xexilio sendi batean apopillo artu zuten, berak janaria ekartzeko baldintzarekin. Emen ere –berak kontatzen zigun– bereak eta bi *armatu* zituen. Ara: bazkaria prestatzeko, etxeakoandreari, goizean, babarrun gorri errazioa utzi omen zion, kikiran olioia zala eta bi baratzuri alerekin. Eguardia eldu zanean, etxeratu eta asten da bazkaltzen. Zer izango eta egoskarian baratzuri ale bakarra agertu. Ala kontatzen zigun:

–Etxekoandreak, nere eltzetik olioia arrapatzean, jabetu gabe, baratzuri alea ere atera egin dik eta ortik erori dek bere lapurretan. *¡Que le mantenga su madre!*

Andik eta ara egin zituen etxe artako *Patri Filioak*. Egia ote zan kontatzen zuena? Jainkoak jakin.

Azkena apopillo bizi zan etxean, kontentu eta pozik zala esaten zigun. Guk ere poz artzen genuen, bein asentatu zala pentsatuz. Etxe ontan gaixotu eta Tolosa'ko Miserikordira eraman zuten. An il zan. Jaunagan atsedean dezala.

Gizontxo onen gaztaroko kasu edo kontu geiago ere badakizkigu eta konta ditzagun.

San Pedrotan, Larraitz'ko erromerira, bere rekin-toarekin joaten omen zan. Pago adarraren gaiñean exeri –gaur ainbat pago izango zan– eta andik pandango, arin-arin eta kalejirak jotzen aritzen omen zan. Jendea kontentu eta bera ere bai. Ez zan gaur ainbat konjunto eta orkestina izango.

Gabonetan, errian eskean ibili ondoren, Zaldibia'ra joaten omen ziran, ango gauerdiko Oillar Meza entzutera. Gure erritik Txindoki'peko errira pausoak daude, baiñan alare kontentu. Zer ote da gaztea izatea!

Gogoan degu, atzo gertatu balitz bezela, Urtezar gau batez gure tabernan egin zan juerga. Villafranca de Oria'ko —orduan ala deitzen zitzaion gaurko Ordizia'ri— Andresek txurreri bat zeukan bere errian. Aste egunetan gure errian lan egiten zuen, eta igande eta jaietan bere errian txurroak saldu. Xexilio eta bere lagunak enkargatu zizkioten txurroak gau artarako. Ala, gaueko amar t'erdietako trenean sartu, berekin peri-saskia zutela, eta an joan ziran txurro billa Xexilio eta bere lagun Zapatariko Joxelontxo (g. b.). Baita naiko txurro ekarri ere. Naiz gau otza izan, oiñez etorri ziran. Kotxe eta taxisekin ez zegoen gaurko aukerarik. Eldu ziran gure etxera eta, txurroei berotu bat eman ondoren, ura txokolate eta txurro jan bearra! Jendeak *hasta-lepo* egin zuen.

Beste urte batean, astearte iñauteriz, Xexilio txantxo jazten da eta Tolosa'runtz jotzen du. Pake onik ez, ba, ango xexenekin jolastu arte, eta sartzen da xexen artera bere guardasolarekin. Xexenaren aurrean jarri eta asten da guardasola itxi eta irekiz xexena tentatzen. Ontan, adardunak jotzen du eta an dijoa gure *Cordobés* zilupurdika. Traza txarrekoa gelditu omen zan eta bere lagunak *Erbiya* ostatura eraman omen zuten. Don Kijote berak ere, aizeko errotekin guda egin zuenean, itxura ohea

omen zeukan, Xexiliok adarkadak artu zituenean baiño. Aste bete inguru Tolosa'n igaro eta erriratu zanean, lantokiko ofizinara joan, emen bereak eta bi entzun eta berriro lanean asi omen zan.

Orain ogei t'amabost urte inguru, gutxi gora-beerra, Gabon batzuetan au gertatu zan. Lantokiko bere lagunek esaten diote Xexiliori Gabon Loteria ekartzea bidetzko litzakela, baiñan berak ez zeukatela dirurik erosketa ori egiteko. Xexiliok:

–Nere baulean orrenbeste izango dek.

Ekartzen du loteria eta txartel ponpoxoak egin ere bai Ordiziako inprentan, bere izen eta guzi. Madril'go Doña Manolitak ainbat fama artu zuen urte artan. Loteriko talonarioa bere bonbatxoetako atzeko poltsikuan erabiltzen zuen, eskaparate bat balitz bezela. Batek eskatu eta besteak eskatu, eta Xexiliok *klientela* ezin osatu. "*Ni lo echau*" gertatu zan. Urrengo urtean dezimo geiago ekarri eta ezin saldu. Emen ere kale gertatu zitzaigun.

Xexilio ez zan elizkoia; baiñan, alare, Santa Zezilia eguna poz aundiz ospatzen zuen, baten eta besteen zorionak jasoz. Estraren bat egingo zuen jatorduan-edo. Orrelakoxea zan gure Xexilio.

(*El Diario Vasco*, 1987-XI-29 eta XII-1)

KIKIMAKOAK

Ez dakit itz au ondo erabiltzen degun ala ez, baiñan gure errian *kikimakoa* deitzen diogu eztabaidari. Sarritan idatzi izan degu, gure gaztearoan, ia amabost urterarte ain zuzen, gure gurasoekin taberna batean bizi izan giñala. An armatzen ziran kamarrak, an! Bakoitzak, bere ustez, berak arrazoi; eta, bein baiño geiagotan, alkarri musumintzak berotu arteko pakerik ez zuten izaten. Kasu oni *muturjoka* deitzen genion. Gainbegiratu bat eman dezaiegun garai artako kikimakoei.

Bazan gizon bat, bein bere moko busti ezkerero, tabernako atea barrutik ixteko erabiltzen genuen tranka artu eta berak bere garaian soldaduskan ikasi-

tako instruzioak egin arteko pakerik izaten ez zuena. *Ango firme, sobre el hombro, cuerpo a tierra* eta abar egin bearra! Adiñean naiko sartua zegoen eta, geroz soldadu izan ziranak, esaten zioten orain instruzioak orrela ez zirala; baiñan, ala ta guztiz ere, jaun ura berearekin gelditzen zan. Buru gogorra benetan. Zergatik ez ote zuen militar karrera egin, orotarako aproposa zan eta?

Beste batek, berriz, su kontua atera ezkeru, beti au esaten zuen:

–Sua egiteko, intxaur azala bezelakorik ez zegok.

–Ago ixilik, motell. Ire emazteak intxaur azalekin egindako suarekin babak egosi bear badizkik, sutondotik asko erretiratu gabe egon bearko dik. Ez al dituk obeak, sua egiteko, pago egur igarra edo ikatza?

–Ez. Nik arrazoi diat eta kito.

Bazan gure errian mutil meaxta, argal bat. Sekula ez nuen alkool edaten ikusi. Beti freskagarri bat edaten zuen. Edari mota au limoi, marrubi, laranja edo *zarzaparrillaz* egiten zan. Jarabe ontatik bi kutxarakada bota eta gero seltzarekin naastu. Goxoa izaten zan. Bazkaldondo batean sartzen da dalako mutil ori gure tabernan, eta bertan zeuden bere lagunak ala diote:

–I, motell, guztiz plakoa ago. Anima erratua dirudik. I ez aiz berrogei ta amar kilo.

–Ez naizela berrogei ta amar kilo? Daramazkidan jantziekin pixatzekotan, amar duro jokatuiko dizkizuet, pixu ori ondu baietz.

Apustua zerratu zuten eta an joan zan mutilla etxe azpira, prakak askatu bear zituela esanez. Kontrarioak kontentu, leen gutxi pisatzen bazuen, gero geiago ez zala izango pentsatuz. An dator mutilla irripartsu. Zer egin zuen? Ba, prakak askatzeko aitzekiarekin, txamarra eta praketako poltsikuak erreka arriz bete. Kontrarioak, zeuzkan bultoak ikusirik, bereala jabetu ziran gauza zuzenik ez zala eta, miatu ondoren, apustua baliogabetzat utzi zuten. Ez zan amutsa mutil ura! Aiek parrak! Ala obe.

Iñoiz ikusi degun kikimakorik aundiena, ondorengo kasu onekin izaten zan. Gizon batek, munduan zear ibiltzeko, naiko diru ala naiko konfiantza, zer du obe? Batzuk diruaren alde izaten ziran, eta besteak konfiantzaren zale.

–Diruarekin noranai joango aiz –esaten zuten batzuek.

Besteek, berriz:

–Konfiantzarik ez badaukak, dirua zertarako dek?

Kalamatrika ederrik sortzen zuten, onena zer dan erabaki eziñik. Iñoiz, naiz astakeri bat izan, musu-mintzak alkarri ondo berotuta bukatzen zan kiki-mako ura. Bakoitza, bere ustez, arrazoiarekin ateratzen zan. Zuk, zeuk, irakurle, zer derizkiozu?

(El Diario Vasco, 1987-XII-13)

ELURRA

Sarritan entzun izan degu elurrak atek ixten dituela eta elurrik etzaigula komeni. Izatez ala da artzaiarentzat, nekazariarentzat edo-ta fabrika batera eguneroko ogiaren billa joan bear duen langille soil batentzat.

Aurtengo negua elurrik gabe ikusirik –gerora ikusiko degu zer dakarkigun–, oraingoz au pentsatzen ari gera: elurterik ezak atek itxi dituela. Begiratu, bestela, gaztelerazko *estación invernal* oiei. Hotelak, teleaulkiak, bideak eta abar egin dituzte, jendea elurretan jolastu dedin eta ortik negozio au jarri dutenek irabazia izan dezaten; baiñan, zoritxarrez, elurrik ez eta galera ederrak jasotzen ari di-

ra. Ara batzuek elurra nai eta besteek ez. Batzuei elurrak atea itxi, eta besteei elurrik ezak atea itxi arazi.

Euria beti denen gustoko ez omen da izaten, eta elurrarekin ere ori bera gertatzen ari zaigu. Gurekin asmatuko duen Jainkoak ere meritu ederrak izango ditu. Bai orixe.

Mutil koskorrak giñala, elurretan pozik jolasten giñan. Maindire zuriaren gaiñean ibili ezker, ura poza! Ni oso gutxi ibiltzen nintzan, anketako elbarritasuna neukan eta. Gure etxetik trenaren apeaderora –berreun metro joan-etorria ortxe– egin ezker, konforme izaten nintzan. Nere senideek eta lagunek naiko jolas egiten zuten, alkarrri elur bolak boteaz edo txori gosetiak galbai eta zepoarekin arrapatuz. Azkenengo au astokeri bat besterik ez zan, baiñan aur aiek juizioan nork sartu? Adiñeko kontuak, eta besterik ez.

Gure errian, guztiz oker ez bagaude, leenengo skiak izan zituena, gure adiskide Jose Jauregi –lagunentzat Joxe Kaxeta– izan genuen. Donostia'ko zurgindegia batean lan egiten zuen eta an egin zituen. Erriko apeaderoaren parean dagoen Kanposene baserriko belardiak gainbeera dauka eta an ibiltzen zan, txirrixtaka, Joxe bere lagunekin. Abiada Ibarre'ko bordatik artzen zuten eta Kanposene'ko iturri ondoan bukatu. Skiak bizkarrean artu eta berriro gorra joaten ziran, txandatuz, jolas egiteko. Beren zangoetan ez zuten erreuma aiderik, eta ezta bearrik ere. Gogozko lekuan ez omen da aldaparik eta nunbait ori gertatzen zitzaien.

Bazan mutil xaar bat, Zelestino, bere bizitza guztian baserriko morroi izan zana. Negutean, bizkarretik zakua artu ta arbi ateratzera sorora joaten zana. Ekaitza, elurra edo euria gogoz asten bazuen, zerura begira jarri eta au esaten zuen:

–Au da giroa, au! Arantzazu'n an egongo dira praileek, itxi atek, itxi leiok, piztu argik, "Egin zak, nai badek!" esanez. Gu praile ez joan eta *ji, ji, jiiii!*...

Gu ere, zaartuok, orain ez gera elurzale. Egun batean edo bestean egin dezala, gure begiei gusto emateko. Ortik aurrera, ez. Aurtzaroan, elurra mara-mara egiten zuenean, au kantatzen genuen:

Eintzak, eintzak elurre!
Etxean badiat egurre!
Etzeukat ire bildurre!...

Gure berotasunak joan ziran.

(El Diario Vasco, 1988-I-6)

MORROIAK

Gaurko bizitzaren kurpillak eraginda, gauza berri asko sortzen ari zaizkigun eran, beste asko, zorionez, galtzen ari zaizkigu. Azken oetakoak, gure uste apalez, morroiak ditugu.

Etxe batean seme-alaba asko ziralako, aitaren irabazbidea urria zalako, edo-ta ama alarguna zutelako, mutiko asko, bein jaunartze nagusia egin ezkerro, morroi joaten ziran, naiz eskola aundirik beregan ez izan.

Gaur gaur bezela, eta pozgarri da, naiz beren etxeetan diru iturri aundirik ez izan, mutil koskorak morroi ez dira joaten. Onekin poz aundia artzen dugu.

Eta morroi izatea zer zan? Zer ordaintzen zitzaien? Nola bizi izaten ziran?

Bat. Nagusiaren aginduak ondo eta leial bete. Berarekin beti zintzo izan. Eginkizunak, agindu bezela, jator eta gizatasun aundiz egin. Aste eta jai egunetan, beti, nagusiaren serbitzari izan.

Bi. Beren lanaren ordaintza bezela, mantenu eta jantzia ematen zitzaien. Ortik aparte, illean bein-edo, eskupekoa izaten zuten. Nola janari, jantzi eta soldata ez ziran izaten punta-puntakoak. Emandakoa artu eta kito.

Iru gauza oen aurka itzik atera ezkerro, *anda fuera*'ko soiñekoa izateko bildur izaten ziran; eta, ori zala medio, ixildu egin bear.

Iru. Esan degu: beti lan eta lan. Ortik aparte, mutikoaren erriko festak zirala, Gabonak edo etxekoren bat ezkondu edo il zalako, egun pare bateko baime-na izaten zuten, eta berriro morrontzara.

Morroiak, mutil koskorak ez-ezik, adiñekoak ere izaten ziran. Esan degu aiek, gaur gaur bezela, morroi ez dirala joaten. Adiñekoek, naiz gaur langa-bezi aundia egon, ez dute morroi joan nai. Ondo egiten dute. Beste era bateko ogibidea billatzen saiatzen dira.

Nagusiek ere ez dute morroirik nai. Seguru soziala, soldata ona, leengo janaria baiño obea eta abar eskatzen dituzte morroiek, bidezko dan bezela; eta, orrela jokatz, nagusiak ez dio etekiñik morroiari ateratzen. An edo emen bat edo beste ikusten dira; baiñan oso gutxi eta ortik etorri da morrontza galtzea.

Gure ostatura, sarritan, morroi bat etortzen zan. Domingo zuen izena. Jaiotzez ataundarra zan. Ez zan tonto edo tentela. Egun batean au esan zioten:

–Domingo, Txina'n sekulako inbentua atera omen dute. Bizi izateko, ez omen dago lanik egin bearrik. Janariari usaia egin eta bizi izango omen dira.

–Bai, e? Eta zuek biar lanera, fabrikako keak txupatzera? Zeok janariari usaia eginda bizi izaten asten zeratenean, abixatu eta orduan morrontzari utziko zioat. To!

Gure errian morroi asko eta asko ezagutu izan ditugu. Gaur bakar bat ere ez degu ikusten. Ala obe. Morrontza nagusitza ez bait da.

(El Diario Vasco, 1988-I-22)

GARIZUMA

Igaro ziran Iñauteriak eta, urtero bezela, sartu gera Garizuman, bere leenen egunean Austerre ospatuz.

Batzuek Austerre deitzen diote eta besteek Auster. Nola era batera ala bestera esan, biak berdiñak dira. Egun onek esanai aundia du. Apaizak, autsa gure bekokian jartzean, itz auek esaten dizkigu:

–Oroitu, gizona, auts zerala eta auts biurtu bearra daukazula.

Ninibetarrek –liburuetatik irakurria–, garai aietan, beren buruak autsez betez, damua agertzen omen zuten. Elizak ere, gaur egun, gure kopetetan autsa ezartzean, orixe gogora arazi nai digu. Damu-

tasuna izan dezagula, egin bear ez ziranak egin ditugulako.

Gure errian, Itsasondo'n, badegu auzo bat Urkia deritzaiona. Bertan elizatxo bat dago Gurutze Santuari eskeiñia. Santikutz deitzen diogu. Dalako elizatxo orrek, bere alboan, apaizetxe bat dauka; eta an, gure gazte denboran, apaiza bizi izaten zan, elizkizunak egin eta bide batez auzoko aurrei eskola erakusteko.

Urte batean eldu da Iñauteri igandea eta, bere sermoia bukatzean, asten da apaiza, urrengo aste barruan ospatuko ziran elizkizunen berri ematen, eta ala dio:

–Datorren asteazkenean... Datorren asteazkenean...

Nunbait, bear zuen itza ez etortzen.

–Datorren asteazkenean...

Ontan, altxatzen da entzule bat bere aulkitik eta onela esan omen zion:

–Bai, jauna, bai! Auster! Gaiñera, bijili eta barrau!

Baserritar arek ondo zekien Elizako berri nunbait, aurtzarotik ondo ikasiak izango zituen eta.

Leengo urteetatik oraingoetara, Garizuma asko eta asko aldatu da. Garai aietan, eliz gizonek, guztiz astun eta gogorra zala erakusten ziguten. Gaur ez, ordea. Sermoiak gozo eta legunagoak entzuten ditugu.

Alare, jende gutxi elizetan. Leen, sermolariek inpernuko sua eta abar geiegi erabiltzen zituzten, eta orrek ezurretaraiño bildurra sartzen zigun. Orrela jo-

katuz, bildurra nagusiago izaten genuen, benetako fedea baño.

Pazkoazkoa egiteko txartela artu bearra izaten zan. Ez dakigu zein erritan gertatu zan ondorengo kasu au, baiñan egia omen da. Ama batek ala dio bere semeari:

–Koxme, arbiak loratzen ari dituk eta konfesatu eta txartela artu bearrean ago, bereala Pazkoetan gaituk eta.

–Bai, ama. Zu lasai, ori ondo beteko det eta.

Larunbat arratsalde batez, Koxme joaten da konfesatzera. Ama pozik. Aitortzen da erriko Don Nemesio erretore jaunarekin, eta bukaeran ala dio mutillak:

–Txartela ere nai nuke, ba, jauna.

–Oso ondo, Koxme. Ea, ba: Trinitade Santisimoa nor da?

–Aita, Semea eta Espiritu Santua.

–Aita Jaungoikoa al da?

–Obe bai! Ikazkiña degu eta.

Mutil ura zerk eraman zuen konfesatzera? Fedeak, bildurrak ala bere amari poz berezi bat emateko asmoak? Orixe da ez dakiguna, baiñan bai sarritan gauzak orrela egiten zirala.

(El Diario Vasco, 1988-II-20)

SERMOI ETA OTOITZA

Leen ere erriko festetako sermoiei buruz zerbait idatziak gaude; baiñan gaurko onek, gure iritziz, aipatzea merezi du. Naparroa'ko erri batean gertatu omen zan.

Erriko erretore jaunak, erriko festak zituztela-eta, abixatzen dio bere lagun apaiz bati sermoia egitera etortzeko. Kartaz abixua bidali eta kartaz baiezkoa eman ere bai bere adiskideak.

Eltzen da sermoia egiteko bezpera eta sermolaria nun gaixotzen dan. Ala dio sermolariak bere sakristauari:

–Biar alako errira sermoia egitera joateko nintzan, baiñan ez naiz gauza, Nikaxio. Zuk naiko latin

eta santuen bizitzak badakizkizu eta zerorrek egingo ote zenuken pentsatu det. Beste sermolari bat billatzeko astirik ez daukat.

–Bai, jauna, bai. Orrenbeste egiteko gai naizela derizkiot.

Biaramonean, sakristauak jazten du erretorearen sotana, teja ere bai –orrela deitzen zitzaion apaizek erabiltzen zuten sonbreroari–, artu bastoia eta brebiarioa, sartu *La Estellesa*’n eta iristen da festak ziztuzten errira. Gizon jakintsu baten itxura zeukan.

Gertatua kontatzen dio bertako erretore jaunari eta au ados jartzen zaio. Igotzen da sakristaua pulpitora eta onela ekiten dio bere jardunaldiari:

–Aldareko apaiz jaun agurgarria, agintari zintzo eta entzule maite-maiteok: non tentazion, non maldizion, bestela kondenazion. Ori egin zuten santu aundi aiek. Begiratu, bestela, zer bizitza egin zuten Xabier’ko Frantzisko, Loiola’ko Inazio, Urkiola’ko Antonio, Pedro santuak eta abarrek. Gizonezkoak naiko ez dirala, gogoratu ditzagun Santa Paulina, Santa Julia, Santa Barbara, Santa Otilia eta emakume santu geiago ere bai.

Jarraian kontatzen ditu aien mirari batzuk eta jabetzen da erriko Zaindariaren bizitzari buruz ezer ez zuela esan. Jakin ere ezer ez omen zekien. Begiratzten dio ordulariari eta bere itzaldia orrela bukatu omen zuen:

–Zuen Zaindaria gaur ixillean utzi det, bere bizitzaren berri ondo jakingo dezute eta. Urtero gauza berdiña esaten ezin ariko gera. Bestalde, sermoi luzeak ipurdia mugi arazten du, eta motzak biotza.

Nik zuek fededun izatea nai det. Biotz berokoak. Santuen antzekoak. Eta, bukatzeko, festak ondo igaror. Espiritu Santuaren argia zuengan izan dedilla eta datorren urterarte. Amen.

Otoitz au ere kontatu bear degu. Bere parekorik sekula ez det entzun. Jatorduan, sendi batean, biltzen ziran bakoitzean, etxekoandreak iru agurmari errezatzen zituen eta bukaeran au esaten zuen:

–Arantzazu'ko Ama Birjiñaren ondran eta alabantzán, errezatu denok Kredo bana.

Amari Kredoa ta
San Pedroi Salbea,
nun aurkitu ziteken
fede bat ohea?
Etxe artan orrela
zeukaten fedea,
biotzetik maitatuz
Jaunaren legea.

(El Diario Vasco, 1988-II-26)

ASTE SANTUKO OROITZAPENAK

Urtea asi genuen eta, berarekin ibiliz, Aste Santura eldu gera. Onek, Aste Santuak, gure aurtzaroko gertakizun batzuk burura ekartzen dizkigu. Danak ez badira ere, gogoratzen zaizkigunak komentatzera gatozkizu, irakurle.

Asteazken Santua. Gure ama zanaren aldetik genuen aitona –biak il ziran eta Jaunagan pakea bezate–, egun ontan, Ordizia'ko perira joan oi zan. Eguardi aldean etxeratzen zan, karraka sorta, listarekin lotua, Txutxurrutxu'neko dendan erosi ondoren. Billoben aldetik aitonak ez zuen enbusteri eta losintxaren faltarik izaten, bakoitzak bere karraka eskue-tan izan arte.

Arratsaldez, geren karrakarekin, elizara joaten giñan, *tinieblak* izaten ziran eta. Elizkizun oni, naiz gaizki esana egon, guk *trapala* deitzen genion. Eliza illun-illuna egoten zan, aldareak-eta oial morez estalita. Koruan Don Seberiano eta Don Jose apaizak jartzen ziran, egunari tokatzen zitzaizkion salmoak errezatzen.

Aurrez, aldare nagusian, orain bataioko ponte dagoen inguru ortan, alako triangulo bat zutik jarria egoten zan. Triangulo orrek, kandelak sartzeko, zu-loak zeuzkan. Alde batetik eta bestetik, seinak. Bi aldeetako kandelak oriak izaten ziran, eta gaikaldean jartzen zutena gorria izaten zan. Amairu kandela oek, apaizek irakurri bear zituzten salmoak adierazten zituzten.

Salmo bakoitza irakurtzen zutenean, apaizek txalo jotzen zuten edo, bestela, beren oiñarekin koruko zoria. Ori orrela egiñik, kandelan ondoan egoten zan Milixio sakristauak, edo bere orde zuten egoten zan akolitoak, kandela bat itzaltzeko agindua jasotzen zuen. Ez zituzten guk nai orduko kandelak itzaltzen, ez! Prest egoten giñan karrakak jotzen asteko, eta elizkizuna aspergarri eta luze iruditzen zitzaigun.

Dalako *tiniebla* aiek beren esanaia bazuten; baiñan, gure ustez, ateratzen genituen ots eta zaratarekin, Satanasi miñaren miñez bere burua leertzea zan. Elizan bazan karraka aundi bat —orain sakristian jasoan egon bear du— eta borondatezkorik izaten zan berari eragiteko. Danek parte artu nai eta denbora laburra izaten zan trapala jotzeko. Apaizak korutik aldarera etorri artekoa bakarrik. Ura pena!

Geuk ezagutu ez bagenuen ere, ezagutu zutenak errian badaude, garai batean, Purgatorioko Animen aldare aurrean, ool eta egur trakets batzuk jartzen omen zituzten. Mutil koskorrek, beren etxeetatik zurzko mazoak eraman eta egur aiek *dinbi-danba!* jo, *tiniebla* garaian, Satanasi burua zearo autsi arte. Ura lan gogoz egin bearra, ura!

Diotenez, ez omen zan okerrik gertatu. Ala obe. Deskuido santuz bat kopetan jo izan balute, kostako zan, ondo kostata ere, bere onera ekartzea. Alako klo-roformorik ezta sortu zentzua kentzeko. Ez orixe.

Ostegun Santua. Egun ontako elizkizunak, goizean, guztiz garaiz, erriko San Juan basilikan egiten ziran. Gero, amarrak aldera-edo, parrokan. Gloria mezetan abestean, txintzarriak eta kanpai buelta-koak ondo astinduak izaten ziran. Meza bukatzean, Jauna, paliopelan eraman ondoren, Monumentuak edukitzen zuen kajatxo batean giltzapean jartzen zan. Monumentu onek bazuen gauza berezi bat. Berra jartzen zan aldarean, pareta guztian, goitik behera, oial margotu bat jartzen zan. Margo oietan garbi ikusten ziran Jesusen Azken Afaria, Jesusen Baratzako Otoitza eta abar. Erritarrek, txandatuz, gau ta egun, Jesusi lagun egiten zioten. Arratsaldez elizkizun bat izaten zan, eta geienean kanpo erriko sermolarik batek eguneroko gertaerak kontatzen zituen. Jende asko joaten zan elizkizun ontara. Eguardian, elizkizuna baiño ordu erdi bat leenago eta illunabarean, Pendizetik karraka jotzen zan, kanpairik ez zegoen jotzerik eta. Baitare debekatua izaten zan pelotan jokatzea eta kartetan tabernetan aritzea.

Ostiral Santua. Bai San Juanen eta berdin parro-
kian, Gurutz-bidea erreztatzen zan. Jauna Monumen-
tutik aldare nagusira aldatzen zan. Arratsaldeko
elizkizunera, Gurutze Santua gurtzera, jende asko
urbiltzen zan. Prozesioa ere, eguraldiak lagundu ez-
kero, egin izan zan pelotalekutik barren.

Larunbat Santua. Goizean goiz, elizkizunean,
ura, sua eta abar bedeinkatzen ziran. Oitura zan sua
etxera ekartzea, su berria pizteko. Baitare ur bedeink-
katua ekartzen zan, etxeko kuartoetako ur bedeinka-
tu ontzian jarri eta berarekin, goiz eta gau, jeiki eta
oeratzean, Gurutze Santuaren egiteko.

Pazkoa Eguna. Pozetan ospatzen zan, Kristo piz-
tu zalako. Goiz mezan, Jauna artuz, Pazkoazkoare-
kin betetzen zuten. Meza nagusia ere ederra izaten
zan, eliztar asko meza entzutera joanez.

Ostiral Santuko prozesioak. Gure errikoak ez
zuen garrantzi aundirik, baiñan bai urbil dauzkagun
Alegi, Ordizia eta Segura errikoek. Ara Ordizia'n
urte batean gertatua. Leendik zerbait bagenekien,
baiñan oraintsu zeaztasun guztiak jasoak gera. Ordi-
ziatarrek, Don Frantzisko Urrestarazu erriko parro-
ko zutela, orain irurogei ta iru urte, Ostiral Santuko
prozesioa dotoreagoa izateko asmotan, erosi dituzte
soldadu erromatarren jantzi berri-berriak. Astea os-
patu dute elizkizun bereziekin eta eldu da Ostiral
Santua. Ala bearke zuen eta eguraldi euritsua gerta-
tu omen zan. Arratsaldean, prozesioa egin bear eta
danak demonioska, laiñoiei begira. Badaezpadare
jantzi dira soldadu erromano oiek eta, zerbait aterru-
ne izan zan orduko, an joan omen ziran, kornetak

tararriiiiiti! jo orduko, Felipe Aundi eundari (*centurión*) zutela, paso lijeroan, bi korneta, bi danborrero eta sei soldadu, Botika Zaar, Mari Konpitteraneko denda, Sujeto, Larratxane, Piaxene, Klaratxone eta Gurmentxindoneko taberna aurretik barren, Santa Mariako kaletik, berriro elizara. Jendea kontentu eta soldaduak ere bai, txaloak jasoz, egin zuten erakusketagatik. Nik ez det komentariarik egiten. Ori zure esku uzten det, irakurle.

(El Diario Vasco, 1988-III-29 eta 30)

ZOZOMIKOTEAK

Aurreko gure lantxo batean, *Artzantza* idatzi genuenean ain zuzen, zozomikotei buruz aipamen labur bat egiten genuen, baiñan ezer gutxi.

Gaur ere gauza askorik ez degu esango, baiñan dakiguna beintzat gogo onez jartzera gatozkizu, irakurle.

Mutil koskorra nintzan, gure tabernan, leenengo aldiz, Joxe Joakin Garmendia, Joxe Joakin itzaiari, entzuteko aukera izan nuenean. Orrelatsu kontatzen zuen zozomikoteen kasua.

Negua, urte artan, guztiz ona izan omen zan. Artzaiak, bere artaldearekin martxoaren azkenean mendiratzea erabaki omen zuen. Arroxo abiatu da

mendiruntz eta, errekatxo bat igarotzean, zubi gabea noski, baiñan oso ur gutxiko erreka, ala dio artzaiak:

–Agur, martxo.
Nere artaldeak mantxo
igaro dik errekatxo,
egiñez saltotxo.

Nunbait, martxoari ori entzutea gaizki iruditu omen zitzaion. Isekatzat artu, alegia. Mintzen da eta ala dio apirillari:

–I, beti lagun onak izan gaituk eta, mesedez, bi egun eman bear dizkidak.

–Bai, motell, bai. To eta biekin nai dekan guztia egin zak.

Martxoak eskuratzen ditu apirillaren bi egun oiek eta, bereganatu orduko, eratzen du sekulako ekaitza. Ango turmoi, tximixta, kazkabar, eurite eta giro otza, noski! Santiamen batean erreka gaiñezkatzten da, eta an eramaten dizkio artzaiari urak bere ardi guztiak. Aaria artzen du artzaiak bere bizkarean eta ala dio errekarari:

–Burrundada aundia artu dek, baiñan au ez dek eramango, ez.

Ontan, aztoratzen da aaria eta, artzaiaren bizkaretik kalkan asi ondoren, jotzen du bere nagusia bertondoan, eta begibakar utzi ere bai. Ara arrokeriak zer ondorio ekarri zion artzaiari.

Gure errian, eta baitare gure erriz kanpo, kontakizun au zeatz-meatz jakin nai izan degu. Batetik

bestera, itz batzuk aldatu ezkerro, danek berdintsu kontatu digute.

Gauza bat, ori bai, aurten batez ere, argi eta garbi ikusi degu. Zozomikoteak badira, eta ez txantxeta-koak gaiñera. Aurtengoak otz eta bustiak izan ditugu. Mikatzak benetan.

Naiz guk entzuteko aukerarik ez izan, kukua etorri ta kantuan asia omen da, dagoeneko. Orain kantari ari baldinbada, zer ez ote du egingo zugaitzek ostoa artzen dutenean eta eguzkia berotzen asten danean? Beti kanta berdiña izango du, baiñan modatik pasatzen ez dana. Ez dek olako *rock-and-roll*'ik, ez. Zorionak eta ik jarrai erearekin!

(*El Diario Vasco*, 1988-IV-12)

BIZIKLETA

Guk, onegatik edo argatik, tresna au gure aurtzarotik ezagutzeko zoriona izan genuen. Beste batzuek ez, ordea.

Konta ditzagun, bizikletari buruz, kaso batzuk. Ara.

Mutil koskorak giñala, Ordizia'ra, udaldia igarotzera, markesa etorri oi zan bere sendiarekin. Ez dakigu, sendi artan, neska-bizikleta bat edo geiago zituzten. Dana dala, gure errian ez zan orrelakorik eta, markesaren alaba Zelatxo'ko kurban bizikletan agertu orduko, arrituta, alkarri deika orrela asten giñan:

—I, korri. korri, neska bizikletan emen dek eta!

Guretzat, ura ala ikustea gauza arrigarri bat zan. Zirkoa bezelatsu. Neskatzak, bere belaunburua iñork ikusi ez zezan, soiñean zeraman gonaren bi alderdietan, goma batzuk jartzen zituen, bizikletaren pedal bakoitzari lotuz. Ori orrela egiñez, pedalada bakoitzean, gordean edukitzen zituen belaunak. Garai artan, belauna erakustea eta ikustea pekatu mortaltzat jotzen zan. Gaur ez degu orrelakorik. Belaunak ikusten ditugu, baiñan ez gera pekatuan erortzen. Ara gauzak nola aldatu diran.

Orain irurogei urte inguru, mutil edo gizon batek ez zuen olaz-ola bizikleta erosiko, ez. Ondo pentsatuko zuen erosketa egin aurretik. Gogoan det, illunabar batean, berrogei ta amar urte ondo paseak izango dira, gure tabernan nola sartu zan Olasagasti'ko Migel bere bizikleta berriarekin. Bazuen nork begiratu eta maxiatu bearra.

Ogei ta emeretzi duro ordaindu zuela esan zuen, eta jendeak gauza garestia zala zion. Zoaz gaur bizikleta erostera! Zer marka zan ez det esango, propaganda izango litzake eta. Gaur egun, marka artakoak, karreretan or dabilta goiko puntan, eta ortik pentsatzen degu Migelen *konpra* ona izango zala.

Goiko kamiñoa egin zutenean, bazan langille kanpotar bat, errena zalako *Alejandro Lerroux* deitzen ziotena. Bere izenaz ez naiz gogoratzen. Bizikleta berri-berria erosi zuen, eta pedal bat bestea baiño luzeagoa zuen, *Lerroux* ondo baliatu zedin. Bertara igotzeko, bizikleta erdi etzanean jartzen zuen. Anka elbarria gaiñetik pasa eta, txingoan joanez, abantailla artzen zuen. Bein gaiñean jarri ezke-

ro, nork errenditu? Lasarteko automobil karreretan mantsoago ibilliko ziran Chiron, Novolari, Caracciola eta abar.

Bazkaltzen ez zuen denbora askorik pasatzen. Lau babarrun ale eztarriko zuloan zituela, or ibiltzen zan Kontzejutik Zelatxo'ra eta emendik Ermentari'ra jo ta ke, laneko ordua iritxi bitartean.

Gerra bukatu zanean, Euskalerriruntz kanpotar asko etorri ziran lan billa. Lau pezeta aurreratu orduko, askoren ametsa, danena ez bazan ere, bizikleta erostea izaten zan.

Au eskuratu orduko, an idazten zuten beren etxeetara, "*he comprado la máquina*" esanez.

Gaur, bizikletan, langille gutxi ikusten degu eta poz artzen degu. Batetik, arriskutsua dalako, dagoen trafikoarekin; eta, bestetik, langille oien bizitza ondu egin dalako. Zorionak!

Dabiltzanak karreristak dira edo, bestela, zikloturistak, *haciendo piernas* ibiltzen diran oietakoak. Miñik ez dezatela artu. Ori da guk opa dieguna.

(El Diario Vasco, 1988-IV-20)

ZORIONEKO MILIXIO!

Maiatzak 24. Gaur, Donostia'tik idatzita, karta bat jaso det nere etxean. Izenpetua dator, bere zuzenbide eta guzti. Idatzi didan jaunak ala dio:

"Biok alkar ezezagunak gera. Pozik irakurri izan ditut, *El Diario Vasco*'n zuk Milixiori buruz idatzi dituzun gertaerak. Jarrai bere kontuak kontatzen. Milla esker aldez aurretik".

Ia zer kontatu aundirik ez daukat jaun oni buruz, baiñan donostiarrari poz ematearren, eta beste irakurleei ere atsegina izango zaien ustean, zerbait idaztera noa.

Milixio, leen idatzi genuen bezela, gure erriko parrokiari, sakristari eta koruko zuzendari zara. Ko-

ruko fazistolean an egoten zan misal aundi bat, bertatik introitoa eta graduala kantatzeko. Milixioren ilusio guztia latiñez idatzia zegoena guri euskeratzea izaten zan:

–Jesusek, bere leenengo miraria, Galilea'n, Caná'ko eztaietan, egin zian. Mariak, Jesusen Amak, ala esan zioan bere semeari: "*Vinum non habent. Ez daukate ardorik*". Jesusek orduan: "*Quid mihi eta tibi est, mulier?*". Jesusen erantzuna: "Zuri eta neri zer ajola?". Jesusek orduan serbitzariei: "Bete ontzi oiek urez". Bete zituzten eta Jesusek, miraria egiñez, ur dana ardo eder biurtu zian.

Milixioren komentarioa au izaten zan:

–Gaur erabat bestalde bizi gaituk. Tabernariak ardoa ur biurtzen ditek.

Latiñez naikoa zekiela adierazteko, au ere esan izan oi zigun:

–Ni Donostia'ko *Buen Pastor*'era joan, "*quiero celebrar*" esan eta meza emango banu, iñor ez uke jabetuko apaiza ez naizenik.

Ara, bere ustez, latiña zenbateraiño menperatzen zuen.

Gaixorik zegoenari apaizak elizakoak ematean, Milixio sarritan laguntzaille izan oi zan. Bein baiño geiagotan gertatu omen zitzaion, gaixoak testamentua notarioaren aurrean egitean, berak testigantza egitea.

Garai batean –errepublika garaia zan ustean nago–, gaixo zegoen batek, bere eriotza urbil zuela ikusten zuenean, aurrez inprentan eginda zegoen papertxo baten bidez, argi eta garbi adierazten zuen

kristau bezela il nai zuela, eta baita ere bedeinkatuta zegoen lurrean lurperatzea nai zuela. Oraintsu erakutsi zidaten paper oietako bat, eta alde aundirik gabe orrelatsu zion:

"Yo —emen izena jartzen zuen— quiero morir cristianamente y además, una vez muerto, quiero que me entierren en un cementerio cristiano. Un testigo, firmado: Miguel Ignacio Elorza".

Ara, gaurkoz, Milixiori buruz, burura etorri zaizkidanak. Saiatuko naiz berriro ere zerbait geiago idazten.

(El Diario Vasco, 1988-V-26)

KIRKILLA

Goierritarrontzat *kirkilla* du bere izena, naiz-eta beste batzuek *kilkirra* edo *kirkirra* izenarekin ezagutu. Ez dakigu negurako akabatu egiten dan, lozorroak artzen duen ala bere arraultzak uzten dituen, gero, udaberria eltzean, bera edo bere ondorengoak bizi edo sortu ditezten.

Aberetxo au, berez, beltz-marroxka degu, eta bere bizkarrean alako arraia orixka bat izaten du. Arrak arraia oiek "P" antzekoak izaten dituelako, *panaderoa* izenarekin ezagutu izan oi degu. Emeak ez ditu arraiak berdiñak izaten.

Udaberrian, eguzkia berotzen asten danean, ekiten dio bere kantu lanari. Kantu ori ez da aozko edo

eztarrikoa izaten, baizik eta bere bizkarrean dolostata edukitzen dituen bi egoak bata bestearekin igurtzitzean ateratzen duen otsari deitzen zaio kirkill kantua. Emeak ez du kantatzen.

Bera bizi izateko, gogozkoena, eguterako belardi aldapatsua du, naiz-eta iñoiz mendiko zelaietan lauean kokatzen dan. Kirkilla kantari ari dan inguruan, bere etxebizitza bezela, an edukiko du zulotxo bat; eta, norbait inguratzen asten zaionean, bertan, *zast!*, sartzan da, iñork arrapatu ez dezan.

Aurrak giñala, kirkilla bere zulotik atera aal izateko, bi sistema erabiltzen zituzten. Bat, belar luze bat artu eta, zuloan sartuz, kirkilla zirikatu, kanpora irten zedin.

Bestea, zulora txixa egin, kirkilla erdi itoan, izututa, kanporatzeko. Au mutillen lana izaten zan. Neskatzak, beren *safarian*, txukunagoak izaten ziran. Nik kirkillik sekula ez nuen arrapatu, gauza ez nintzan eta. Gaiñera, kirkill bat iñoiz nere eskuetan artu gabea naiz. Ozkia ematen dit. Nazkarik ez.

Kirkilla arrapatzean, mutillak txapelaren azpian gordetzen zuten. Berekin txapelik izan ezean, mukizapian gorde, oni lau korapillo egin eta etxera ekartzan zuten. Bein etxeratu ezker, tomate poteari il-tzearekin zuloak egin, eta an jartzen zan kirkilla sukaldeko leioan. Janari bezela, letxuga ostoak eta arrosa ostoak ematen zitzaizkion. Kantatzen ez bazuen, bereala izango zituen janari bereziak. Ardo zopak ain zuzen, mozkortu ta kantuari gogoz ekiteko. Sistema onek fruturik ez emanen, kirkilla kanpora bialtzen zan, belardira ain zuzen, eta berri bat

ekarri etxea alaitzeko. Gaurko aurrek ez dakite kirkillaren berri. Bai, ordea, Bakero, Txiki, Michel eta abar nor diran eta non jokatzen duten. Ara gauzak nola aldatu diran.

Bein, gure eskolan, au gertatu zitzaigun. Mutil koskor batek, bere txapelaren azpian, kirkillilla zeukan gordeta.

Sartu giñan eskolan eta gure lagun ori, txapela erantzi gabe, esertzen da bere *mesan*. Ura ala ikus-tean, maixu jaunak ala dio:

–*Oiga –izena esanez–: para estudiar hay que descubrirse. Quítate la boina.*

–*Señor maestro, tengo una herida en la cabeza y mi madre me ha dicho que no me quite la boina, para que no se me enfríe la herida.*

Ontan, asten da kirkillilla *krikiki* egiñez eta gu, eskolumeak, danok parrez. Maixua ere bai, mutil koskorraren irteera ikusiz. Barkatu egin zion. Danok pozez etxeratu giñan, gure laguna maixu jaunak zigortu ez zuelako.

(*El Diario Vasco*, 1988-VI-2)

AUFI TA YEUFIII!!!

Urtea igaro degu eta berriro ere Andra Mari festetan gera. Gure erriko Zaindariaren egun aundian. Danok pake eta zorion osoan igaro ditzagula. Ori dala-eta, aspaldiko zenbait gertaera etortzen zaizkit burura. Batzuk ikusiak eta beste batzuk entzunak.

Gaur egun, au edo ura festetan gertatzen bada, egunkari eta irratiaren bidez bereala jakiten da. Ederki egurasten dituzte. Orrela, alde guztietako berriak jakiten ditugu.

Guk, gaurkoz, jo dezagun leengoetara. Orduan ere, beren erara, saiatzen ziran aal zuten ondoen pasatzen. Orain ainbat festa aukera ez bazuten ere, asmatzen zuten gaztetasun eta sasoiari gusto ematen.

Aitona batek bein eta berriro konta izan zigun, bere pozik aundiena, gaztetan noski, festatik etxeratzekoan, belar zugatzak irauli edo alper arriak, erro-lloak, pirikan beeko erre kara botatzea izaten zala. Ura errenditu eziña!

Berastegi'ko Pakito ere ezagutu genuen Batzokian soiñu jotzen. Berrogei ta amabost urte inguru izango dira. *Zeppelin* autobus gorrian Tolosa'tik etortzen zan. Kontzeju parean jetxi gure etxearen aurrean, eta mutil koskor laguntza faltarik ez zuen izaten, andik estrada gora bere pianoko soiñu aundia Batzokia zegoen Kalea etxeraíño eramateko.

Gure erriko Urki auzoko batek au kontatzen zigun:

–Ibili giñan jo ta ke dantza ta bertso, Andra Mari egun batez, Batzokian, gauerdirate. Urte artan, Andra Mari eguna, larunbatez tokatu zan. Geren etxetara batere ez genuela joan bear eta Sarasola fabrikak –Fabrika Zaarrak deitzen zitzaion– ondoan egur kastilloak edukitzen zituen. Erabaki genuen kastilloetan lo egitea; oek, kastilloak, tellatu antzeko bat zeukaten eta, tabloietara igo ondoren, tellatupean ondo babestuko giñala. Bagoaz beeko kamiotik barren, eta oraingo Bidearte etxe parean soro bat zegoen, eta bere erdi aldean besare bat. Burutapena jartzen zaigu besare ori pertikaz beera eta ortzaz gorra soroaren erdian jarri bear genuela. Pentsatu eta egin, izerdi ederrak atera ondoren. Joan giñan gure *oe* berrira. Lo aundirik egin gabe, kuluxka batzuk besterik ez, goizeko laurak inguruan, danok *arriba* egin genuen. Erreka laiñoa sartu zuen eta danok *gil-*

-gil-gil otzak ia akabatu bearrean geundelako, erabaki ori artu genuen. Igandea zalako, meza entzun bearra zegoen eta oiñez Ordizia'ra joan giñan, seiretako meza entzutera. Garai artan, Ordizia'n, Patxi Aldabak taberna zeukan eta bertan ateak jo, jeiki arazi eta, uxual eta galletekin gosari txikia egin ondoren, danok mezetara. Etxeratu giñan, ganadu jate-nak egin eta berriro errira jetxi giñan, bazkaltzeko konbita bagenuen eta.

Ikusten dan bezela, orduan ere baziran gau pasak. Gaztea beti gazte.

Baitare, komeri politekin, neska laguntzeak izaten ziran. Kanpotar *konkistadoreak* etorri eta, erriko neska ederrenei laguntzen bazieten, erritarrak arrika asteen, anka joku ederrak egin izan oi zituzten. Au ez zan beti gertatzen, baiñan iñoiz bai. Gaur ez degu orrelakorik egiten. Kanpotarrak, zatozte lasai, eta jakin ere bai, kotxean etortzen bazerate, ez zai-zutela dalako OTA ori kobratuko. Eskuzabalak gera. Ongi etorriak Itsasondo'ra.

(El Diario Vasco, 1988-VIII-14)

TRIPAZAIK

Bataio bat dala, eztaiak ditugula, jaiotz urte muga ospatu bear degula edo beste orrelako zerbait ospakizun degunean, beti-beti bazkari edo apari on bat egiten oituak gaude. Ortik garbi ikusten da tripazai utsak gerala.

Beste lurraldeetako berririk ez degu emango, baiñan bai esan euskaldunok jate kontu ortan apartekoak izan gerala. Obrak dira lekuko.

Sarritan esan izan oi det ostatu bateko semea naizela. Ura utzi eta gaur etxe bizitza normal batean bi zi naiz.

Etxeko paper xaarrak jorratzen ari naizela, kuaderno bat aurkitu det. Gure ama zanak, kuaderno or-

tan, garai artako banketeak apuntatu egiten zituen. Danak ez, noski. Muestra bezela, gaurkoz, bat jarriko degu.

1922'ko urtea. Martxoa. Bataio bazkaria. Ara zer menu prestatu zuen: oillo pare bat egosi, gero aien saldarekin zopa egiteko; koliflora eta garbantzua txorixo eta urdaiarekin; aragi egosia saltsan, bi oilloekin; bi legatz isats, labean ondo erreta, naiko pe-rejil eta baratzuriarekin; iru oillasko menestran, es-parrago eta patatekin; arkume errea ensaladarekin; postrean laranjak, gazta eta budiña; kafea, kopa eta purua. Guztira, bankete ortan, amabost lagun bildu omen ziran.

Gure iritziz, naiz kuadernoak ez jarri, ori guztia dijeritzeko bikarbonatoa ere bearko zuten. Egun artako gaua lo batean iñork igaro ote zuen? Ez genuke baieztatuko.

Donostia'n, andre euskaldun bati ain zuzen, kastellana batek galde egin omen zion bere semeaz; eta etxeoandre arek, erdera mordoilloan, erantzun au bota omen zion:

–*Está erredondo erredondo. Kuadrau kuadrau.*

Mutil ura ere ez zan jan gabe egongo.

Franco'ren diktadura garaian, jarri zigun errezi- namentuarekin, ez zan gaur ainbat tripaundi ikusten. Danok ederki meetu giñan. Kurrilloak bezin lepalu- ze eta ziraunaren liraintasunaren pare nor ez giñan? Kastellanoek ala esaten zuten: "*Se ha quedado co- mo un silbido*". Tripa eta ipurmasaillak ondo izkuta- tuta, eta sudurra luze. Itxura oneko gizon eta andre bat ez zan ikusten. Gaur, berriz, asko eta asko or

dabiltza rejimena egiten, beren gantzak bein betirako baztertu naian. Ara gauzak nola aldatu diran.

Orain dala egun gutxi, Napparroa'ko erri batean, senar-emazte bikote bat agurtzeko zoriona izan nuen. Nola bat ala bestea ikaragarriak daude pixuan eta, kontu kontari ari giñala, au esan nien:

–Ez zazute gaizki artu, baiñan bion artean zenbat pisatzen dezute?

–Ba –senarrak erantzun zidan– eranegun pisatu giñan eta 235 kiloz gora eman zuen pixuak. Guk apetitu ona daukagu eta jan egiten degu.

–Jarrai orrelaxe, zuen gogoa ala bada. Gantzak alkar jotzeko ez zazutela zoritxarrik izan, ori sendagaitz txarra omen da eta. Agur eta, urrena alkar ikustean, esango didazute goraka ala beeraka egin dezuten.

(El Diario Vasco, 1988-X-1)

GORPUTZ-BIDE

Gure errian iru Gorputz-bide ezagutu izan ditugu. Garai batean, erri txikietan batez ere, baserritik elizara ez zan gaur ainbat kamiño izaten; eta bide orri, diogun deitura ori ematen zitzaion. Eta zergatik izen ori? Ba, ildakoaren gorputza bide ortatik eramaten zalako. Diogun bide onek begirune eta errespeto aundia izan oi zuen.

Gure errian iru ezagutu izan ditugu. Bat, Urkia auzotik elizara zegoena. Gaur bide ori naiko galdua dago, bertan larrak eta sastrakak ugaritu eta indartu diralako. Urki'tik, Oiagola eta Abade Iturria igaro ondoren, Larregi baserria dago. Gure ama zanaren jaiotz etxea ain zuzen. Berak kontatzen zigun nola

ezagutu izan oi zuen, zerraldoa etxe aurretik igarotzean, mai bat jartzen zutela. Mai ontan ildakoaren kaja uzten omen zuten eta, illobizaleek beren jantzi eta oiñetakoak aldatu ondoren, apaizak pater nosterre errezzatu eta ildakoa elizara eramaten omen zuten illetak egitera, ondoren ildakoari lur santua emateko.

Beste bide oietako bat Goierni ballaratik elizara ezagutuak gera. Gaur goierritarrek kamiñoa daukate eta lengo bide ori ez dute erabiltzen. Gure gazte denboran, gorputza bide ortatik ekartzen zutenean, atsedena Agarre baserrian egiten zuten eta, bide batez, illobizaleak txukundu egiten ziran. Apaizak, leen esan degun bezela, otoitzak egin eta danak illetara. Entierroa ere deitzen zitzaion.

Ildakoaren gorputza, garai artan, elizkizuna egin bitartean, zimitorio edo eliz atarian egoten zan. Elizako funtzioak bi ordu inguru irauten zuen. Leendabizi, Errosarioko aldarean, meza kantatua. Gero nokturnoak eta, oek abestu bitartean, *a tiempo*'ko mezak. Ondoren, *Requiem*'eko meza, *Liberame* eta gorputza illobiratzea.

Errespontsoak ere izaten ziran. Segizioa ere bai.

Iruugarren Gorputz-bidea ondorengo au degu gure errian. *Renfe*'ko trenbideak erria alderik alde gurutzatzen du. Au da: Legorreta'ko mugatik asi eta Arama'raiño eldu bitarte. Itsasondo'k, Altzaga alde-
ra, trenbidearen arunztik, bost baserri dauzka. Oek: Iturriotz, Azubia, Sorabilla, Kanposenea eta Bengoetxea. Trenbidea, 1864'eko abuztuaren 15'ean inauguratu zan. Aurten eun da ogei ta lau urte, be-

raz. Burnibide ori egin aurretik, gurdibide bat zan, gaur kamiñoa bada ere, baserri oietara zuzendua. Nola trenbideak dalako gurdibide ori gurutzatuz igarro bear zuen, garai artako erri agintariek *Renfe*'ri eskatu zioten pasagune edo *paso a nivel* bat egin zezala, bere guarda eta guzti. Onartua izan zan. Orrela kaxeta bat egin zuten eta bertan kaxeteroa bizi izaten zan bere familiarekin. Gizon onen eginkizuna langak irekitzea zan, gurdi, abere edo karroren batek pasagunetik igarro bear bazuen. Gaur kaxeta ortan ez da iñor bizi; baiñan bai, urteko egun guztietan, aste eta jai, gau eta egun, txandatur, iru guarda egoten dira, bear danean langa ori zabaldu eta ixteko. Jakiña dan bezela, *Renfe*'ren gain dira iru gizon oen soldatak.

Ara orduko gizonak, buru eta zentzu onez jokatuz, erriaren alde gauzak nola egin zituzten. Ori da gizonak izatea, ori!

(*El Diario Vasco*, 1988-X-21)

AIEK RADARRAK!

Gizona eranegun, atzo eta gaur, beti aurrerapen billa dabil. Sekula, neurri batera irixtean, planto eginda gelditzen ez dezu ikusiko. Bere ikasi eta jakin naiak ez du mugarik izaten. Gaur oneraiño irixten bada, biar araiño joan nai du. Beti kezkatu eta beti aurrera joan nai gosea izaten du. Ez da asetzen. Jokabide au danontzat ongarri bada ere, arriskutsua dala ezin genezake uka. Ori ezeztatzea txorakeri aundi bat dala derizkiogu.

Ez dakigu zer urte izango zan, baiñan gure errian gertatua dala ondo dakigu eta ziur gaude, il ziran gure gurasoetatik, aurrak giñala, jaso dalako. Garai artan ere, dudik ez, aurrerapenak nai, ba.

Gure aitona zanak, Juan Martin Sarasola Goitia'k, gure ama zanaren aitak, errian karguren bat izango zuen. Alkate, juez edo fiskal.

Dana dala, Paris'tik Madrill'era egazkiñez, orduko eun kilometroko abiaduran, etorri bear omen zuten.

Garai aietan sinesteziñezko gauza. Gure aitonak artzen du enkargua, eta bete ere bai, Alzagarate mendian maindire zuriak jartzeko, aideplanoarentzat biderakusle edo *guía* izan zitezen.

Egazkiña pasa bear zuen bezperan, prestaketak egiñak izan omen ziran: maindireak, janariak, edariak eta abar.

Eldu da tresna ori igaro bear zuen eguna, eta egunsentian, astoa ondo kargatu ondoren, an dijoaz Alzagarate'runtz aitona eta bere *sekitoa*. Orduak joan eta orduak etorri eta egazkiña igarotzen ez. Illunabarrean, danak etxeratu omen ziran, izarak alperrik jartzen jardun ondoren. Astoak, dudik ez, ez zuen eraman zuen ainbat karga etxeratuko. Egunpasa ederra egingo zuten eta ez zan aserratzeko biderik izango.

Eguneko gastuak noren gain? Egundo ez genuen jakin.

Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxak, orain urte batzuk, *Gipuzkoa biotz begietan* izenarekin, liburu bat argitaratu eman zuen.

Bertan, erri bakoitzari buruz, gure adiskide diran Txomin Garmendia bertsolariak eta Iñaki Linazasoro idazleak, batek bertsoz eta besteak prosaz, labur zerbait diote.

Linazasoro'k liburu ortan esaten digu, Andoain'go errian, 1911'eko maiatzaren 26'an, Roland Garros abiadorea erori egin zala. Zauririk ez omen zuen izan. Obe. Gure galdera:

Roland frantzesarentzat jarria izan al zan gure aitona radar ura? Ez dakigu. Pena da.

Gaur gaur bezela, naiz izarazko radarrik ez erabilli –lan ontan guztiz aurreratua daude–, an eta emen abioiak erori egiten dira. Ainbat eta ainbat dabiltz goialde ortan! Ez da arritzeko istripuak gertatzea.

Orain berrogei urte inguru, gure errian, Luistarrren Eguna ospatzeko, jaialdi bat jarri zan. Beste festen artean, bertsolariak ere baziran. Nere adiskide Basarri eta Zepai (g. b.), ain zuzen. Arratsaldeko saioan ari ziran jo ta ke, eta ontan Basarrik puntu au jarri zion Zepairi, aireplano bat egan zijoala ikustean:

–Ibili al zerade
zu aireplanuan?

Eta Zepaik erantzun:

Gaztetan ortarako
gogua banuan,
gertatzen diradenak
ikusiz munduan;
nigatik libre dago,
nai badezu juan!

Zepaik, dirudienez, bere bizia ez zuen arriskuan jarri nai. Bildur zan Ikaro'ri gertatutakoarekin.

(El Diario Vasco, 1988-XI-10)

TELEFONOA

Gure errian ezagutu izan genuen garai bat, iru telefono bakarrik zeudena. Bat, Azubi'ko arbel lantokikoa zan; bestea, Sarasola'enekoa, aurrekoaren lan mota berdiñekoa zana; eta irugarrena gure etxean, udaletxean, zegoena.

Azkenengo oni *lokutorio* (mintzaleku) deitzen zitzaion, beren etxeetan telefonorik ez zuten erritarrek bertatik itzegin zezaten. Iñoiz, erriz kanpokoek ere erabili oi zuten.

Gaur egun, erriaren biztanleak kontutan arturik, naiko telefono dauzkagu Itsasondo'n. Ez daukagu *lokutoriorik*, baiñan bai *kabina* deitzen zaion oieta-ko bat, eta onekin baliatzen dira nai duten guztiek

beren deialdiak egiteko. Au, jakiña, etxean telefonorik ez dutenek erabiltzen dute.

Gure aurtzaroko telefonoak egurrezko tresna aundi batzuk izaten ziran. Adibidez, neurritz, pisuz ez noski, orain Perurena'k erabiltzen duen arriaren pareko. Orman kokatua egoten zan. Bere barrua dana kablez betea.

Ezkerreko aldean, itzegiteko eta entzuteko aparatu bat izaten zuen; eta eskubi aldean, berriz, eragin-gallu (*manivela*) bat. Ori eragin eta telefonoko zentraletik telefonistak, beti gazteleraz, galdera au egiten zuten:

—¿*Con qué pueblo y número quiere usted?*

Esaten zitzaion zenbakia eta erria, eta amarretik zortzitan erantzun berdiña izaten zan:

—*Tendrá que esperar. La línea está ocupada.*

Orrela, sarritan, orduak igarotzen ziran txandaren zai. Derrigorrean pazientzia artu bear, beste erremediorik ez zegoen eta. Jendeak zenbat *kirieleison* botatzen ote zituen telefonista aien gain? Ez zan arritzeko izaten, telefonistei aaztu egiten bait zitzaien bat konferentzi jarri zai zegoela.

Dalako *lokutorio* oiek zeuden etxeetan, geiementan bai beintzat, edaritegia izaten zan. Au dala-ta, ondorengo kasu au bururatzen zaigu. Goierri'ko erri txiki batean gertatua da. Goizeko bederatzia inguruan, an dator gizon bat *lokutoriora* eta ala dio bertako semeari:

—Egun on, Bittoriano. Etxean ezbear bat gertatu zaidak eta Leitza'ko zenbaki onekin jarri bear didak. Presako asuntoa dek.

–Baita zuri ere, Joxemiel. Oraintxe eskatuko det numero ori.

Bittorianok eskabidea betetzen du eta, konferentziarik jartzen ez zutela ikusirik, ala dio gizonak:

–Erdi baraurik negok eta ekatzak uxual bat galleta batzuekin.

Bittorianok ematen dizkio. Ontan, zorioneko edo zoritxarreko, luzapen edo *demora* ori konferentzia jartzeko, eta amabiak inguruan eskatzen dio ogiarteko bat litro erdi ardoarekin. Aiek bukatu, orduak aurrera eta konferentzirik ez. Gizona, desesperaturik, asten da baxoerdi bat besteren gainean edaten. Jabetzen da arraian pasa egin dala eta au dio:

–Au dek martxa, au, Bittoriano! Txotxolotu egin nauk. Etxean daukadan *kuadroa* gogoratuz, negar-gurea sartzen ari zaidak. Telefonista demonio oiek ditek erru guztia.

Ez dakigu zertan gelditu zan Leitza'ko konferentzi ura. Luze joan zala bai. Gaur, automatikoarekin, ez dago orrelakorik. Zenbakia markatu eta ix-tantean itzegiteko aukera daukagu. Ara gauzak nola aurreratu diran. Bearra ere bazegoen.

(*El Diario Vasco*, 1988-XI-20)

KANDELARIO

Igaro genuen, zorionez, aurtengo ilbeltza, naiz petrala gertatu bere izozte, legorte, katarro, gripe eta ospelekin.

Azkenengo oek ez dira atsegiñak, belarri eta sudur puntan irtetzen diranean. Zer esanik ez eskuetako beatzetan eta anketako orpoetan sortzen bazaizkigu. Atzo irratiz entzun nituen alako erremedio batzuk, oek sendatzeko. Ez dira txarrak izango, sendagille batek eman zituen eta. Atzo bertan, ospelei buruz, Altzaga'ko Luziarekin berriketa alditxo bat egiteko aukera izan nuen eta ala zion:

–Ospelak sendatzeko ez dago erremedio oberik, baba aundiaren lorearekin igurtzitzea baiño, Jexux.

Leen ere askotan entzuna degu gauza ori, eta asmatu zuenak ez zuen okerbidetik jo.

Baiñan, baiñan zer gabiltza? Kandelario –Orixe aundiarentzat Kandelario– tituluarekin asi lantxo au eta medikuntzan sartu? Barkatu. Goazen arira. Ilbeltzari agur egin eta orain otsaillan gera.

Otsaillaren 2'an ospatzen degu Kandelario edo Kandelario egun au. Egun ontan argizari eta kandelak bedeinkatzen dira. Piztean argia izaten dute eta argi orrek Jesus Argia dala adierazten digu. Mutil koskorrak giñala, bedeinkazio garaian korutik abes-teko, Milixiok –bera genuen koruko zuzendari-kanta au erakutsi zigun:

"Lumen ad revelationem gentium et gloriam plebis tuae Israel.

Euskeraz: "Atzerriak argitzeko argi-zuzi, eta zurre erri Israelen aintzarako".

Egun oni buruz, geuk ikusiak, ara bi gertakizun polit, geronen ustetan. Gure elizan kandela bedeinkazioa egin zan eta, ondoren, prozesioari ekin zitzaion. Ortarako, andetan an zegoen Ama Birjiña, kapa txuriarekin, illezko pelukarekin, beso batean Aur Jesus, beste eskuan kandela piztua, eta bere oiñetan, Itzaiene'ko Xantik utzita, saskitxoan, benetako usokumeak zituela. Dana guztiz apain prestatua. Lau gizonak artu zuten dalako anda ori, baiñan lau oietako bat belaunjokuz naiko elbarri zegoen. Badaramate anda dinbili-danbala, barkua olatu artean bezela; eta, zimitorio txikira eltzean, an dauden armailetan estropozo egiten du anka elbarri xamar zegoen orrek, eta an dijoaz lurrera Ama Birjiña, Aur

Jesus, kandela, usokumeak eta apaingarri danak. Ontan, gure erretore xaarrak:

–*Bueno, bueno!* Jira, jira. Goazen berriro aldarrera.

An bukatu zan urte artako prozesioa, naiz aurrez zimitorio txikitik, pelotalekuan barren, zimitorio aunditik elizara sartzea pentsatua egon.

Beste batean, gure ijito erri ontan, ondorengo aurgertatu zan. Bazan ama alargun bat, beti San Antonio gora eta San Antonio beera jarduten zana. Bere semea, soldaduskatik jira egiña, adiñekoa beraz, bidualtzen du kandela bedeinkatzera. Elizkizuna bukatu eta, mutil ori, amaiketakoa egitera, gure tabernan sartu zan. Nunbait lotsatu egiten zan kandela eskue-tan edukitzea, eta bururatu zaio kandela gabardina-pean gorde, ezkerreko eskua gabardinaren poltsikuan sartu eta ala kandelari eustea. Edanontzia, tabernako gastua ordaindu eta zigarroa ere eskuarekin zebilzkien bitartean, kandelaren muturra, bost zentimetro inguru, gabardinaren beeko aldetik ikusten zitzaion. Gu parrez bere ondoan, eta bera jabetu gabe gure parregurea zerk sortarazten zigun. Jakin gabe joan zan bere etxera. Olako mutillak gaur ez dira dozenan amairu sartzen.

(*El Diario Vasco*, 1989-II-3)

MILIXIOK EGIÑAK

Sarritan aipamenak egin izan ditugu, gizon onek izan zituen ogibideei buruz. Alare, dirudianez, gure irakurleak ez ditugu ase eta maiz asko bere gertakizunak eskatzen dizkigute. Naiz gure almazena, kontu oek gorde dituen, naiko agortua egon, gaurkoan ere jaun oni buruz zerbait idaztea erabaki degu. Goazen, ba, aurrera.

Milixio erriko aguazilla zan. Errian ez genuen okindegirik –gaur ere ez daukagu– eta erri-mugante diran Alzaga, Arama eta Ordizia'tik panaderoak etortzen ziran beren ogiak saltzera.

Bezeroak udalera kejatzen ziran, esanez ogiak pisuan etzebiltzala legez; eta orduan an joaten zan

Milixio Zelatxo'ko etxe ingurura, erriaren sarrerara, ogiak pisatzera.

Guk udaletxean genuen taberna, ez zan edariak saltzeko bakarrik, ez. Janariak ere bertan salgai izaten ziran. Milixio elduko zan gure etxera eta orrela esan oi zion gure amari:

–Maria, ogiak pisatzera joan bear det eta, mese-dez, pisua utzi zaidazu.

Pisua artuko zuen bere latoizko bi platerekin, gramoak pisatzeko pisuak ere bai, eta an jarriko zan Zelatxo aurreko petrillean, panadero*ei in fraganti*, uste gabean, *alto* eman eta pekatuan arrapatu asmoz. Legorreta'tik ere panaderoa etortzen zan, baiñan ez gera gogoratzen oni ogi pisaketarik iñoiz egin zionik.

Egun batean, pisaketa oiek egin ondoren, etorri zan gure etxera pisu tresnak itzultzera eta ala esan zion gure amari:

–Ara emen pisuak, Maria. Eskarrik asko. Alako panaderoak neretzako enkargua utziko du eta zuk ondo jaso. Arratsaldean etorriko nazazu bere billa. Ondo bazkaldu. Aio.

Panaderoa etorri zan eta, guk etxerako eta saltzeko bear genituen ogiez aparte, iru lauko utzi zituen Milixioarentzat. Laukoa lau librako ogiari deitzen zitzaion.

Arratsalde erdian an etorri zan Milixio bere enkarguaren billa, eta gure amak au esan zion:

–Ogi jan ederra badaukazu, Milixio.

Gure amak esan ziona oso egoki zegoen. Milixio bere alaba Ixabelekin bakarrik bizi izaten bait zan.

–Bai, Maria. Arrazoi dezu. Panaderoak zekartzan ogiak ez zeuden legezko pisuan eta ala esan diot: "Gaurkoagatik pasatzen utziko dizut, baiñan Kontzejuan neretzako utsean iru ogi utzi".

Iru ogiak zakuan sartu eta an joan zan bere etxe-runtz, gure amari gertatua kontatu eta eskerrak eman ondoren.

Soldaduskan dirua eta iru traje neurrira egin bazituen ere, geroz ere bazekien munduko jainko txikiaren berri. Ez zan motela!

Gure errian, naiz bertakoak ijitoak izan, pekatu bildurrez-edo, *balseo* dantza egitea debekatua zegoen. Erriko festetan, bi kanpotar, plazako piñuaren ondoan, asten dira *agarrau* dantzan. Ikusten ditu Milixiok eta, bere aguazil makilla jasoz, ala dio mutillari:

–Si no le respetas a la chica, te mato de un mackillazo.

Ara errespetoa jarri, bai panaderoari eta baitare bikote dantzariari.

(El Diario Vasco, 1989-II-14)

DOTRIÑA

Urtero, Garizuma garaia irixten danean, dotriña ikasten jardun giñaneko kontuak bururatzen zaizkigu.

Gaur kontatuko ditugunak ere ez dira atzo goizean gertatuak, ez. Gure aurtzarokoak dituzu, irakurle. Orain irurogei urte ingurukoak.

Mutil koskorrak giñala, bi apaiz jaun ziran gure errian. Bat, Don Seberiano Yurrita, erretorea, ordiziarra; eta bestea, Don Jose Ganzarain, koadjutorea, Ibarra'ko semea. Don Seberiano il zan eta Jaunagan atsedean izan dezala. Don Jose, naiz bizkarrean urte asko eduki, osasuntsu omen dabil eta luzaro orrela jarrai dezala.

Biak izan ziran dotriñako gure irakasle; baiñan, batez ere, Don Joserekin gertatutako pasadizoak dabilzkigu gure buruan jira eta bira.

Leenengo jaunartzea egiteko –zazpi urterekin egiten zan–, ez zegoen dotriña asko jakin bearrik. Goiz eta arratseko otoitzak eta zerbait dotriña jakin ezkeru, naikoa izaten zan. Gero, amaika-amabi urterekin, jaunartze nagusia egiten zan, eta ori egiteko ikasi bear zan dotriñak ematen zizkigun benetako buru austeak.

Gerez, aitortu bearra dago, lotu xamarrak izango giñan; baiñan ikasi bear genuen dotriña ere erdera kutsu aundikoa zan eta guk ezin ondo ulertu. Don Josek, etxean ikasteko, jartzen zigun eguneroko lezioa; baiñan gure buruan ezin sartu, dotriña ark zeuzkan erderakadak. Dotriña ura Ernialde'ko Don Juan de Irazusta erretoreak euskeratua zan, Aita As-tete'k gazteleraz idatzi zuen dotriñatik. Ango *atri-zio, contrizio, soberano, eterno, glorioso, propiedade, mortificacio, Majestade dibino* eta abar, guk nola demontre konpreni? Guretzat, benetan eziñezkoak ziran. Don Markos maixuari *buenos días, buenas tardes, sí, señor* eta *no, señor* esaten ikasi genuen, eta or mugatzen zan gure erderaren jakituri guztia.

Eguna joan eta eguna etorri, ta gu beti beldurrez eta larri dotriñara joateko. Lezioa ezin ikasi eta orrek Don Jose su ta gar jartzen zuen. Neurri ortara eltzen zanean, kaskarrekoak partitzen ere ez zan amutsa, eta gu ixilik egon bear, beste erremediorik ez zegoen eta.

Alakoren batean *aprobau* eman zigun, eta kontentu jaunartze nagusia egin genuenean. Akabo gure kaskarrekoak!

Urteak joan ziran eta Don Jose Ibarra'ra, bere jaiotz errira, destinatua izan zan. Guretzat ere urteak igaro gabe ez ziran egon eta, igande eta jai arratsaldez, kaskaratik irten giñanean, Tolosa'ra joaten giñan, batzuk zinera, besteak pelota partiduak ikustera eta baitare, bide batez, *Altzo'ko Txoriekin* kontu kontari aritzeko asmotan.

Bein, sartu giñan *Erbiya* kafetegian eta an etorri zitzaigun Jerbaxio kamareroa, Ibarra'n bizi zana, gu serbitzera. Gure taldeko batek au esan zion:

–Jerbaxio, zer moduz dabil Don Jose apaiza?

–Ondo; oso ondo.

–Ba, nere partetik esaiozu –emen bere izen, abizen eta zuzenbidea eman zizkion– asko gogoratzen naizela berarekin eta, nai duanean, gure etxera buelta bat egiteko. Berak eman zizkidan kaskarrekoak gogoan dauzkatela, eta ea aundiagoak artuta etxeratzen dan. Odolkiak ordaiñetan izaten dira, Jerbaxio.

Zer erantzun etzekiela gelditu zan Jerbaxio.

(*El Diario Vasco*, 1989-II-25)

GAZTELERAZ IKASTERA

Garai batean, gazteleraz ikasteari garrantzi aundia ematen zitzaion. Adibidez, gaur egun ingelesez idatzi eta itzegiteari bezelatsu. Izkuntza au ikasteko, euskaldunak Kastilla eta Araba'ko zenbait erritara joaten ziran. Araba'n ere, naiz Euskal Erria izan, erri askotan euskera naiko murriztua zegoen, eta aietan ere gazteleraz itzezin bear, beste konponbiderik ez zegoen eta.

Orain ez zaigu orrelakorik gertatzen. Etxetik irten eta, bi pauso ematerako, zenbait denda, taberna, jatetxe, kale eta abarretan, euskeraz mintzatzen bazera, bereala esango dizute:

—Hábleme en castellano, que no le entiendo.

Ori naiko ez dala, pozik izaten gera ez badigute esaten:

–Hábleme en cristiano.

Ara zertaraiño iritxi geran gure lur maite ontan.

Atzerritarrak bakarrik ez dira errudun, ez. Geuk ere naiko utsegite izan degu, geureari arretaz eusten jakin ez degulako. Orain gabiltz estu eta larri. Ea, danok bat egiñik, txuspertzen degun. Pozgarri izango litzake.

Gure aitona zana, Juan Martin Sarasola Goitia, gure ama zanaren aita, orain eun da berrogei ta amar urte inguru edo geiago, gazteleraz ikastera, Araba'n dagoen Gometxa deritzaion erri txiki batera joan omen zan. Erderaz ederki ikasi zuen, baiñan sekula euskerarik ez zuen galdu. Onek badauka bere arrazoia, eta au da: bere jaiotz errira itzuli zanean, Itsasondo'ra alegia, emen danak euskaldunak ziran eta, etxe ta kanpoan euskeraz itzegiñez, bi izkuntzen jabe egin zan.

Or garbi ikusten da, gauza bat lortzeko bestea zertan galdurik ez dagoela. Gaur, askorekin beintzat, ez dago orrelakorik. Gazteleraz itzegiñez, jakintsu edo dotoreagotzat jotzen dituzte beren buruak. Mingarri da benetan.

Ondorengo kasu au ere erderarekin lotua dago. Lazkao'ko beneditarrek, garai batean, gure gazte denboran, mutil koskor asko edukitzen zituzten, gaur edo biar praile izan nai zutenak. Beste mutil koskor batzuk ere edukitzen zituzten, baiñan oek, eskola eta gazteleraz ikasiz gaiñera, mantenua ere izaten zuten. Mutillek, ordaintza bezela, praileen baratzan eta oillotegian zerbait lan egiten zuten. Trukean, alegia.

Errian badegu Urkia deritzaion auzo bat, eta emengo mutil bat joan da praileetara, erdera ikasi asmoz. Praileek lagun bezela jartzen diote, beti alkarrekin ibiltzeko baldintzarekin, arabar bat, Agurain'go semea ain zuzen. Onek eskola ikasi nai zuen. Euskerari ez zion garrantzirik ematen. Igaro dira illabete pare bat edo iru eta, praileak jabetzerako, aguraindarra naiko ondo euskeraz eta gure erritarra etxetik joan bezela erderari buruz. Tutik ez zekiela, alegia. Zer gertatu zan? Nor zan bizkorra? Nor tontoa? Gauza bat garbi ikusi zan. Gure erritarra irakasle izaten iaioagoa zala, ikasle izaten baiño. Ara, ontan ere, ijitoak zenbat balio degun.

Beste gertakizun au Iñaki Linazasoro adiskide on eta idazle bizkorraren liburu batetik jaso da. Base-ri batean seme bakarra omen zeukaten. Gurasoek erabaki dute erdera erakustea ongarrri izango zitzaiola eta sartzan dute iraillean barne eskola batean. Gabonetan an dator mutilla etxera. Afaltzen ari dirala, aitak esaten dio bere semeari erderaz zer-bait itzegiteko, bere erdera aurrerapenak entzun egarriz zeudela ta. Mutilla ixilik. Ontan, lurreko sua piztuta zegoen tximinitik, sartzan da aize zurrunbillo bat eta kez betetzen da sukalde guztia. Jartzen dira danak eztulka, ito bearrean. Ontan, mutillak:

—*¡Qué ke!*

Aitak:

—Gastua egiten ari gaituk, baiñan merezi zian.

(El Diario Vasco, 1989-III-9)

ASTOA

Aurtengo martxoaren 8'an, egunkari onek berak, gure adiskide Felix Ibargutxi'k idatzita, *Asto-janak* izenburuarekin, lantxo bat argitara eman zuen. Ortik eta ara bururatu zait nere astoa gai artu eta zerbait idaztea. Leenen esan bear det kale-ume bat naizela. Kanean jaio eta bertan bizi naizena.

Ala ta guztiz ere, gaurko zenbait baserritarrek ainbat edo geiago dakit astoaren berri. Gaur, baserrietan, oso asto gutxi ikusten dira, zaldiek baztertuak izan diralako. Zaldi oek gasolinarekin mantendu eta ibiltzen dira. Kotxeak dira.

Goazen nere astoaren kasua kontatzera. Jaio eta amalau illabete nituela, orduko *parálisis infantil*,

gaurko *poliomelitis* gaitzak jo eta bi anketatik zearo elbarri gelditu nintzan. Ala jarraitzen det. Urteak aurrera zijoazten eta elizara eta eskolara joateko garaia iritxi zitzaidan. Gure erria oso aldapatsua da, eta nola eliza ala eskola erriaren gaikaldean daude. Nola moldatu aietara joateko? Txanpon batzuk banituen aurreratuak, nere aitapontekoak emanak, eta aiekin astotxo bat erostea erabaki genuen. 1928 urtea zan.

1966 urtean Xenpelar Sarirako –irugarren saria eman zidaten–, omenaldi bezela, astoari bertsoak jarri nizkion. Emezortzi dira guzira. Danak jartzea luze litzake eta ara batzuk:

Asto txiki polit bat
izan nun gaztetan,
berak ibiltzen nindun
jai eta astetan.
Beste bat zintzogorik
ez nere ustetan,
alakorik ez dago
seitatik bostetan.

Amalau illabete
nitula jaiota,
poliok utzi nindun
betirako jota.
Geroztik anketatik
elbarri nago ta,
emen ibiltzen nintzan
astora igota.

Kamiño ondoan bizi giñan. Egunero, Legorreta'tik Ordizia'ra, bi neskatx gazte igarotzen ziran gure etxe aurretik, beren astoetako marmitetan saltzeko esnea zeramatela: Berostegi'ko Xeledoni eta Mukullu baserrian serbitzari zegoen Bixenta, ain zuzen. Gure amak galde egin zien ea bazekiten an edo emen astakumerik salgai ote zegoen. Baietz eta prezioa ekarriko zutela, izan zan erantzuna. Ekarri zuten eta astotxoa enkargatu genien.

Asteazken goiz batez, Ordizia'ko perira zijoala, an dator asto jabea bere aberetxoarekin, eta esan zigun etxerakoan ordainduko geniola. Egin ere ala egin genion.

Zenbat pagatu nuen
badakit seguro:
etxera ekarrita
dana zazpi duro.
Ta gaiñean jartzeko
nik milla apuro,
errenditu zedien
kapatu aguro.

Jose Joakin Garmendia'k, *Itzaiak*, prestatu zituen tresnak eta gure *Platero* martxan jarri genuen. Ezi gabe zegoen eta nor jarri bere gaiñean? Beldurra ematen zigun. Alde batetik ariña eta bestetik gaztea zan. Eguzkiak pote edo kristal batean islada egiten bazuen eta astoak ikusi, ipursaltoka laister zan. Nork errenditu?

Ezitzea kosta zan
amaika izerdi,
astakumea zan da
ezin egon geldi.
Ipur-saltalaria
andi ta emendi,
gaiñetik egin nuen
milla zilipurdi.

Gerora, mantxotu zanean, neretzat serbitzari on
bat izateaz gain, nere lagunen jostailu izan zan.
Ara zertaraiño:

Kopetakok bazitun,
nun aien berdiñek?
Berari erregali
emanak Martiñek.
Oi azal baten parpaill
txuri, polit fiñek,
igande ta jaietan
jazteko egiñek.

Dalako Martiñ au Itzaiene'koa zan. Joxe Joaki-
ñen semea, beraz.

Janarian ez zuen gastu aundirik. Aotza, belarra
eta noizean bein eskukada bat arto. Askok ez dakite
astoak sekula ez duela jaten arbi burua, eta ezta ere
arbi ostorik. Oso janari gogozkoa laranja azala iza-
ten du. Gureak, oetako azalak bide bazterrean ikus-
tean, laister batean jaten zituen.

Astoak, osasuntsu izateko, oso bearrezko du garbitasuna: illea moztea, eskubillatzea eta abar. Au, illea moztea alegia, udaberrian, Aizpurutxo'ko ijitoak egiten zion. Dei egin gabe etortzen zan. Buzuruz zekizkien Itsasondo'n astoak nun zeuden.

Erriko eliza eta eskolara ez-ezik, asto gaiñean ondo ibiltzen ikasi nuenean, Alzaga'ko Don Nikolas maixuarengana eta Arama'ko Don Jose maixuarengana, nere ikasketak egitera, joan izandu nintzan.

Astoa nere esanera jarria zegoen eta etxeakoak lasai egoten ziran.

Gauza guztiek izaten dute beren bukaera eta gure astoari ere iritxi zitzaion. Ara nolaz:

Legorretako Aizpe'n
jaio ta azia,
gero gure etxean
bizitza guzia.
Ementxe izan zuen
bere desgrazia,
San Tomas egun batez
utziaz bizia.

Geroz asto geiago ere izan nituen. Ogei urte ondo paseak nituela ere, asto gaiñean ibiltzen nintzan. Trenean ibiltzeko gai izatera eldu nintzanean, Donostia'ra joaten nintzan, ofizinista izateko ikasketak egitera. Ogei ta emezortzi urtez ofizinan lan egiña naiz. Eskola ikasteko, astoa izan nuen leenen-

go oiñarria, eta berari, Xenpelar Sariko azken bertsoa bezela, au jarri nion:

Beti portatu ziñan
zintzo eta jator,
neretzat izan ziñan
guzizko maitekor.
Orregatik zugana
gaur kantari nator,
nere ogibidea
zuri bait dizut zor!

(El Diario Vasco, 1989-III-18 eta 19)

IRRATI KONTUAK

Gaur gaur bezela, irrati emisorak eta irratia entzuteko tresnak an eta emen non-nai dauzkagu. Ugaldu egin dira. Gure gazte denboran ez zan orrelakorik, eta gutxiago gure aurtzaroko urte aietan. Ara gure erriko kasu batzuk.

Galena irratia. Mutil koskorra nintzan. Nere guraso eta senideekin erriko udaletxean genuen tabernan bizi izaten nintzan. Donostia'n bizi izaten zan gure anai Joakiñek (g. b.) abixatu zigun, alako egunean etorriko zala eta galena irratia ekarriko zigula; eta guk, ordurako, kobrezko ari bat jarrita edukitzeko, gure etxetik Larregi baserri inguruan zegoen eletrizidateko postera. Anaiaren agindua bete ge-

nuen, eta bera etorri ere bai, aurrez izendatu zuen egunean.

Gertaera ikaragarria zan orduan, orain berrogei ta amabost urte inguru, Itsasondo'n irratia entzutea. Gaueko amaikak inguruan, tabernako atea itxi ondoren, etxeko sukaldean jarri giñan irratia entzun zai etxetar danok, eta baitare tabernako bezero batzuk. Oek kontatuak ziran: Xexilio, Eustakio, Joxelontxo, Nikolas Txikia eta auskalo beste norbait ere bertan ez ote zan.

Irrati ura entzungaillu edo aurikularren bitartez entzun bear zan. Gure anaiak dana prestatu zuen, eta danok ixilik zer entzungo. Erlojuaren orratzak aurrera eta aurrera eta, txintik entzun gabe, naiz irradi entzun gosez izan, baraurik gelditu bearra izan genuen. Alakorik! Pena izan zan.

Gure anaiak ez zuen bere porrotik aitortu nai, eta esan zigun gure erria mendi tartean dagoela, kanal bat egiñez alegia, eta orregatik ez zala emisioa guregana eltzen.

Gaur ere gure erria ez da lekuz aldatu, baiñan irratia garbi eta ondo entzuten degu. Aurrerapenaren kontuak dira, eta kito.

Irrati konpontzailleak. Urteak aurrera zijoazen eran, an eta emen, errian, irratia asi ziran. Zapatari tabernan bazuten bat eta an egoten giñan futbola edo beste zenbait kirol mota gogo eta arretaz entzuten. Ontan, aberiatu zan irradi ura eta erriko sasi eletrizista bi jabetu ziran bera konpontzeko. Beren laneko orduetz kanpo, illunabarretan, irradi konponketan jardun ziran; baiñan dana alperrik izan zan, irratia be-

rak zituen piezetatik batzuk sobratu egin zitzaizkien eta. Aiek teknikoak, aiek!

Radio Kaxeta. Gure adiskide Joxe Jauregi'k, Joxe Kaxeta'k, erriko leenen piragua egin zuen berberak, *por correspondencia*, irrati tresna egiten ikasi zuen. Piezak erosi eta irratia egin zuen. Bere etxeko upategian orduak eta orduak pasa zituen irratia egiten, baiñan dana alperrik izan zitzaion. Estreñaldiko egunean bere etxean giñan. Gu iru anai, Manolo faktorea ere bai, eta besteren bat ere an izango zan. Ez naiz ondo gogoratzen. Joxe, zurgina dalarik, sekulako kaja dotorea egin zion. Nunbait, Joxek ez zuen gogoan izan esaerak diona: "Zintzarria, beia baiño leenago erosi". Bere ustez irratia martxan jarri zuen eta, alako *piiiiff, piiiiff, piiiiff* batzuk entzun ondoren, belarri makur etxeratu giñan. Alperrik izan zitzaion tornilloak estutu eta kableak lekuz aldatzea. Irrati ura gaur nun? Museo batean? Madril'go *Rastroan* salduta? Ez dakigu.

Segura irratia asi zanean, *Moliendo café* diska puri-purian zegoenean, amaika karta idatzi zituen bertara gure erritar *Urkiko Krabeliñak*, alako eta alako doiñuak jotzeko eskatuz. Garai aietan ez zan oiturarik euskeraz idazteko, baiñan beti ala egiten zuen, aiton-amonak, gaixoak eta abar alaitu asmoz.

Soroan babarrun biltzen ikusita gaude, parda baten gaiñean irratia jarri eta, trikitixa entzunez, ain ederki ari zirala. Babarrun uzta ez dakigu zer izango zuten, baiñan naiko alaitasuna jasoko zuten. Alde ederra dago gure anaiak ekarri zuen galena-irratitik gaurkoetara.

(*El Diario Vasco*, 1989-IV-21)

PRENSSE

Gure erri ontan, Itsasondo'n, beti izan degu bizikleta karreretakako zaletasun berezi bat. Mutil koskorrak giñala, 1930/31 inguruan, gogoratzen degunez, jarri zuten leenengoa. Erritarrentzat bakarrik zan. Gero ere jarraitu zuten, gerra etorri arte. Onek, gerrak, errietako pestak erabat moztu zituen eta urte batzutan or egon giñan karrerarik gabe.

1935'eko urtean, gerra aurretik noski, lizentzi gabeko afizionatuentzako bat eratu zuten. Karrerista asko etorri ziran kanpo erritik ere. Irabazle Jesus Díez, pasaitarra, izan zan; eta bigarren, gure anai Teodoro, au esatea askok *farolada* dala pentsatuko badute ere.

Gerra bukatu zan eta gauzak, poliki-poliki, bere onera etorri ziran. Gazteak giñan eta karrera bat antolatzea erabaki genuen. Jarri ere egin genuen, erri-tarrentzat bakarrik. Txapeldun, Juan Jose Rezola, Mingotxene baserrikoa. Errian, baserri oni Mingotxene deitzen diogu, naiz berez Bengoetxene izan.

Ez gera ondo gogoratzen karrera ontan zan, ala beste batean, ondorengo kasu au. Isasondo'tik —orduan ala deitzen zitzaion gure erriari— irten eta Villafranca'ra ginjoazela —gaur Ordizi deitzen zaio—, bi kilometro igaro baiño leenago, nun asten dan karrerista bat bere kolkotik arraultza atera eta manibelaren gañean kaxka-kaxka jo eta arraultza txupatzen. Nunbait beldur zan *pajarak* joko ote zuen.

Beste urte batean sekulakoa egin genuen. Jarri degu karrera eta gure leengusu Andoni Sarasola'k —garai artan Puerto Sagunto'n kategori aundiko lanpostu bat zeukan— abixatu zigun karreran ibiltzera etorriko zala.

Ni, ordurako, *La Voz de España*'n erriko berri emaille nintzan, eta esan nion Joxe Kaxeta'ri letrero bat egiteko au ziona: "*Tour de Andra-Mari. Prensse*".

Joxek bete zuen nere agindua, eta Andoni lengusua ere etorri zitzaigun egundoko *haigarekin*. Jarri genion letreroa kotxeari eta, Villafranca'ra eltzean, zerbait bagiñala-edo erakutsi naian, gelditu giñan *Bar Olano* aurrean. Ontan, an dator bertako nagusia Pako Olano eta, naiz erderaz berak esan, euskeraz jarriko degu, sail au euskerazkoa dalako. Ala esan zigun:

–Ñoo! Karrera inportantea izango dek au, *Agencia Logos* ere emen dakartzue eta.

Urrena, berriz, gure adiskide Joxe Mari Maiz inguratu zitzaigun, eta onek:

–Burutik argi al zaudete? Frantzesez *press* idazten dek, eta ez *prensse*.

–Bai; ori jakin bazekiagu. Baiñan jendeari, ikusleei, nola adierazi periodistak gerala? Gu ere, i beze-la, frantzes kastakoak gaituk: txikitan Paris'tik ekarriak.

Txuri bana artu ta, Pako eta Joxe Mari agurtu ondoren, Zaldibia, Larraitz, Abaltzisketa barren, karre-ran jarraitu genuen.

1952'ko urtea. Federatutako afizionatuentzako, Agoztuaren 17'an korritzeko, karrera bat jarri genuen. Illaren 14'eko *Unidad* egunkariak ala zion gazteleraz: "*Por orden de la UVE se aplaza la prueba de Isasondo*". Orduan erriko alkate Zelatxo'ko Ramon Iturrioz zegoen. Berari agertu genizkion gure kezka, eta esan zigun karrera lasai egiteko. Bera egiten zala erresponsable. Telefonoa astindu genuen ango eta emengo ekipoei karrera bazala esanez. Etorri ziran karreristak eta, izenak artzen ari giñala, an dator Villafranca'ko guardia zibilletako kabo edo sarjentoa; eta, naiz berak gazteleraz esan, euskeraz jarriko degu.

–Gobernadore zibillak telegrama bat biali dit, eta bertan esaten du karrera suspendituta dagoela.

–Ba, guk Madrill'go Federazio Nazionalera jo degu eta karrera egiteko baimena gerekin degu. Eskuetan daukagu.

Ni neu izan nintzan ziri ori sartu ziona.

Karrera jokatu zan. Eratzailleek geurok egin genuen epailari, kronometradore, periodista eta abar lana. Iñork ez zuen miñik artu eta kontentu.

Guardia zibilla enteratu zan gezurra esan niola eta, andik illabetera-edo, au esan zidan, bere eskua emanez:

–Zorionak, Lete, guardia zibilla engañatzen jakin dezulako.

Ara ijitoak nolako gauzak egin izan ditugun.

(El Diario Vasco, 1989-V-17)

LARRAITZ

Orain irurogei urte inguru izango dira, nere aita zanak leenengo aldiz Larraitz'ko paraje zoragarrira eraman ninduela. Zazpi-zortzi urte ortxe-ortxe izango nituen. Eguraldi ederra zan. Asto gaiñean joan nintzan. Txindoki'peko leku eder artan, baseliza bat dago, Erremedioetako Amari eskeiñia, eta santa sekulan ez nuen jakin eskari edo promesaren bat egitera edo betetzera joan giñan, nere elbarritasuna zala bitarteko.

Garai artatik gaur egunera, Larraitz asko ta asko aldatu da. Taberna bakarra zegoen, gaur *Toki-Alai* izena daukana. Oraingo *Larraitz-gain* eta *Larraitz* jatetxeak kokaturik dauden lurrean, dana garo eta

pago besterik ez zan ikusten. Kamiñoa, berriz, bakarra zan; Abaltzisketa'tik dijoana, ain zuzen. Zaldibia'tik barren egiña, askoz geroagokoa da.

Larraitz'ko erromeriak, guztiz sonatuak, Pazko Maiatzeko eta San Pedro egunez ospatzen ziran. Maiatzekora egundo ez nintzan joan, baiñan bai San Pedro egunekora. Sarritan gaiñera. Ez dakit orain Pazkoa festarik egiten duten ala ez; baiñan San Pedrotan ez dutela egiten, neronek zertifikatu nezake, aurten bertan, egun ortan, arratsalde, nere emaztearekin joan nintzan eta.

Ogei urte inguru izango nituen, Sorabilla edo Soabil'go Joxe zanak bere zaldia utzi eta bere gaiñean nere lagunekin batera joaten asi nintzanean. Orrela, urteetan, koadrillan joan izan giñan. Zaldia oso leiala zan, lagunak zintzo eta jatorrak neri laguntzeko, eta egun ederra pranko igaro izan genuen. Mendiz joaten giñan, eta kamiñoz-kamiño, Zaldibia'tik barren, garaiz etxeratu.

Gerra ondorena zan, rasionamentu garaia, eta baikoitzak geren puska legorra etxetik eraman oi genuen.

Mendiko bidea orrela zan: Itsasondo, Altzaga, Bost-Aitzeta, Gaintza eta Larraitz.

Egun batez, Altzaga'ko erretore etxe aurretik igarotzean, apaiz jaunaren *kriada* –orrela deitzen zitzaion apaizaren neskameari, dotoreago izatearren-edo– irten zan etxeko atarira eta orrela mintzatu zitzaigun:

–Egun on Jainkoak, gazteok. Erromerira?

–Baita zuri ere. Alaxe goaz.

–Ba, postrerako, periila oso goxoak dauzkat. Prezio onean jarriko dizkizuet: dozena bi pezetan; eta bi dozena artzera, amabost errealean.

Nork eresia izan zuen. Ura salmenta, ura! Apai-zak diru danak eskuratu bazituen, aspaldian ez zuen alako erresponentsorik izango.

Beste urte batean, Larraitz'era gure erriko Zapataritari'ko kamionean joan nintzan. Goizetik euria bizi-bizi eta, alkar animatzeko, "jasoko dik, jasoko dik" esanez, ala joan giñan.

Zapataritarrek taberna jarri zuten, errian ere ala daukate ta. Taberna, toldo eta guzti jarri zuten. Eskerrak ari. Egun geiena toldopean pasa nuen. Nere bi anai, Bitor (g. b.) eta Teodoro, Joxe Kaxeta'rekin ziran sukaldariak. Egin zuten paella, zakurrak ere ez zuen jango. Legorra eta kearrez betea. Eskusa jarri zuten ipar aizeak sua itzali ziela, egurrak bustiak zeudela eta abar. Jan genuenak gaitzik ez zigun egin, eta pozik.

Beste au ere kontatatuko det, ba. Zaldi gaiñean joaten nintzan garaikoa da. Bagoaz Gaintza'tik barren eta ontan, sasi artetik, irtetzen da egan oillo bat, izututa, kakarazka. Koadrillako lagun batek jo makillarekin oilloa, eta egaztia, *ziplo!*, lurrera ilda. Sartu morralean eta Larraitz'era. Bertan jan bear genuela eta, lumatzen asi orduko, an dator kastellano bat, "*yo os dejo la cazuela*" esanez. Egosi bat eman genion oilloari, baiñan gogorra zegoen. Kastellanoari, egin zigun mesedearen ordaintza bezela, oillo laurden bat eman genion, bere salda eta guzti. Kazuelatik zanga-zanga saida artuz, ala zion:

–*¡Qué rico está!*

Nunbait, arek ere bazekien razionamentuan bizi izatea zer zan.

(*El Diario Vasco*, 1989-VII-19)

URA

Sarritan entzuten degu, eta irakurri ere bai, gaur ainbat alkooliko egundo ez dala izan gure artean. Zurrutari erabat emanak gaudela, alegia. Estadistikak or daude eta gu ez gera nor ezezka asteko. Baiñan, bestalde, noiz edan degu gaur edaten degun ainbat metalezko ura edo maiko ura deitzen diogun ori? Iñoiz ez. Gure aurtzaro eta gazte garaian, etxe-ko kanilleko ura edan oi genuen eta, ur preskoagoa edo ederragoa edan nai izan ezkeru, erriko Beiti'ko iturrikoa. Gaur egun ere, ur au askok erabiltzen dute jatordurako.

Errian badegu beste iturri bat ere, Iturriats deitzen dioguna. Osasunerako oso ona omen da. Gaur

iturri ori naiko galdua egon bear du, diotenez. Illargiaren gora-beerekin gustoz aldatzen dana da. Bartzuetan ustel usaia eta besteetan batere gabekoa. Bere garaian analizatu eta ontzat eman ondoren propaganda on bat egin izan balitz, ez zan xixtima txarra diru preskoa etxeratzeko.

Ur askorekin ori egin dutela garbi ikusten da. Laborategira eraman, an onartu, propaganda egin eta salmentara. Jendeak asko edaten du ur klase au. Batetik, kutsadura dagoelako; bestetik, iturriek leen ainbat ur ematen ez dutelako; sendagilleek errekomendatzen digutelako, eta abar.

Emen, Itsasondo'n, Larregi baserri inguruan, bazan beste iturri bat, Abade-iturria deitzen geniona. Gaur zerbait ur ematen omen du, baiñan oso gutxi. Gaiñera, bezeroak falta zaizkio. Abadeak, alegia. Udara partean, ipar aizetan, arratsaldez, iturri ortan biltzeko oitura zuten apaizek, beren tertulia egiteko. Gaur abade gutxi eta iturriko ur gutxi. Errogatibak eta letaniak egin bear ote ditugu, ba, abade berriak sortzeko eta iturria erruz ura ematen asi dedin?

Ezkio'ko Anduaga auzoan bada iturri bat, Alper-iturria deitzen diotena. Depositu txikia dauka eta, ur gutxi ematen duelako, ortik "alper" izena. Bertako ura edanda gaude, eta oso ona eta preskoa da. Udaran jendea erruz joaten da bertara ur billa. Leen, gari jotzea izaten zanean, ura ekarri aala, garijoleek edaten omen zuten. Ur orri azukrea eta ardo piska bat botatzen zitzaion. Aldiz jende asko ur billa, eta sarritan txandan egon bear, "alperraren" depositua bete arte.

Ibas'ko errota Arama'ko lurrian kokatua dago. Errota ortatik berreun metrotara edo, gure erriko lurrian, Pipartegi'ko aldaparen asieran, eskubitara ain zuzen, iturri bat zan, gaur egun agortua dagoena. Orain eun urte edo, errotaria ikusi izan omen zuten, udarako gau beroetan ur billa bertara urbiltzen. Kanpetxano joaten omen zan, bere txarroa eskuetan zuela.

Ibas'i buruz gauza bat jarri bear degu. Dalako errota ori Oria ibai ertzean dago eta, gure ustez, berez Ibai-ertz izango du jatorrizko izena. Guk ere, Oria ibaiaren ondoan bizi geralako artu genuen *Ibai-ertz* izenordea.

Eta, urarekin jarraituz, au ere esan bear degu. Tabernetan-eta izaten dira kamarrak eta sesioak sortzen dituztenak. Edanean pasata zegoela adierazteko, orrela esaten degu:

–Ur bedeinkatu utsarekin ez zegoen eta...

Lantxo au uztaillaren 19'an idazten ari gera. Oso bero dago eta ur presko trago bat egitera goaz. Urrenarte, irakurle. Agur.

(El Diario Vasco, 1989-VIII-1)

IKASTURTE BERRIA

Bukatu ziran oporrak eta aur, gazte eta ez gazteek berriro ekin diote ikasketa saioei. Gaitzerdi, *repetitur* –koruan Milixiori ikasi nion itz onen esangura– egin gabe libratu baldin badira. Ekainean kale eta iraillean kate, orixe da benetan gauza trixtea. Uda guztian klase bereziak egiten jardun, ordaindu ere bai, eta orain utsean gelditzea ez da gauza atsegiña izango. Erri eskolan, uztaillean dana *aprobau* eta udazkenean lixto izaten giñan *kurso* berriarekin asteko. Irakasle ona? Ikasleak bizkorrak? Orrelako zerbait izango zan.

Gure maixua Don Marcos Pérez de Mendiguren, arabarra, izaten genuen. Berak euskerarik ez zekien,

eta guk gaztelera menperatzen ez genuelako, ortxe izaten ziran komeriak. Baiñan, ala ta guztiz ere, alkarrekin ondo konpontzen giñan.

Gure ikasketak, alde aundirik gabe, orrela ziran: leenbizi, kartillatik, irakurtzen ikasi. Itz oekin asten giñan: *ama. humo, ese, dado* eta abar. Ura ikasitakoan, katonera pasatzen giñan.

Zirriborroak egiten ikasteko, arbelezko pizarra izaten zan bere egurrezko markoarekin; eta, arkatz bezela, pizarrilloa. An zerbait idazten ikastean, *planan* asten giñan. Leenen, bi lerrokoa; eta gero, zerbait arrastoan sartzean, bakarrekkoa.

Maixuak egiten zigun goikaldean *modelo*, eta guk ura kopiatzen genuen. Gero, poliki-poliki, *diktaduan* asten giñan.

Aritmetika ikasteak ere izaten zituen bere lanak. *Tablero* batean eun bola zeuden, amarnaka, alambrean sartuta.

Bola aiek, banan-banan, gazteleraz, euneraiño zenbatzen ikasi bear zan. Ori ikastean, beetik gora, alanbreak kontatzen ziran, "*de diez llevo una, de veinte llevo dos*" esanez, ondo ikasi arte. Gero, batuketa edo *sumar* ikasten zan. *Dezimalak* ikastean izaten ziran komeri latzak.

Don Marcos'ek, komak zuzen jartzeko, orrela esan oi zigun:

–Paren-paren.

Itz oekin pare-parean jartzeko adierazten zigun. Ondoren, kenketa, dolostaketa eta zatiketa ikasten ziran. Azkenengo ontan ere ez zan buruauste falta-rik izaten.

Dividendoa divisorrean zatitzeko zenbat zenbaki artu bear ziran adierazteko, au esaten zigun Don Marcos'k:

–*Ume, zer da número arrapatu? ¿Cuántas para cuántas?*

Gurekin prejizio ederrak izaten zituen maixu jaunak.

Garai artan gure esker onak eman ez bagenizkion ere, gaur zerutik jaso ditzala, ondo mereziak dauzka eta.

Ondorengo kasu au, nere ustez, polita da eta kontatzera noa. Gure etxean bazan aurrentzako izaten zan *marinero* jantzi oietako bat, bere *gorro* eta guzti. Onek *Río de la Plata* zeukan idatzia. Don Marcos'ek, egun batean, geografia irakatsiz, Euskal Erriko ibaien izenak erakutsi zizkigun.

Artan bukatu zan gure *klase* ura. Andik egun bazueta, maixu jaunak dei eginda, bere mai inguruan jarri arazi giñuztan korroan, eta galdera au zuzendu bakoitzari:

–*¿Cómo se llama el río que pasa por Isasondo?*

Orduan gure erriak izen ori zuen. Baten erantzuna Urumea izan zan. Bestearena, Urola. Irugarrenak, Bidasoa; eta, nere txanda eldu zanean, nere burua jakintsu bihurturik, orrela erantzun nion:

–*Río de la Plata.*

Don Marcos parrez, eta nere lagunak ere berdin, maixu jauna ala ikustean. Orduan lotsaz gorde nuen, gaur neronek ere parrez kontatzen det. Eskolatik irtetzean, otoitz au egiten genuen, paretan jarrita zeuden kartel aundi batzuk irakurriz:

—Os damos gracias, Señor, porque nos habéis asistido con vuestras luces...

Ara, irakurle, ikasturte berriak zer gauzak burura ekarri dizkidan.


(El Diario Vasco, 1989-IX-21)

ARKIBIDEA

Itzaurrea	11
Esaera zaarrak	17
Ijitoak	20
Biurrikeriak	26
"Derrepente"	30
Errietako festak	33
Mus	36
Trena	39
Aurrez artzea obe	42
San Juan sua	45
Zakurra	48
Nikolas amerikanoa	52
Estropadak	56
Andra Mari jaiak eta Milixio	60
Gizon saiatua zan Milixio	63
Gaur iru urte juxtu	66
Milixioren lanak	69
Erretratatzeko makina	73
Mikeleteak	77
Datorrena dijoa	83
Bezperak	87
Apeaderoa	90
Komedianteak	95
San Nikolas	99
Itsasondo, 3; Legorreta, 3	102
Antiojuak	105
Zilindroa	109
Praskinixio	114

Erreka eta ibaietako arrantza	117
Pazkoazkoa egiteko txartela	122
Erramu eguna	126
Leen bai eta gaur ez	129
Letani, errogatiba eta konjuroak	132
San Antonio	135
San Luis	138
Piragua	142
Bazterrik bazter	145
San Inazio	150
Sermoiak	154
Milixio eta dirua	158
Eiztari kontuak	161
Tenporak	164
San Martin	167
Xexilio	170
Kikimakoak	175
Elurra	178
Morroiak	181
Garizuma	184
Sermoi eta otoitza	187
Aste Santuko oroitzapenak	190
Zozomikoteak	195
Bizikleta	198
Zorioneko Milixio!	201
Kirkilla	204
Aufi eta yeufiii!!!	207
Tripazaiak	210
Gorputz-bide	213
Aiek radarrak!	216
Telefonoa	220

Kandelario	223
Milixiok egiñak	226
Dotriña	229
Gazteleraz ikastera	232
Astoa	235
Irrati kontuak	241
<i>Prensse</i>	244
Larraitz	248
Ura	252
Ikasturte berria	255



AUSPOA
LIBURUTEGIA



1008962

BO-1800